

**UPV/EHUaren
Gizarte Kontseilua
1994-1998**

UPV/EHUko Gizarte Kontseiluaren Idazkaritza Teknikoa
Secretaría Técnica del Consejo Social de la UPV/EHU

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua
Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco

Depósito Legal/Lege Gordailua: BI-934-00

Fotokonposaketa: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua
Fotocomposición: Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco

Inprimaketa/Impresión: Itxaropena, S.A.
Araba kalea, 45
20800 Zarautz (Gipuzkoa)

Paper ekologikoan inprimatua/Impreso sobre papel ecológico

Ale kopurua/Tirada: 1.000

Aurkibidea

Aurkezpena	7
UPV/EHUaren Gizarte Kontseilua	11
Lege-esparrua	13
Gobernu-egitura	14
Eskumenak	15
Osaera	17
Osoko Bilkurako eta Idazkaritza Teknikoko jarraiko kideak	18
Osoko Bilkurak landutako gaiak	21
Osoko Bilkuraren erabakiak	33
Gizarte Kontseiluko Buruaren agerpenik garrantzitsuenak	43
Sabino Arana Fundazioak 1995eko irailean antolatutako Mintegia: Abertzaletasuna eta Unibertsitatea	45
Gizarte kontseiluetako buruen bilera, Madril, 1995eko azaroaren 2-3. Kalitatea Unibertsitatean	49
Kontseiluburuaren agerpena Eusko Legebiltzarraren Hezkuntza eta Kultura Batzordean, Gasteiz, 1997ko ekainaren 25ean	52
Agintariak Osoko Bilkuraren aurrean egin dituzten agerpen garrantzitsuak	61
Herri Kontuen Euskal Auzitegiko buru Juan Luis Laskurain jn. t. gorenaren agerpena Osoko Bilkuraren aurrean, UPV/EHUaren 1994ko Fiskalizazio Txostena aurkezteko, 1997ko azaroaren 3an	63
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza sailburuaren agerpena: Unibertsitatearen Antolamendua, 1997ko abenduaren 18an	69
Gizarte Kontseiluaren jarduerak	81
Batzordeak	83
Topaketak	85

Jardunaldiak	86
Gizarte kontseiluetako Buruen konferentziak.	91
Azterlanak eta Proiektuak	93
Azterlanak eta proiektuak	95
Beste lan batzuk.	116
Agerkariak.	117
Gizarte Kontseiluaren aurrekontuaren bilakaera	123
UPV/EHU kopuruetan	127

Aurkezpena

Atsegin dut Gizarte Kontseiluak bere bigarren agintaldian, 1994-1998 bitartean, egin dituen jarduera nagusien oroitidazkia aurkeztea.

Gizarte Kontseilua euskal gizarteak Unibertsitatean parte hartzea bermatzen duen gobernu-erakundea denez eta bertako kideak Euskal Herriko gizartean eta unibertsitate-erkidegoan dauden interesen ordezkariak direnez, eskerrak eman nahi nizkieke kontseilukide guztiei bilduma hau eratzeko egin dute talde-lanagatik, bai eta Idazkaritza Teknikoari ere, lana errazten buru-belarri aritu delako.

Aurkezpen labur hau amaitzeko, hausnarketa bat egin nahi nuke: euskal unibertsitate publikoak ez du proiektu estrategikorik eta hemendik aurrera denok ere gogotik aritu behar genuke hura lortzeko.

Laster batean, eremu askotan egin beharko dugu gogoeta geure proiektu estrategikoa definitzeko. Bai Legebiltzarrak aurki onetsiko duen Unibertsitatearen Antolamenduari buruzko Legeak, bai arduradun akademikoen borondatek politikoak, datozen urteetan Gizarte Kontseiluak lan ugari egin beharko duela iragartzen dute.

Herritarren burujabetasunaren ordezkariak, unibertsitate-erkidegoaren ordezkariak, hezkuntza administrazioko ordezkariak eta gizarte-ordezkariak bil-tzeak talde-lana erraztuko du, aipatu helburua lortzeko asmoarekin.

Hain zuzen ere, horrexetarako sortu zen Gizarte Kontseilua, botere legegileak, etapa honetan nire ohorerako buru jarri nauenak, nahi izan duelako.

Pedro Larrea Angulo

**UPV/EHUaren
Gizarte Kontseilua**



Lege-esparrua

Universidad del Pais Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Gizarte Kontseilua gizarteak Unibertsitatean parte hartzea bermatzen duen gobernu-erakundea da. Gizarte Kontseiluko kideak Euskal Herriko gizartean eta unibertsitate-erkidegoan dauden interesen ordezkariak dira.

Unibertsitatea Eraldatzeko Lege Organikoan ezarrita dago unibertsitate bakoitzak bere gizarte kontseilua izan behar duela, gizartearen eta unibertsitatearen arteko lotura-organoa izan dadin.

Euskal Herriko Autonomia Erkidegoak eskumena du irakaskuntzaren maila, gradu, modalitate eta espezialitate guztietan.

Eusko Legebiltzarrak, Oso Bilkuraren 1985eko ekainaren 27ko bilkura arruntan, UPV/EHUaren Gizarte Kontseilua sortu eta arautu zuen Legea onetsi zuen.

Gobernu egitura

UNIBERTSITATEAREN GOBERNU ORGANOAK

Elkargoak

Pertsonabakarrekoak

UPV/EHU

GIZARTE KONTSEILUA
UNIBERTSITATEAREN KLAUSTROA
GOBERNU BATZARRA

ERREKTOREA
ERREKTOREORDEAK
IDAZKARI NAGUSIA
GERENTEA
GERENTEORDEAK

CAMPUSAK

CAMPUSEKO BATZARRA

CAMPUSEKO ERREKTOREORDEA

IKASTEGIAK

FAKULTATE/ESKOLAKO BATZARRA

DEKANOA/ZUZENDARIA
DEKANORDEAK/ZUZENDARIORDEAK
IDAZKAROA

SAILAK

SAILEKO KONTSEILUA

ZUZENDARIA

UNIBERTSITATE INSTITUTUAK

UNIBERTSITATE INSTITUTUAREN KONTSEILUA

ZUZENDARIA

Eskumenak

Gizarte Kontseiluaren eskumenak Eusko Legebiltzarra hura sortzeko eta araupetzeko eman zuen Legean, Unibertsitatea Eraldatzeko Lege Organikoan, Euskal Herriko Unibertsitatearen Estatutuetan eta Gizarte Kontseiluaren Araudian agertarazi dira.

Ekonomia eta finantzen arlokoak

- UPV/EHUaren Gobernu Batzarrak proposaturik, Unibertsitatearen urteko aurrekontua onestea, bai eta haren urte anitzeko programazioa eta Unibertsitatearen jarduera planaren ebaluazio ekonomikoa ere.
- Unibertsitatearen Gerentearen izendapenean hizpidea izatea.
- Unibertsitatearen jarduera ekonomikoak eta haren zerbitzuen etekinak gainikustea.
- Gizarteak Unibertsitatearen finantzaketan parte hartzea bultzatzea.
- Gastu arruntak kapital-gastuetara transferitzea erabakitzea, bai eta, Eusko Jaurlearitzak baimena eman ondoren, kapital-gastuak beste zeinahi kapitulutara transferitzea ere.
- Unibertsitateko irakasleentzako ordainsari zehatzak zehaztea, bai banakakoak, bai irakaskuntzako jardunaren eta merezimenduen arabera.
- Titulu ofizialak ez besteak lortzeko ikasketen prezio publikoak eta gainerrako eskubideak finkatzea.

Unibertsitate-ikastegiak sortzea

- Eusko Jaurlearitzari fakultateak, goi eskola teknikoak, unibertsitate eskolak eta unibertsitate institutuak sortzea proposatzea.
- Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketari Sailari ikerkuntzako edo artesorkuntzako erakunde edo zentru publiko zein pribatuak Unibertsitateari unibertsitate-institutu gisa atxikitzeko hitzarmenak proposatzea, hark onets ditzan.

Ikerketa

- Unibertsitateak zuzeneko adjudikazioaren bidez ikerketako egitarauak burutzeko behar dituen ekipo-ondasunak eskuratzea erabakitzea.


Ikasleak

- Behar diren frogasaioak ezarritako epeetan gaituzten ez dituzten ikasle-ek Unibertsitatean segitzeko arauak ezartzea, Unibertsitateen Kontseiluak txostena eman ondoren.
- Ikasleentzako beka, laguntza eta kredituen politika gauzatzea eta tasa akademikoak ordaindu beharretik erabat edo partzialki salbuesteko moduak ezartzea.

Osaera

UPV/EHUAREN GIZARTE KONTSEILUA

OSOKO BILKURA



Osoko Bilkurako eta Idazkaritza Teknikoko jarraiko kideak (1994-1998)*

Kontseiluburua

Ignacio M^a Echeberria Monteberria jn.
Pedro Larrea Angulo jn.

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Gobernu Batzarraren Ordezkariek

Errektorea

Juan José Goiriena de Gandarias eta Gandarias jn.
Pello Salaburu Etxebarria jn.

Idazkari Nagusia

Alberto Lopez Basaguren jn.

Gerentea

José Angel Quintanilla Angulo jn.
Carmelo del Valle Cenicacelaya jn.

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Gobernu Batzarrak izendatutako Kideak

Iñaki Albistur Unanue jn.
Francisco Aldecoa Luzarraga jn.
Begoña Alvarez Fernandez-Bernal and.
Ricardo Alvarez Isasi jn.
Luis Arrieta Pérez jn.
José Mari Burguera Liceaga jn.
Jokin Cos Rodriguez jn.
Alberto Chamorro Belmont jn.
Carlos Etxebarria Bravo jn.

* Zerrenda hurrenkera alfabetikoan antolatu da.

Francisco Javier Ezquiaga Ganuza jn.
Carlos Fernández de Casadevante jn.
Javier Fernández Eraso jn.
Irene Florez Cousillas and.
Carmen Gallastegui Zulaica and.
Manuel González Portilla jn.
Julio Grafe Arias jn.
Leonardo Lorente Fernández jn.
Juan José Martín Zurdo jn.
Javier Muniozguren Colindres jn.
Daniel Pascual Pascual jn.
Gabriel de la Rica Aspiunza jn.
José Ignacio Ruiz de Larramendi Lopez de Munain jn.
Pablo Setién Pascual jn.
Manuel Tello Leon jn.
Arantza Urkaregi Etxepare and.
Ramon Zallo Elguezabal jn.

Eusko Legebiltzarraren Ordezkariek

Joseba Arregi Aranburu jn.
Adorazioa Arregui Larrañaga and.
José Manuel Barquero Vazquez jn.
Javier Bergara Orue-Etxebarria jn.
Carlos Caballero Basañez jn.
José Carrera Arizaga jn.
Alfonso González González jn.
Ricardo González-Orús Marcos jn.
Juan José Ibarretxe Marcuartu jn.
Juan M^a Juaristi Lizarralde jn.
Paulino Luesma Correas jn.
Arantza Mendizábal Gorostiaga and.
Antonio Saenz de Santa Maria jn.
Jerino Samaniego Ogueta jn.
Koro Uranga Otaegi and.
M^a. Jesús Vergara Serrano and.

Lurralde Historikoetako Batzar Nagusien Ordezkariek

José Manuel Lopez de Juan Abad jn.
Juan Pastor Alvarez jn. (Arabako B.N.)

Nekane Alonso Santamaria and.
José Aspiazu Macho jn. (Bizkaiko B.N.)

Esther Larrañaga Agirre and.
Elias Salaberria Ibargoién jn. (Gipuzkoako B.N.)

Sindikatuak Ordezkariek

Pedro M^a Altuna Ibabe jn.
Carlos Trevilla Acebo jn.
Enrique Urrutia Cobeaga jn., beraren ordezkari José Luis Ruiz Garcia jn.

CONFEBASKen Ordezkariek

Fernando Capelastegui Herrero jn.,
beraren ordezkari Félix Aparicio González jn.
Javier Hernandez Bilbo jn., beraren ordezkari José M^a Zalbidea Lerchundi
José Luis Garcia Bengoa jn.
José M^a Zalbidea Lerchundi jn. (g.b.),
beraren ordezkari Pedro Tubia Ezquerri jn.

Idazkaritza Teknikoak

M. Pilar Elorrieta Santos and.

Osoko Bilkurak landutako gaiak



Aztertutako gaiak

1994ko maiatzaren 31 (24.)

- Gizarte Kontseiluaren finantza-orriak, 1993ko irailaren 30ean eta abenduaren 31n bukatutako epealdiez.
- Gizarte Kontseiluaren 1994ko Aurrekontua, Ekonomia eta Finantza Batzordeak Osoko Bilkurari bidalitako erabaki-proposamena.
- UPV/EHUaren 1994ko Aurrekontua. Ekonomia eta Finantza Batzordeak Osoko Bilkurari bidalitako proposamena.
- UPV/EHUaren eta Servicio Vasco de Salud Pública/Osakidetzaren arteko hitzarmena, Farmaziako Fakultateko ikasleek praktikak egin ditzaten. Memoria Ekonomikoa. Ekonomia eta Finantza Batzordeak Osoko Bilkurari bidalitako erabaki-proposamena.
- Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak 1994-95 ikasturterako deitutako 10 lankidetzak Unibertsitateko sailen artean banatzea. Irakaskuntza eta Euskara Batzordea Osoko Bilkurari bidalitako erabaki-proposamena.
- Irakaskuntzak baimentzeko eta ikasketa-planak aldatzeko espedienteak (Gizarte Laneko diplomaduna, Fisikan Espezializatutako Irakaslea, ...)

1994ko uztailaren 8a (25.)

- Gizarte Kontseiluaren 1993ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa. Ekonomia eta Finantza Batzordearen erabaki-proposamena.
- Gizarte Kontseiluaren 1993ko aurrekontuaren gerakinak 1994ko Aurrekonturako. Ekonomia eta Finantza Batzordearen erabaki-proposamena.

- Eibarko Industri Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola UPV/EHUan integratzea.
- Gasteizko Gizarte Laneko Eskola sortzea. Ekonomia eta Finantza Batzordearen erabaki-proposamena. Irakaskuntza eta Euskara Batzordearen erabaki-proposamena.
- Gizarte Harremanen Eskola sortzea. Ekonomia eta Finantza Batzordearen erabaki-proposamena. Irakaskuntza eta Euskara Batzordearen erabaki-proposamena.
- UPV/EHUaren 1991eko ekitaldiko fiskalizazio-txostenaren aurkezpena Herri Kontuen Euskal Auzitegiko buru Juan Luis Laskurain Argárate jn. t. gorenaren eskutik.

1994ko uztailaren 26a (26.)

- Irakaskuntzak baimentzeko eta ikasketa-planak aldatzeko espedienteak: Biokimikako lizentziaduna; Filosofiako lizentziaduna; Pedagogiako lizentziaduna. Titulazioak Irakaslea Atxikitako ikastegiak. Irakaskuntzak baimentzeko eta ikasketa-planak aldatzeko espedienteak aztertu dituen aldi baterako Batzordeak Osoko Bilkurari bidalitako erabaki-proposamenak.
- Gipuzkoako Campusean Enpresa Zientzien lizentziatura ezartzeko eskaera. Irakaskuntzak baimentzeko eta ikasketa-planak aldatzeko espedienteak aztertu dituen aldi baterako Batzordeak Osoko Bilkurari bidalitako erabaki-proposamena.

1994ko irailaren 22a (27.)

- Titulazio berrien beharrianari buruzko azterlana, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko inguruabarrak kontuan izanik: soziekonomikoak, laneak eta kulturalak. Aurkezpena.

1994ko urriaren 28a (28.)

- Irakaskuntza eta Euskara Batzordearen erabaki-proposamena, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak 1994-1995 ikasturterako deitutako lankidetzak Unibertsitateko sailen artean banatzeko moduari buruzkoa.
- Ikasleen matrikulazioaren bilakaera. 1994-1995 ikasturtea. Akademi Antolakuntza eta Irakasleen Errektoreordearen txostena.
- Ikasketa-planak. Eraldaketaren nondik-norakoak, Akademi Antolakuntza eta Irakasleen Errektoreordearen txostena.

- Gizarte Kontseiluaren 1994ko martxoaren 31ko eta ekainaren 30eko finantza-orriak.
- Kontseiluburuaren txostena Gizarte Kontseiluaren jarduerari buruz.

1994ko abenduaren 22a (29.)

- Dedikazio osoko irakasleei ordainsari osagarria emateko proposamena. Ekonomia eta Finantza Batzordeak Osoko Bilkurari bidalitako erabaki-proposamena.
- Irakasleen urte sabatikoei buruzko Proposamena. Ekonomia eta Finantza Batzordeak Osoko Bilkurari bidalitako erabaki-proposamena.
- Aldaketak aurrekontuan. Ekonomia eta Finantza Batzordeak Osoko Bilkurari bidalitako erabaki-proposamena.
- Gizarte Kontseiluaren 1994ko irailaren 30eko finantza-orriak.
- Ikasketa-planak ezartzea. Gizarte Kontseiluko buruak Osoko Bilkurari bidalitako erabaki-proposamena.

1995eko otsailaren 20a (30.)

- Unibertsitatea-Enpresa Fundazioa sortzeko proiektua. Azken txostenaren aurkezpena.
- Euskal Herriko Unibertsitatearen Liburu Zuria egitea. Jarduteko proposamena.

1995eko maiatzaren 30a (31.)

- Gizarte Kontseiluaren 1994ko abenduaren 31ko finantza-orria.
- Aldaketak aurrekontuan. Ekonomia eta Finantza Batzordeak Osoko Bilkurari bidalitako erabaki-proposamena.
- UPV/EHUak behar dituen azpiegiturei buruzko azterlana kontratatzeko oinarri teknikoak. Ekonomia eta Finantza Batzordeak Osoko Bilkurari bidalitako erabaki-proposamena.
- Euskarako Institutua. Sortzeko proposamena. Ekonomia eta Finantza Batzordeak eta Irakaskuntza eta Euskara Batzordeak Osoko Bilkurari bidalitako erabaki-proposamenak.
- UPV/EHUaren fiskalizazio-txostena 1992ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiaz.
- Unibertsitateen finantzaketari buruzko txostena, Unibertsitateen Kontseiluaren Koordinazio eta Planifikazio Batzordeak onetsia.

- Irakaskuntzak baimentzeko eta ikasketa-planak aldatzeko espedienteak.
- Bilboko Metroaren I. linearen eta Leioako Campusaren arteko loturak hobetzeko asmoarekin azpiegiturretan eta garraio-sistemetan jarduteko proposamenari buruzko azken txostenaren aurkezpena.

1995eko ekainaren 8a (32.)

- Euskal Herriko Administrazio Orokorraren eta UPV/EHUaren artean hitzarmena egiteko baimena; hitzarmenaren xedea Euskadiko Autonomia Erkidegoaren 1985eko Aurrekontu Orokorrak onetsi dituen apirilaren 12ko 1/1995 Legearen 2.3. artikuluan UPV/EHUarentzat ezarritako diru kopuruak Euskal Herriko Administrazio Orokorrak nola berrikusi behar dituen araupeku duena, aipatu legearen xedapen erantsietatik zortzigarrenarekin bat etorritz.
- José M^a Aldaia jaunaren bahiketari buruzko erakunde-adierazpena.

1995eko ekainaren 28a (33^a)

- Irakaskuntzak baimentzeko eta ikasketa-planak aldatzeko espedienteak.
- Marina Zibileko Goi Eskolako irakasleen ordainsariak Unibertsitatean titular oso gisa sartutako doktore ez beste irakasle osoei dagokien 27. mailako ordainsariekin berdinestea.
- Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak 1995-96 ikasturterako deitutako 3 lankidetzak Unibertsitateko sailen artean banatzea.
- Soin Hezkuntzako Euskal Erakundean Gizarte Kontseiluak izango dituen ordezkariak izendatzea.

1995eko uztailaren 27a (34.)

- Gizarte Kontseiluaren 1995eko Aurrekontua.
- UPV/EHUaren 1995eko Aurrekontua.

1995eko uztailaren 27a (35.)

- CUAren instalazioetan dauden aurrefabrikatutako sei pabiloi besterengatzea.
- UPV/EHUak eta Bilboko Udalak finkak trukatzeko eta erabilpena elkarri lagatzea.
- UPV/EHUak eta Donostiako Udalak finkak trukatzeko.
- Kulturako zenbait gauzaki Bilboko Gotzaitegiari dohain lagatzea.

- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak 1995-96 ikasturterako deitutako lankidetzak Unibertsitateko sailen artean banatzea.

1995eko azaroaren 30a (36.)

- Aldaketak aurrekontuan. Onetsi.
- Egoera soziolinguistikoa UPV/EHUan. IKEIk egindako azken txostenaren aurkezpena.
- UPV/EHUaren inbertsio-egitaraua. SENERrek egindako hurbilpena.

1995eko abenduaren 21a (37.)

- UPV/EHUaren 1993ko fiskalizazio-txostena.
- UPV/EHUaren plantilaren egoerari buruzko analisia. Ondorioen laburpen-txostena (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta UPV/EHUak 1995eko ekainaren 12an sinatutako lankidetzak-hitzarmenaren bosgarren klausula).
- Gizarte Kontseiluaren 1995eko irailaren 30eko finantza-orriak.
- UPV/EHUaren 1996rako Beharrianen Memoria.

1996ko urtarrilaren 22a (38.)

- Aldaketak aurrekontuan.
- Gizarte Kontseiluaren 1996ko Aurrekontua.
- UPV/EHUaren 1993ko fiskalizazio-txostena.
- Donostiako Erizaintzako Unibertsitate Eskola UPV/EHUan sartzea.
- Kontseiluburuaren txostena Gizarte Kontseiluak egingo dituen jardueri buruz.

1996ko martxoaren 4a (39.)

- Gizarte Kontseiluaren 1995eko abenduaren 31ko finantza-orriak. Onetsi.
- UPV/EHUaren 1994ko Txosten Ekonomikoa. Erabaki-proposamena.
- UPV/EHUaren plantilaren egoerari buruzko analisia. Erabaki-proposamena.
- Unibertsitate Institutuak. Erabaki-proposamena, .
- Ikasketa-planak. Psikopedagogiako lizentziaduna. Erabaki-proposamena.
- Jakintza-arloen katalogoa eguneratu. Unibertsitateen Kontseiluaren kontsulta. Erabaki-proposamena.
- Kontseiluburuaren informazioa.

1996ko apirilaren 15a (40.)

- UPV/EHUaren 1996ko para. Ekonomia eta Finantza Batzordearen irizpe-na. Erabaki-proposamena.

1996ko ekainaren 7a (41.)

- Txostena: EAEko Beharrian Teknologikoen Identifikazioa.
- Txostena: Gipuzkoako Unibertsitate Campusa. Oraingo egoera eta dato-zen igurikizunak.
- Txostena: Unibertsitatean sartzea. Plaza-mugak. 95-96 ikasturteko matri-kulazioaren bilakaera eta 96-97 ikasturterako aurreikuspenak.
- 1995eko Txosten Ekonomikoa.
- Gizarte Kontseiluaren 1995eko abenduaren 31ko finantza-orriak.
- Gizarte Kontseiluaren 1997rako Beharrianen Memoria.
- Aldaketak aurrekontuan.
- Unibertsitatearen lur batzuk aldi batez Bilbao Ria 2000 sozietate publi-koak atzematea.
- Kontseiluburuaren informazioa.

1996ko uztailaren 19a (42.)

- Unibertsitate-garraioa EAEan. Garraio eta Herri Lan Sailak bultzaturik ikasleen artean egin den inkestaren ondorioak.
- UPV/EHUaren ikerketa-eskaintzari buruzko analisiaren hurbilpena. Etor-kizunean garatzeko kontuan izan beharreko faktoreak. Ondorioak.
- UPV/EHUaren 1997rako Beharrianen Memoria.
- Ikasketa-planak. Jardularitza eta Finantza Zientzietako lizentziaduna. Era-baki-proposamena, behar bada.
- Unibertsitate institutuak. Egoera. Erabaki-proposamenak, bidezkoa bada.
- Unibertsitatearen graduondoko tituluak. Prezioak. Erabaki-proposamena, behar bada.

1996ko azaroaren 12a (43.)

- Entzunaldiaren tramitea, Gerentearen izendapena dela eta.
- Gizarte Kontseiluaren ekainaren 30eko eta irailaren 30eko finantza-orriak.

- Aldaketak aurrekontuan. Bidezkoa bada, onetsi.
- UPV/EHUaren irailaren 30eko Aurrekontua burutzea.
- Zenbait ondasun higikor enkante publikoaren bidez besterengangatzea. Bidezkoa bada, onetsi.
- 96-97 ikasturterako ikasketetarako laguntza bereziak, lankidetzak-bekak deritzenak, sailen artean banatzea.
- Kontseiluburuaren informazioa.

1996ko abenduaren 18a (44.)

- Aldaketak aurrekontuan. Bidezkoa bada, onetsi.
- Unibertsitate institutuak. Bidezkoa bada, onetsi.
- Akademi Antolakuntzako Errektoreordearen txostena:
 - Ikasle tituludunak eta errepetizio-indizea 93/94, 94/95 eta 95/96 ikasturteetan.
 - Matrikulazioaren bilakaera 96/97 ikasturtean.
 - Ikasketa-planen eraldakuntza.
- Errektorearen txostena:
 - Irakaskuntzako eskaintza eta irakasleen zama.
 - Aurrekontu-beharrizanen nondik-norakoak.

1997ko otsailaren 19a (45.)

- Gizarte Kontseiluaren 96.12.31ko finantza-orriak.
- Gizarte Kontseiluaren 1997ko Aurrekontua.
- Zenbait altzari DYA elkarteari dohain lagatzea. Bidezkoa bada, onetsi.
- Unibertsitatearen eta Elizbarrutiaren Lanbide heziketako Obraren arteko trukaketa-hitzarmena. Bidezkoa bada, onetsi.
- Higiezina dohain lagatzea. Bidezkoa bada, onetsi.
- Garellanoko harmaila zaharraren ondoko lur-zerrenda espaloi gisa urbanizatzeko asmoarekin aldi baterako atzemateko hitzarmena.
- Soin Hezkuntzako Euskal Erakundea. UPV/EHUari atxikitzea.
- Kontseiluburuaren Txostena.

1997ko apirilaren 17a (46.)

- Ekonomia eta Finantza Batzordearen aldeko aurreko txostena Unibertsitatearen datorren ikasturteko aurrekontuaren proiektuari buruz.

1997ko maiatzaren 21a (47.)

- Unibertsitateen Kalitatea Ebaluatzeko Nazio Plana. Planaren nondik-norakoak UPV/EHUan. Irakaskuntzaren Plangintzarako Errektoreordearen txostena.
- Gasteizko Enpresa Zientzien Unibertsitate Eskola sortzea eta baimena ematea Enpresa Zientzietako diplomadunaren titulu ofizialaren irakaskuntzarako. Irakaskuntza eta Euskara Batzordearen erabaki-proposamena.
- Donostiako Erizaintzako Unibertsitate Eskola Unibertsitatean sartzea eta baimena ematea ikastegi horretan Erizaintzako diplomadunaren titularen irakaskuntzarako. Irakaskuntza eta Euskara Batzordearen erabaki-proposamena.

1997ko maiatzaren 30a (48.)

- Universidad del Pais Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen 1997ko Aurrekontua. Irizpena. Irakaskuntza eta Finantza Batzordeak Osoko Bilkurari bidalitako erabaki-proposamena.

1997ko uztailaren 23a (49.)

- UPV/EHUaren 1994ko fiskalizazio-txostena, Herri Kontuen Euskal Auzitegiak egin. Aurkezpena.
- Gizarte Kontseiluaren Aurrekontuaren 1996ko abenduaren 31ko likidazio-orriak eta Kontu-hartzailearen txostena. Onetsi.
- Iruzkina batzuk Gizarte Kontseiluaren 1997ko martxoaren 31ko finantza-orriaz.
- Gizarte Kontseiluaren 1998rako Beharrianen Memoria. Onetsi.
- UPV/EHUaren, “Mondragon Unibertsitatea” S. Coop.-aren eta Mondragon Corporación Corporativa MCC.aren arteko akordioaren proposamena. Ekonomia eta Finantza Batzordeak Osoko Bilkurari bidalitako erabaki-proposamena.
- Zenbait altzari DYA elkarteari dohain lagatzea. Ekonomia eta Finantza Batzordeak Osoko Bilkurari bidalitako erabaki-proposamena.
- Unibertsitatearen eta Elizbarrutiaren Lanbide heziketako Obraren arteko trukaketa-hitzarmena. Ekonomia eta Finantza Batzordeak Osoko Bilkurari bidalitako erabaki-proposamena.

- Garellanoko harmaila zaharraren ondoko lur-zerrenda espaloi gisa urbanizatzeko asmoarekin aldi baterako atzemateko hitzarmena. Ekonomia eta Finantza Batzordeak Osoko Bilkurari bidalitako erabaki-proposamena.
- Unibertsitateari atxikitako Bilboko Begoñako Andra Mari Irakasle Eskolaren irakaskuntza-eremua zabaltzea. Irakaskuntza eta Euskara Batzordeak Osoko Bilkurari bidalitako erabaki-proposamena.
- Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak 1997-98 ikasturterako deitutako 3 lankidetzak sailen artean banatzeko proposamena. Irakaskuntza eta Euskara Batzordeak Osoko Bilkurari bidalitako erabaki-proposamena.

1997ko azaroaren 3a (50.)

- UPV/EHUaren 1994ko fiskalizazio-txostena. Aurkezpena.
- UPV/EHUaren 1995eko Txosten Ekonomikoa. Aurkezpena.
- Aldaketak aurrekontuan. Bidezkoa bada, onetsi.
- Benta Berri orubea Gipuzkoako Foru Aldundiak UPV/EHUari dohain lagatzea.
- Ingeniaritza Hidraulikoa ura banatzeko sistemei aplikaturik” ikastaro osagarriaren prezioak.
- Matrikula ordaindu beharretik aske uzteko eskaera. Irakaskuntza eta Euskara Batzordeak Osoko Bilkurari bidalitako erabaki-proposamena.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila 1997-98 ikasturterako deitutako lankidetzak sailen artean banatzeko proposamena. Irakaskuntza eta Euskara Batzordeak Osoko Bilkurari bidalitako proposamena.
- Gizarte Kontseiluaren akta eta erabakien araubide juridikoari buruzko txostena.
- Gizarte Kontseiluaren 97.6. 30eko finantza-orriak.

1997ko abenduaren 18a (51.)

- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren agerraldia: Unibertsitatearen antolakuntza.
- Ikerketako Errektoreordearen txostena: Ikerketa-jarduerak 1996an UPV/EHUan.
- UPV/EHUaren 1998ko Beharrianen Memoria. Ekonomia eta Finantza Batzordeak Osoko Bilkurari bidalitako erabaki-proposamena.
- Aldaketak aurrekontuan. Ekonomia eta Finantza Batzordeak Osoko Bilkurari bidali dion erabaki-proposamena.

- Unibertsitate institutuak: Musikoterapia. Antzinateko Zientziak. Irakaskuntza eta Euskara Batzordea Osoko Bilkurari bidalitako Erabaki-proposamena.
- Gizarte Kontseiluaren 97.9.30eko finantza-orriak.

Osoko Bilkuraren erabakiak



Hartutako erabakiak

1994ko maiatzaren 31 (24.)

- UPV/EHUaren Gizarte Kontseiluaren 1994ko Aurrekontua. Sarrera eta gastuen orria: 74.230.000 pezeta.
- UPV/EHUaren 1994ko Aurrekontua. Sarrera eta gastuen aurreikuspena: 25.448.090.000 pezeta.
- Universidad del Pais Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Servicio Vasco de Salud/Osakidetzaeren arteko hitzarmena, Farmazia Fakultateko ikasleek 1993-1994 ikasturtean praktikak egin ditzaten.
- Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak 1994-95 ikasturterako deitu dituen 10 lankidetzak Unibertsitateko sailen artean banatzea.
- Ondoko tituluen ikasketa-planak ezartzea/eraldatzea:
 - Gizarte Laneko Diplomatura (Gasteizko ikastegi atxikia),
 - Gizarte Laneko Diplomatura (Donostiako ikastegi atxikia),
 - Soin Hezkuntzan espezializatutako irakaslea (Gasteiz),
 - Musikaren Hezkuntzan espezializatutako irakaslea (Bilbo),
 - Haur Hezkuntzan espezializatutako irakaslea (Gasteiz),
 - Haur Hezkuntzan espezializatutako irakaslea (Donostia),
 - Haur Hezkuntzan espezializatutako irakaslea (Bilbo),
 - Haur Hezkuntzan espezializatutako irakaslea (Gasteiz),
 - Lehen Hezkuntza espezializatutako irakaslea (Bilbo),
 - Lehen Hezkuntza espezializatutako irakaslea (Donostia),
 - Atzerriko Hizkuntzan espezializatutako irakaslea (Donostia) eta
 - Atzerriko Hizkuntzan espezializatutako irakaslea (Bilbo).

1994ko uztailaren 8a (25.)

- Gizarte Kontseiluaren 1993ko aurrekontu-ekitaldiaren likidazioa.
- 1993ko abenduaren 31ko aurrekontu-gerakinak 1994ko ekitaldian sartzea.
- Eibarko Industri Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola Universidad del Pais Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean integratzea.
- Gasteizko Gizarte Laneko Eskola sortzea.
- Bizkaiko Campusean Gizarte Harremanen Eskola sortzea.

1994ko uztailaren 26a (26.)

- Filosofiako Lizentziaduna eta Pedagogiako Lizentziaduna tituluen ikaske-ta-planak aldatzea.
- Biokimikako Lizentziadunaren titulua ezartzea.
- Ondoko espezialitate eta eskola hauetako irakasle titulua lortzeko irakaskuntza ezartzea/eraldatzea:
 - Lehen Hezkuntzako Espezialitatea (Begoñako Andra Mari O.H.O.ko Irakasleen Eskola),
 - Haur Hezkuntzako Espezialitatea (Begoñako Andra Mari O.H.O.ko Irakasleen Eskola),
 - Atzerriko Hizkuntzako Espezialitatea (Begoñako Andra Mari O.H.O.ko Irakasleen Eskola),
 - Atzerriko Hizkuntzako Espezialitatea (Eskoriatzako O.H.O.ko Irakasleen Eskola),
 - Haur Hezkuntzako Espezialitatea (Eskoriatzako O.H.O.ko Irakasleen Eskola).
- Gipuzkoako Campusean Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza lizentziaturaren 4. maila ezartzea.

1994ko urriaren 28a (28.)

- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak 1994-1995 ikasturterako deitutako lankidetzak-bekak Unibertsitateko sailen artean banatzea.

1994ko abenduaren 22a (29.)

- Gizarte Kontseiluak ez du lege-estaldurarik dedikazio osoko irakasleei ordainsari osagarria emateko proposamena ebazteko eta ez du erabakirik hartu horretaz.

- Irakasleen urte sabatikoaren araubidea.
- Gastu-programen arteko transferentziak.
- Datorren ikasturtean 1995/96 ikasturtean ezarri beharreko ikasketa-plana ezartzea.

1995eko otsailaren 20a (30.)

- Unibertsitatea-Enpresa Fundazioa sortzea.
- Euskal Herriko Unibertsitatearen Liburu Zuria egitea.
- UPV/EHUaren finantzaketa eta langileen gastuen I. kapitulua argitzea.

1995eko maiatzaren 30a (31.)

- Ikasketa-planen aldeko txostena:
 - Kazetaritzako Lizentziaduna
 - Publizitate eta Harreman Publikoetako Lizentziaduna
 - Soziologiako Lizentziaduna
 - Zientzia Politiko eta Administrazio Zientzietako Lizentziaduna
 - Elektrizitateko Ingeniari Teknikoa (Bilbo)
 - Industri Kimikako Ingeniari Teknikoa (Bilbo)
 - Mekanikako Ingeniari Teknikoa (Bilbo)
 - Industri Elektronikako Ingeniari Teknikoa (Bilbo)
 - Mineralurgia eta Metalurgiako Ingeniari Teknikoa (Barakaldo)
 - Baliabide Energetiko, Erregai eta Lehergaietako Ingeniari Teknikoa (Barakaldo)
 - Meatze-ustiapeneko Ingeniari Teknikoa (Barakaldo)
 - Arte Ederretako Lizentziaduna
 - Industri Elektronikako Ingeniari Teknikoa (Eibar)
 - Mekanikako Ingeniari Teknikoa (Eibar)
 - Industri Kimikako Ingeniari Teknikoa (Donostia)
 - Industri Elektronikako Ingeniari Teknikoa (Donostia)
 - Mekanikako Ingeniari Teknikoa (Donostia)
 - Elektrizitateko Ingeniari Teknikoa (Donostia)
 - Industri Elektronikako Ingeniari Teknikoa (Gasteiz)
 - Elektrizitateko Ingeniari Teknikoa (Gasteiz)
 - Industri Kimikako Ingeniari Teknikoa (Gasteiz)
 - Mekanikako Ingeniari Teknikoa (Gasteiz)
 - Matematikako Lizentziaduna
 - Telekomunikazioetako Ingeniaria

- Gizarte Kontseiluaren 1994ko abenduaren 31ko finantza-orriak.
- Aldaketak aurrekontuan.
- UPV/EHUaren azpiegiturretan inbertsioak egiteko urte anitzeko plana. Epe laburreko aurreikuspenei buruzko azterlana kontratatzeko oinarri teknikoen plegua.
- Euskara Institutua sortzea.

1995eko ekainaren 8a (32.)

- Herri Kontuen Euskal Auzitegia/Herriko Kontuen Euskal Epaitegiaren gomendioei jarraituz eta ezarritako helburuekin eta egutegiarekin bat etorritik Eusko Jaurlaritzak UPV/EHUarentzat ezarritako diru-kopuruak aparteko kasuetan berrikusteko modua ezarri duen hitzarmena.
- José M^a Aldaia jaunaren bahiketari buruzko erakunde-adierazpena.

1995eko ekainaren 28a (33.)

- Biologiako ikasketa-planaren homologazioa.
- Gizarte Harremanen ikasketa-planaren homologazioa.
- Bilboko Begoñako Andra Mari eta Donostiako Eskoriatza ikastegi atxikiak eskatu dituzten titulazioetarako baimena.
- Meatzaritzako Zundaketa eta Prospekzioetako Ingeniaritza Teknikoa ezartzearen aurkako txostena.
- Artearen Historiaren ikasketa-plana ezartzearen aurkako txostena.
- Alemanieraren Filologiaren ikasketa-plana ezartzearen aurkako txostena.
- Filologia Hispanikoaren ikasketa-plana Filologia Erromanikoa ordeztzeko asmoarekin ezartzearen aldeko txostena.
- Ikusentzunezko Komunikazioaren ikasketa-plana ezartzearen aldeko txostena.
- Donostiako Filologia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean eta Bilboko Irakasle Eskolan Gizarte Hezkuntzako ikasketa-plana ezartzearen aldeko txostena.
- Antropologia Sozial eta Kulturalaren ikasketa-plana ezartzearen aldeko txostena.
- Donostiako Zuzenbide Fakultatearen irakasgune ordezkatuaren bidez Bizkaian Zuzenbideko ikasketa-plana ezartzearen aldeko txostena.
- Hiru lankidetzak sailen artean banatzea.

- Unibertsitatean titular oso gisa sartutako doktore ez beste irakasle osoen ordainsariak 27. mailako ordainsariekin berdinestea (unibertsitate eskolako katedradunak).

Gizarte Kontseiluak ez du lege-estaldurarik proposamen hori ebazteko.

1995eko uztailaren 27a (34.)

- Gizarte Kontseiluaren 1995eko Aurrekontua. Sarrera eta gastuen orria: 75.000.000 pezeta.
- UPV/EHUaren 1995eko Aurrekontua. Sarrera eta gastuen aurreikuspena: 29.065.707.000 pezeta.

1995eko uztailaren 27a (35.)

- CUAren instalazioetan dauden aurrefabrikatutako sei pabiloi besterengantzea, EAEaren Administrazioari IVEF/SHEEren egoitza izateko lagatutakoak.
- UPV/EHUak eta Bilboko Udalak finkak trukatzea.
- UPV/EHUak eta Donostiako Udalak finkak trukatzea.
- Kulturako zenbait gauzaki Bilboko Gotzaitegiari dohain lagatzea.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak 1995-96 ikasturterako deitutako lankidetzak Unibertsitateko sailen artean banatzea.

1995eko azaroaren 30a (36.)

- Aldaketak aurrekontuan.

1995eko abenduaren 21a (38.)

- Aldaketak aurrekontuan.
- Gizarte Kontseiluaren 1996ko Aurrekontua. Sarrera eta gastuen orria: 75.000.000 pezeta.
- Donostiako Erizaintzako Unibertsitate Eskola UPV/EHUan sartzea.

1996ko martxoaren 4a (39.)

- UPV/EHUaren 1994ko Txosten Ekonomikoa.
- UPV/EHUaren plantilaren egoerari buruzko analisia.
- Unibertsitate institutuak.

- UPV/EHUaren Donostiako Campuseko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean Psikopedagogiako titulua ezartzea.
- Jakintza-arloen katalogoa eguneratzea. Unibertsitateen Kontseiluaren kontsulta.

1996ko apirilaren 15a (40.)

- UPV/EHUaren 1996ko para. Ekonomia eta Finantza Batzordearen irizpenna. Sarrera eta gastuen aurreikuspena: 30.765.880.000 pezeta.

1996ko ekainaren 7a (41.)

- UPV/EHUaren 1995eko Txosten Ekonomikoa.
- Gizarte Kontseiluaren 1997rako Beharrianen Memoria.
- Aldaketak aurrekontuan.

1996ko uztailaren 19a (42.)

- Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatean Jardularitza eta Finantza Zientzietako lizentziatura ezartzea.
- Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkuraren 1996ko martxoaren 4ko erabakian unibertsitate institutuez ezarritako epea bi hilabete luzatzea.
- Unibertsitatearen graduondoko tituluak.
- UPV/EHUaren 1997rako Beharrianen Memoria.

1996ko azaroaren 12a (43.)

- UPV/EHUaren Gerentea izendatzea.
- Aldaketak aurrekontuan.
- Zenbait ondasun higikor enkante publikoaren bidez besterengatzea.
- 96-97 ikasturterako lankidetza-bekak sailen artean banatzea.

1996ko abenduaren 18a (44.)

- Aldaketak aurrekontuan.
- Ondokoak sortzea: Kooperatiba Zuzenbidearen eta Gizarte Ekonomiaren Unibertsitate Institutua GEZKI, Euskal Herriko Zuzenbide Historikoaren Unibertsitate Institutua, Material Polimerikoen Unibertsitate Institutua POLYMAT, Teknologia Mikroelektronikoaren Unibertsitate Institutua eta Gizarte Historiari buruzko Goi Ikasketetarako Valentin de Foronda Institutua (mistoa).

1997ko otsailaren 19a (45.)

- Gizarte Kontseiluaren Aurrekontua. Sarrera eta gastuen orria: 76.000.000 pezeta.
- Soin Hezkuntzako Euskal Erakundea. UPV/EHUari atxikitzea.
- Logika, Kognizio, Lengoaia eta Informazioaren Unibertsitate Institutua (ILCLI) sortzea.
- Munduaren Garapenari eta Ekonomiari buruzko Ikasketen Institutu Atxikia (HEGOA) sortzea.

1997ko maiatzaren 21a (47.)

- Donostiako Erizaintzako Unibertsitate Eskola UPV/EHUan Unibertsitateari atxikitako ikastegi gisa sartzearen aldeko txostena.
- Arabako Campusean enpresa zientzien titulazioa ezartzearen aldeko txostena.

1997ko maiatzaren 30a (48.)

- UPV/EHUaren 1997ko Aurrekontua. Sarrera eta gastuen aurreikuspena: 31.948.100.000 pezeta.

1997ko uztailaren 23a (49.)

- Gizarte Kontseiluaren Aurrekontuaren 1996ko abenduaren 31ko likidazioa eta Kontu-hartzailetzaren txostena.
- Gizarte Kontseiluaren 1998ko Beharrianen Memoria.
- UPV/EHUaren eta Mondragon Unibertsitatea S. Coop. eta Mondragon Corporación Cooperativa MCCren artean prezio akademikoak eskualdatzea.
- DYA elkarteari 80 aulki lagatzea.
- Unibertsitateak eta Elizbarrutiaren Lanbide heziketako Obrak lurrak trukatzeko.
- Garellanoko harmaila zaharraren ondoko lur-zerrenda espaloi gisa urbanizatzeko asmoarekin aldi baterako atzematea.
- Unibertsitateari atxikitako Bilboko Begoñako Andra Mari Irakasle Eskolaren irakaskuntza-eremua zabaltzea.
- Hezkuntza eta Kultura Ministerioak UPV/EHUrako deitutako 3 lankidetzak sailen artean banatzea.

1997ko azaroaren 3a (50.)

- Aldaketak aurrekontuan.
- Benta Berri orubea Gipuzkoako Foru Aldundiak UPV/EHUari dohain lagatzea.
- “Ingeniaritza Hidraulikoa ura banatzeko sistemei aplikaturik” ikastaro osagarriaren prezioak.
- Matrikula ordaindu beharretik aske uzteko eskaera.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila 97-98 ikasturterako deitutako lankidetzak sailen artean banatzea.
- Gizarte Kontseiluaren akta eta erabakien araubide juridikoa.

1997ko abenduaren 18a (51.)

- UPV/EHUaren 1998rako Beharrianen Memoria.
- Aldaketak aurrekontuan.

**Gizarte Kontseiluko Buruaren
agerpenik garrantzitsuenak**



Sabino Arana Fundazioak antolatutako Mintegia

1995eko irailean

Abertzaletasuna eta Unibertsitatea

Mintegi hau antolatu dutenek galdetu dute ea abertzaletasuna ezin sar daitekeen Euskal Unibertsitatean. Nire solasaldi honetan gogoeta batzuk azalduko ditut galdera horren haritik.

Lehenbizi, galdera nola egin den ikusita, badirudi iradoki edo nolabait baieztatu dela abertzaletasuna, legebidezkoa izateaz gainera, Unibertsitatean sartu behar dela.

Ene ustez Unibertsitatearen barruan bereiztu egin behar dira alde batetik erakundea eta beste batetik gizarte-estamendua, hots, herritar batzuk –irakasleak– adimenaren eremuan ari direnak eta gizartean eragin erabakigarria dutenak eta izan dezaketenak.

Erakundea den aldetik, gogoan izan behar genuke Unibertsitatearen egin-kizunik behinenak jakintza zabaltzea eta sortzea direla. Eta jakintza zabaltzeko, lehenbizi definitu egin behar da, itxuratu, egituratu, zertan den finkatu. Jakintza zertan den finkatzeko ahala oso tentagarria izan da betidanik era guztietako botereentzat, bai botere erlijiosoarentzat, bai politikoarentzat, baia ekonomikoarentzat, denek ere ahaleginak egin baitituzte Unibertsitatea manipulatzeko, ideologia ofiziala (erlijiosoa, politikoa edo ekonomikoa) jakintzaren iturburua, gidaria eta muga izateko asmoarekin.

Halako Unibertsitatea, menperatua eta ideologizatua, denok nahi genukeen eskolaren antitesia da, gure ustez hartan askatasun intelektuala, kritikotasuna, askotarikotasuna, tolerantzia eta dinamismoa izan behar bailirateke nagusi.

Eta hain zuzen horrexegatik da beharrezkoa Unibertsitatea autonomia izatea botere eta ideologia ororen aurrean.

Euskal Unibertsitate Publikoak, beraz, autonomoa izan behar du. Baina Euskal Unibertsitatea ere bada, euskaldunok finantziatutakoa, eta horrenbestez, euskalduna den heinean sortu duen gizartearen beharrianak ase behar ditu, bai lan arlokoak, bai kulturari dagozkionak. Horregatik bada, Euskal Unibertsitateak, Herriak behar dituen ingeniari, abokatu, ekonomilari, psikologo etab. berriak hezteaz gainera, modu zientifikoan azaldu behar du delinkuentzia politikoaren fenomenoak, edo gure ekonomia, industriagabetzen ari dena, biziberritzeko aukerak aztertu behar ditu; Euskal Herriaren inguruko ikerketa filologiko eta antropologikoen aintzidari izan behar du; errotik landu behar ditu denoi dagozkigun gai batzuk: estaturik gabeko erkidego politikoetan sortutako abertzaletasun-mugimenduen etorkizuna, edo Euskadiren bakerako bidea.

Laburbilduz, botere politikoak –herritarren borondatearen ordezkaria den aldetik– hori dena lortuko dela bermatu behar du. Eta ezein erakunde publiko, alderdi politiko (abertzale zein bestelako), plataforma ideologiko (erlijioso, sindikal edo korporatibo) ez da erori behar Unibertsitatearen jakintza sorkuntza eta zabalkuntza kontrolatzeko tentazioan.

Alabaina, unibertsitateko erkidego esaten zaiona (irakasleak, katedradunak, ikertzaileak, ikasleak) gizartearen atala da. Beste alde batetik, alderdi politiko guztiek lortu nahi dute herritarrek pentsa dezatela gobernatzeko aukerarik hoberena euren dela, hots, euren eskaintzen dituztela elkarbizitzarako formularik zuzenenak, euren interpretatzen dutela zintzoen denon igurikizunak eta euren antzematen diela zorrotzen gizarteko prozesuen nondik-norakoei.

Zeinahi ideologia politikorentzat, unibertsitatearen arloa oso erakargarria da, eta arrazoiak asko dira: lehenbizi, unibertsitateko kide asko gizartearen buruzagi dira ustez, badute iritzia sortzeko gaitasuna, eta, hitz gutxitan esateko, ideologia transmititzeko eragile onak dira; bigarrenik, unibertsitatara heltzen diren ikasleen tasa egunean baino egunean handiagoa da: hain zuzen ere, hiru gaztetatik bat unibertsitate ikasle bihurtzen da.

Beraz, abertzaleek eta alderdi abertzaleek (eta gainerako ismo eta alderdiek ere bai) unibertsitateaz duten asmoa, hots, hartan eragin ideologikoa izatea guztiz legebidezkoa da; eta gainera ona da gizarterako, baldin eta onartzen badugu komunikazio politikoaren monopolioa (edo are behar baino esku handiagoa) emateak herritarren gogoak moteltzea eta populismoaren eta totalitarismoaren aurka borrokatzeko ahultzea dakartzala. Ildo honetatik, erakunde gisa Unibertsitatea despolitizaturik egon beharra aldarrikatu behar den bezala, gizarteko atala den aldetik Unibertsitatea politizaturik egotea aldarrikatu behar da.

Horrenbestez, euskal abertzaletasunaren arazoa honetan datza: nola ebatzi sinesgarriro unibertsitate erkidegoan nolako mezuak onar daitezkeen eta nolakoak gaitzetsi behar diren, nolako ezaugarriak izan behar dituen “produktu politikoak” Herriko intelektualentzat erakargarria izateko.

Gogora etorri zaidan lehenbiziko hausnarketa da abertzaletasunak ez duela aurkeztu behar bere burua “weltanschauung” gisa, hau da, nonahi eta noiz-nahi balio duen mundu politikoaren interpretazio gisa; aitzitik, askoren arteko aukera dela adierazi behar luke, talde proiektua dela, “helburua”, antolakuntza-ren teorikoek terminoari ematen dioten zentzuari loturik, kontzeptuala zein operatiboa, eta beraz gizakion lana, gizaki batzuek garai jakin batean sortutako emaitza intelektual eta politikoa.

Beste alde batetik, abertzaletasunak azaldu behar du zer ez den. Esaterako, aukera laikoa da (ez dago jokoan inolako eskubide sakraturik, ez du ezer ez integrismotik ez fundamentalismotik). Beraren abiaburuan ez du ezein funts historiko, ez dago euskal historia osoan ardatz den errealitate aldaezinik, ez dago antzinako garaietan ezkutatutako egaririk abertzaletasunak agertu behar duenik. Hitz batez, aukera politiko moderno eta etorkizunerakoa denez, abertzaletasunak ez du dogmarik, ez filosofikorik ez politikorik; aitzitik, proposizio filosofiko eta politikoen bidez azaltzen da. Ez da dogmatikoa, demokratikoa da, askotarikotasuna eta tolerantzia errespetatzen ditu. Beraren militanteak, zaleak eta boto-emaeak baizik ez ditu ordezkatzeko. Uste du gizarteari ezarri ahal dion egia politiko bakarra hautesontzietatik etorri behar dela, eta fundamentalismoaren, dogmatismoaren, fanatismoaren eta intolerantziaren aurka dago.

Era horretako abertzaletasunak, unibertsitatekideek hobesten dituzten balore intelektual eta moralekin konektatzeaz gainera, beste abertzaletasun batzuek kutsatutako fundamentalismo edo dogmatismoaren hondarrak ezabatzen lagun dezake. Estaturik gabeko nazioak erabat kritiko azaltzen dira aspal-dion estatuaren kontzeptuarekin, estatu-nazioen sorkuntzaren prozesu historikoekin eta “ismos” ofizial guztien egia sakratu guztiak eztabaidan jarri dituzten teoria nazionalisten postulatuarekin eurekin; horrela errealitate politikoak erlatibizatzen eta beraiei neurri historiko doian jartzen lagundu dute, eta aberri-funtsenganako atxikimendu gehiegizkoak ezabatu dituzte.

Nazioak historian zehar sortu dira, hain zuzen gizatalde bateko gehien-goak bizi den lurralde geografikoa mugatu nahiaren ondorioz, helburuak bizitza politikoa areagotzea dutela, kulturaren eta ekonomiaren aldetik, baina batez ere kulturaren arloan.

Sinesgarria izango bada, abertzaletasunak adimenaren munduari (badakit Unibertsitateaz hala mintzatzea nahikoa handigura dena) erakutsi behar dio esta-

tua krisian dagoen garai honetan nazioari garrantzia ematea zentzuzkoa gerta daitekeela, armada eta politika militarra eta ekonomikoa desestatalizatu ondoren nazioen boterea erraz batera daitekeela estatuaz gaindiko erakunde berriekin, denok era geroago eta nazioartekoago garen aldi honetan nazioaren boterea litekeen bermerik hoberena izan daitekeela herrien kultur bereiztasunak artatu eta aurreratzeko, nazioaren kontzeptuak garai berrietako toki beharrianen eta beharrian orokorren artean nahitaez behar den oreka ekar dezakeela.

Talde-sentimenduen edo talde-interesen itsaso zabalean, nazioa, estatua, askatasuna, erlijioa, arrazoa bezalako kontzeptuak gizateriaren narriadura sortu duten Kausa handiak (letra handiz) izan daitezke (halaxe izan dira historian zehar), baina baita gizakien eta herrien arteko elkarbizitza erraztuko duten ideia eragileak ere.

Pascalek uste zuen gizabanakoaren arrazoa gizakiaren azalean kokaturiko organo ezdeus eta minbera zela, eta abertzaletasun postmodernoak –zilegi bazait hala esatea–, hots, heriotza handien (Jainkoa, Estatua, Arrazoa, Nazioa) handien garaiko abertzaletasunak, letra txikiz idatzitako arrazoi politikoa aldarrikatzen du, euskarri bakartzat herritarren borondatea duen arrazoi zentzu gutxikoa. Geroago eta gutxiago dira horren bidez lortzen diren egia politikoen pobrezia epistemologikoz larritzen diren intelektualak. Baina denok uste dugu –eta esperientziak hala adierazten digu– halako egiek soilik ziurta dezaketela elkarrekin bakean bizi ahal izatea.

Gizarte kontseiluetako buruen bilera,

Madril, 1995eko azaroaren 2-3

Kalitatea Unibertsitatean

Egunon denoi. Landu asmo dugun gai honetaz zenbait ohar bidali nituen, han-hemengo hausnarketa batzuen berri emateko xedearekin. Ezer baino lehen aipatu behar dut gai honekin aparteko grina izan dudala betidanik eta bost urtean zehar, kalitatea ardatza hartuta aholkularitza estrategikoan aritu naizen epealdian, hainbat ordu eman ditudala hura aztertzen eta beraren inguruan lan praktikoa egiten.

Hala ere, goizean zehar entzun ditudan adierazpenen haritik ia erabat aldatu dut ohar horietan proposatutako dekalogo. Aurreko saioan entzun ditudan gauzetako askok kezkatu egin naute, eta, halaber, izugarri adoretu nau Aparicio irakaslearen hitzaldiak.

Labur-labur esanez, adierazi behar dut oso eszeptikoa naizela ezarri nahi den sistemari buruz, alegia, kalitatearen ebaluazioaren sistemari buruz, eta beste alde batetik neure uste osoa jartzen dut esperientzia jakin batzuetan, oso esperientzia helduetan, buruzagi fidagarria duten esperientzietan, halakoxea baita Aparicio irakaslea burutzen ari dena. Aurrekoari ñabardura bat egitearren, iruzkin azkar batzuk egingo ditut gaur goizean entzun ditugun adierazpen batzuez.

Lehenbizi, ohar oso orokorra egingo dut. Unibertsitatea duela nahikoa denbora gutxi ari da lantzen kalitatea. Enpresek, aldiz, urte asko, are hamarkadak ere, egin dituzte zeregin horretan. Espainian, azken hamarkadan ugaldutako egin dira esperientziak, ahalegin asko egin dira kalitate-sistemak ezartzeko. Azken balantzei begiratuta, porrotak arrakastak baino gehiago izan dira. Horrenbestez, Unibertsitatearen lehenbiziko hausnarketa ondokoa izan behar litzateke: ereduak esperientzia enpresena izan behar da eta hartatik ikasgaiak atera behar dira.

Goizean esan denaren aurka eginez, esan behar dut kalitatea ez dela diruarazoa. Eta horri gogotsu ekin zaionez gero, nik ere gauza bera egin nahi nuke aurka. Har ditzagun adibidez Aparicio irakasleak eraturiko ereduak bost hobekuntza-puntuak. Haietako baten muinean ikasketa-planaren kalitatea neur-tzea eta hobetzea zeuden. Bada, argi dago horretarako ez dela diru askorik behar, ezta inondik ere.

Bigarrenik, kalitatea ezin da eraiki Estatuaren Aldizkari Ofizialaren bidez, ez eta nazio plan handiak eginez ere. Izatekoan ere, bitarteko horiek erreferen-

tziak edo ortopediak izan daitezke, prozesuaren lagungarriak, baina funtsean kalitatea pertsonen lortzen dute, eten gabe jarduna hobetzeko ahaleginetan ari diren pertsonen.

Hirugarrenik, aipatu nahi nuke kalitatea ezin dela gizarte kontseilueta lortu, ez da horrela egingo. Kontseiluok ezin dugu lortu kalitatea Unibertsitatean. Kalitatea barrutik sortu behar da, ez kanpotik. Gehienez ere, kontseiluok bezeroaren ahotsarena egin dezakegu, hau da, kalitaterako eredu guztietako oinarritzko eginkizunetakoa bete behar dugu. Izan ere, erakunderen bat beharko da gizartearen beharrianak, behar diren lanbide-profilak, prestazio mailak eta halakoak zehazteko. Enpresetako kalitate-ereduan merkatuak berak finkatzen ditu horiek, ez enpresak. Guri dagokigunez, gizarteak zer eskatzen duen ez du Unibertsitateak ezarri behar, baizik eta gizartearen interesak ordezkatzeko dituen organoak.

Gainera, nabarmendu nahi nuke gerta litekeela Unibertsitatea arlo honetan egiten ari den ahalegin guztiak burokrazia hutsean desegitea, eta paperek, inprimakiek, dokumentazio-lanek, mintegiek, batzordeek eta gainerakoek sistemaren funtsa ezereztatzea. Kalitate-sistema orok bere parafernalia teknikoak dakar atzetik, baina hori baino asko gehiago da.

Ez dut atsegin, halaber, hain garrantzi handia ematea ebaluazioei, ez eta kontrolak hain maiz aipatzea ere. Nonbait “guru”ren batek esan duen bezala, kalitatea ez da kontrolatu behar, egin baizik. Egia da –eta axioma antzekoa da kalitatearen eremuan– neurketarik gabe ez dagoela aurrera egiterik. Beraz, beharrezkoak dira neurtzea eta ebaluatzea. Baina ebaluazioa lehenengo urratsa besterik ez da izan behar, eta hartatik abiatuz hobekuntzak egin behar dira. Horregatik, uste dut hobe genukeela, are filosofikoki ere, ebaluazio egitarauaz barik hobekuntza egitarauaz hitz egitea. Hala bada, eta aurreko hitzaldietan entzun dudaren arabera, hori interesgarria gerta liteke are metodologiaren aldetik ere, zenbait inpassa gainditzeko modua emango lukeelako, esaterako neurtu beharreko aldagarrien definizioa, hori gai oso konplexua baita teknikoki ebaluazio-prozesu guztietan.

Badago bereziki aipatu beharreko beste gai bat ere. Nekez ezarri ahal izango da kalitate-sistema bat, baldin eta haren aplikazioak zenbait ondorio ikusgarri ekartzen ez baditu, bai positiboak (sariak), bai negatiboak (zigorrak). Baldin eta ez badago lehiakortasuna, diferentzia, bereizkuntza edo bikaintasuna errazten duen faktore objektiborik, ez badago erkapenik merkatuko enpresek adierazten dutenarekin, dela aldeko zehapena jasotzeko, ezta jokaerak aldarazteko edo are kanporatzeko ere, areriotasun-bitartekoak aktibatzen ez badira, ez dut sinetsiko ezarritako sisteman.

Kalitatea ez da hasi behar sekula erakundearen kanpotik eraikitzen, baik zik eta barrutik, erakundean egoera jasanezina delako uste orokorra dagoenean, erakunde barruko gehienek giroa egonezina denean uste dutenean, hau da, erakundekide gehienek ibilbide nolabait onbideratu beharra adosten dutenean. Unibertsitatean, sailetan, fakultateetan eta gainerakoetan horren kontzientziarik ez badago, jai dugu: ez dugu ezer onik lortuko kalitate-sistemen bidez.

Amaitzeko, adierazi behar dut buruzagitza sendorik ezean zeinahi kalitate-proiektuk kale egingo duela ezinbestean. Unibertsitatean eragozpen objektibo argiak daude buzuzagitza nabarmenak sor daitezen, batetik agintari akademikoek ez dutelako irauten euren karguetan prozesu oso luzeak gidatzeko, eta bestetik gure agintari akademikoak transakzio, oreka eta talde-interesen amarauna handian murgiltzen direlako eta horrek benetan buzuzagi gisa jarduteko aginte morala kentzen dielako.

Hitz gutxitan esanez, aipatu berri ditudan arrazoi horiengatik aski eszeptikoa naiz gai honetaz. Alabaina, nahi nuke eszeptizismo hori alderdi positibotik ulertuko bazenute, hau da, nahi nuke uler dezazuen uste dudala kalitatearen arloko ezertan hasi baino lehen aurreneurri ugari abiarazi behar direla. Izan ere, funtsean erabat sinetsita nago kalitatea abentura dela eta, ez badago inor kalitate-sistemen beharraz erabat sinetsita eta haren mistikan sartuta, horren inguruko ezein proiektuk ere ez duela emaitza onik emango.

Kontseiluburuaren agerpena Eusko Legebiltzarraren Hezkuntza eta Kultura Batzordean,

Vitoria-Gasteiz, 1997ko ekainaren 25ean

Duela hiru bat urte, Eusko Legebiltzarrak Gizarte Kontseiluko buru izendatu ninduen, eta uste nahikoa denbora igaro dela harrezkero eta badela garaia hona azaltzeko, batez ere kontuan izanik laster Unibertsitatearen Antolamenduari buruzko Legea eztabaidatu dela hemen. Bada, adierazi behar dizuet neure borondatez azaldu naizela zuen aurrean, neure borondatez eta gizabanako legez. Beraz, ez naiz etorri Gizarte Kontseiluaren bozeramaile gisa. Ez dut inolako eskumenik erakunde horren jarrera ordezkatzeko; aitzitik, euskal gizarteko kide izanik Legebiltzar honen borondatez Unibertsitatearen eta gizartearen arteko loturagunea izan behar duen erakundearen buru naizela naiz hona neure iritzia ematera.

Ezeren ordezkaria banaiz, gizartearen barruan “merkataritza” esaten zaionaren ordezkaria naiz, nahiz eta hitz horrek beharbada konnotazio ezegokiak izan; nolanahi ere, baliagarria gerta daiteke hala hitz egitea, unibertsitate mundutik bereiztearren. Eta merkataritzaren eremuaren barruan, Peter Drake-
rrek sorturiko terminologiari atxikiz, “erakundeen gizarte” deritzonaren ordezkaria naiz, eta batez ere enpresa erakundeeana. Bada, enpresek asko dute ekartzeko Unibertsitateari dagokionez, finantzen aldetik ezezik baita ideien eta kontzeptuen aldetik ere. Unibertsitatea bere bidea kalitate osoa esaten zaion horretarantz zuzentzen ari den aldi honetan, nire ustez arlo horretan “erakundeen gizarteak” egin duena oso interesgarria izan daiteke Unibertsitatearentzat, eta gizartearen ekarpen ona izan daiteke.

Unibertsitateak dituen arazoei gagozkiela, nire irudiz aipamen berezia merezi du unibertsitate-proiekturik ezak. Ez herri administrazioek, ez Unibertsitateak beraz, ez Gizarte Kontseiluak, oraindik ezin gertutu, diseinatu, abiarazi eta ezarri izan dugu unibertsitate-proiektua. Eta proiektuez ari garela, eta gogotan hartuta proiektuak, estrategikoak batik bat, enpresa erakundeetan gauzatzen direla gehien bat, ondoko hausnarketak azaldu nahi nituzke.

Lehenbizi, aurkezpen gisara uste dut ezinbestekoa dudala joan den larunbatean zuetako batzuek telebistako eztabaida saio batean Unibertsitatez azaldu zenituzten gai batzuez dudan jarrera pertsonalari buruzko fitxa agertzea. Eztabaida hari esker hobeto jakin nuen zer uste duzue gai honetaz, eta horregatik, maila berean egon gaitezen, neure jarrera azaldu nahi nizueke. Lehenbizi, jakizue Unibertsitate Publikoaren alde nagoela eta gainera uste dudala euskal adminis-

trazio guztiek apustu irmoa egin behar dutela Unibertsitatea Publikoari laguntzak eta bitartekoak emateko.

Uste dut Unibertsitateak autonomia izan behar duela; izan ere autonomotasuna gure unibertsitatearen ezinbesteko ezaugarri bereizgarria da aurreko aldiko sistema burokratikoaren aldean eta o merkatu askeko zeinahi ereduren aldean. Unibertsitatearen autonomotasuna atzera ezineko garaipena izan da. Nolanahi ere, autonomia erakundearen ezaugarria izan behar da, ez korporazioarena, hots, Unibertsitatearen ezaugarria behar du, ez akademiarena.

Aipatu eztabaida saioan lurralde-ereduaz hitz egiten ere entzun zintuztedan. Gai honetaz uste dut ez dugula arlo metafisikoa aritu behar, inondik ere ez. Gure Autonomia Erkidegoan Unibertsitate bat egon daiteke, edo bi jakintza-arlo bereizita, baita hiru edo lau ere... Konponbidea arazoari buruzko analisi xehekatuetatik etorriko da. Egungo unibertsitatea masa-erakundea da, eta jakin ez diodala asmo peioratiboarekin, guztiz bestela baizik. Unibertsitate honek laguntza handia eman dio herriari, eta egun ere halaxe ari da, laguntzen, berari esker jende asko, euskal herritar ugari, alegia, goi mailako jakintzara iritsi baita.

Unibertsitatea masa-erakundea izatea ez doa kalitatearen aurka. Lortu behar dugu gure masa-unibertsitate hau geroago eta kalitate handiagokoa izan dadila, nahiz eta Unibertsitatearen barruan goi mailako ikastegiak egon. Alabaina, Unibertsitateak ezin du lortu bere ikastegi, sail eta jakintza-arlo guztiak goi mailako. Nire ustez, eta hau ahots gora diot, hemen dugun Unibertsitatea hobetu behar dugula, daudenetatik hoberena baita, eta uste dut hobetu behar ditugula bai irakaskuntza bai ikerkuntza. Hala ere, aipatu beharra dago irakaskuntza eta ikerkuntzaren etekinak oso desberdinak direla Unibertsitateko ikastegi batetik bestera, eta gainera ikastegi batzuek puntuak galdu dituzte lehen izandako posizioaren aldean. Arlo batzuetan ez gabiltza jakintza objektiboaren puntan, eta Unibertsitateak nahitaez jo behar du horretara. Iruditzen zait Unibertsitate honetan ez dela behar hainbat gauzatzen bereizkuntza. Gehiegi baliatu dugu "kafea denontzat" politika. Unibertsitatearen erakarguneak ezagutza, adimena eta jakituria badira, bereizkuntzako politikak gauzatu behar dira eginkizun intelektual horiek sustatzeko, horixe izan behar baita zeinahi unibertsitatearen egin-behar nagusia. Une hauetan, eta beharbada baita iraganean ere, nahikoa urrundurik daude Unibertsitatea eta gizartea. Ez zait gustatzen bilgune honetan azaldu eta erabili den gizarte-abandonoaren kontzeptua, ez baita gaur egun gertatzen ari dena ongien azaltzen duena. Nire ustez hobe genuke hitz egingo bagenu unibertsitate munduaren eta politikoen munduaren, gizarte agenteen munduaren eta enpresa munduaren arteko desadostasunaz; zuek, esaterako, ez diozue behar adina kasu egiten Unibertsitateari. Elkarren berri ez dakigula bizi gara, eta hori konpontzeko topaketarako bitartekoak ezarri behar ditugu, denok

proiektu bera izan dezagun eta hura gauzatzeko asmoarekin lan egin dezagun. Uste dut Unibertsitatean endogamia gehiegizkoa dagoela. Gure Unibertsitatea sarritan bere baitara bilduegi egoten da, arduratuegi bere arazoekin, gogoan bere interesak baizik ez dituela.

Horri gagozkiola, paradigmaticoa da ingeniartzako titulazio berriekin gertatzen ari dena. Azken gertaera erakusgarria ondoko erabaki hau da, nire ustez erabat zentzugabea dena: datorren ikasturtean ingeniartza kimikoko hiru titulu eskaini nahi izatea hiru ikastegi desberdinetan. Dirudenez, horixe da Unibertsitate barruko tentsioak baretzeko aurkitu den konponbide bakarra. Baina tentsio horiek endogamiatik sortuak dira, Unibertsitate barrukoak, besterik ez; ez dagozkie gizartearen interesei. Uste dut Unibertsitateak finantzaketako kopuru handiagoak behar dituela, baina aldi berean gardenago jardun behar du, hau da, denok jakin behar dugu zer ari den gertatzen Unibertsitatean.

Beste ildo bati helduta, uste dut euskal herritar orok duela eskubidea goi hezkuntza jasotzeko. Gehiegi baliatu gara “*numerus clausus*”aren bide errazaz, nahiz eta gaur egun hainbat aukera teknologiko berri izan arazoa beste era batera gainditzeko, batez ere informatikaren arloan eta telekomunikazioen arloan; bi arlo hauek ez ditu behar bezainbat baliatzen Unibertsitateak. Bide horri ekinez gero, herritar gehiagok jaso ahal izango lukete goi hezkuntza. Aipatu telebista saioan esan zenuten bezala, nik ere uste dut Unibertsitatean planifikazioa falta izan dela; uste dut titulazioen mapan aldian aldiko erabakien bitartez aritu garela, erreferentzia-esparru orokorrik eduki gabe. Saio hartan aipatu zenuten, besteak beste, ikastegiak bikoiztuta daudela, eta hezkuntzak orokorra edo espezializatua izan behar ote zuen eztabaidatzen aritu zineten. Nire iritzia da jende askok ikasi nahi dituen karreretan lehenengo zikloan bada-goela ikastegiak bikoiztea, baina bigarrenean, aldiz, ez. Uste dut hezkuntzako lehenengo zikloa orokorra izan behar dela, funtsean, eta bigarren zikloan espezializaziora jo behar dela.

Halaber, elebitasunaz ere mintzatu zineten. Ni bi hizkuntzetan aritu den Unibertsitate bakarraren alde nago. Nik Unibertsitateak bere irakasleak izateko bideak sustatuko nituzke. Orobat, Unibertsitatearen ordainsari-sistema berrikusiko nuke, nire ustez bereizkuntzako politikaren mesedetan egon behar bailitza-teke, etab. Tira, horrela hitz egiten segi nezake eta zuek kezkatzen zaituzteten beste gai batzuk aipatu.

Lehen aipatu dudan gaira itzulita, nire ustez gure Unibertsitatearen ezaugarri nagusietako bat une hauetan unibertsitate-proiekturik; ildo horretatik, eta kalitate osoaren kudeaketako erabiltzen diren ikuspegiak erabiliz, gogoeta egingo dut horretaz, Unibertsitatearen onurarako izan daitekeen zerbait azaltzeko asmoarekin.

Enpresa-erakunderen batek heltzen dionean bere enpresa-proiektua, bere proiektu estrategikoa definitzeko arazoari, maiz bost abiaburu definitzen ditu: lehenbizi, zein merkaturi zerbitzatu nahi dion erabaki behar du, hau da, zein izango den bezeroa; bigarrenik, bere eginkizuna definitzen saiatzen da, zein den erakunde legez existitzeko arrazoia; hirugarrenik, baterako baloreak zein diren ezartzen saiatzen da, hots, erabaki zailak hartu behar direnean kontuan izan beharreko erreferentzia axiologikoak, beti gogoan izan behar den ardatz-eremua; laugarrenik, bere ikuspegia finkatu behar du, hau da, zein den erdietsi nahi duen errealitatea; eta azkenik, lortu nahi duen xedea lortzeko jarraitu beharreko ildo estrategikoak ezarri behar ditu.

Jarraian, hitz egin dezagun bezeroaz, bidezko baderitzozue. Kalitate osoaren arloan badago aditu handi bat, ISHIKAWA japoniarra, esan duena kalitatea bezeroan hasi eta bezeroan amaitzen dela; esan genezake proiektu guztiak abiatu behar direla bezerotik eta bezeroan amaitu behar dela. Galdera hau da: norentzat da Unibertsitatea, nor zerbitzatu behar du Unibertsitateak? Nire iritziz, Unibertsitatearen bezero nagusia gizabanakoa da, hemengo eta oraingo euskal herritarra, goi mailako hezkuntza jaso nahi duena, lanean aritzeko bere burua prestatu behar duena, zenbait jakintza-arlotan zahar geratzen oso argi edukirik ezagutzaren gizartea ondo jantzi bizi nahi dutenak. Unibertsitatearen bezeroa ideologia eta botereen aurrean kritiko aritu nahi duen oro da, gizarte elebidunean aritu nahi duena, ofizialismo politiko zein erlijiosoan ez erortzeko gizarte laikoan gizabidea tolerantzia eta elkartasuna landu nahi dituenak. Unibertsitatearen zerbitzuaren zuzeneko hartzailea herritarra izan behar da, zeinahi euskal herritar, inolako bereizkeriarik gabe kari ekonomikoengatik; beraz, bezeroak ikasi nahi duten herritar guztiak dira. Unibertsitatearen bezeroak, horrenbestez, gizarteko herritar guztiak dira, gizarte osoa da haren bezeroa, euskal gizarte askotarikoa, inongo bazterkeriarik gabe. Gizarteak goi mailako hezkuntza eskatzen du, eta horixe eskatzen du, lanerako, kritiko izateko, askatasun intelektuala izateko, dogmatismo guztiak baztertzeko, elkarrekin bizitzeko tolerantziarekin eta seguru. Gizarteak ez du nahi Unibertsitatea proiektu politiko jakin baten zerbitzupean egon dadin, ez du nahi ideologia jakin baten ingurura bil dadin, ez eta nazioaren kontzeptura edo klase kontzeptura edo erlijio sineste jakin batera ere.

Bigarrenik, Unibertsitatearen eginkizuna aipatu dizuet, Espainiako pentsamenduan aspaldikoa den gaia, zeren Ginés de los Riosen hausnarketa eta idatzietatik abiatu baitzen; gero Ortega y Gassetek 1930. urtean idatzi zuen “La mision de la Universidad” lanean (zuetako askok ongi ezagutzen duzue) gauzatu zen. Ortegak esan zuen Unibertsitatek bi eginkizun izan behar dituela: bata jendea lanbide intelektualetarako heztekoa, eta bestea zientzietan ikertzea; duela gutxi, egunkari batean idatzitako artikulu batean, “Carlos III” Unibertsitateko

Errektore Peces Barba jaunak ideia hori jorratu zuen, esanez Unibertsitatearen funtsezko eginkizuna goi boterea eskualdatzea dela. Mintza gaitzen irakaskuntzaz lehenbizi. Nire ustez, nekez dugu onartzekoa gaur egun Unibertsitatearen eginkizuna irakaste hutsa dela, horretaz ezagutzak transmititzea ulertzen dugula; aitzitik, Unibertsitatearen eginkizuna irakaskuntzaz harago heltzen da; hala bada, eta esapidea zilegi bazait, esan liteke Unibertsitatean funtsa “diszenzia” dela, hau da, ikaskuntza, jakintzaren transmisioa barik jendeari etengabe eguneratzeko gaitasuna ematea. Ikuspegi horretatik, ardatza ez da izan behar irakaslea, ikaslea baizik; ez da izan ekoizpen-aparatua, enpresen hitza erabiltzearen, baizik eta bezeroa; ez da izan behar irakaskuntzaren balorazioa, gure kalitate-planetan maiz egin ohi den bezala, baizik eta ikaskuntzako prozesuen analisia eta analisi horien emaitzak, kalitate osoaren eta bezeroaren orientazioaren ikuspegitik. Egungo giroan, ezagutzak geroago eta zaharkitzenago ari direla eta ezagutzak deusezte haiek eskuratzea bezain garrantzitsua dela, geroago eta sarriago aipatzen da ikaskuntzarekin batera kontuan izan behar dela desikaskuntza ere. Ikasitakoa ez ahaztea eragozpen handia izan daiteke eten gabe gauza berriak ikasten jarraitzeko, eta beraz jakintza-transmisioa alde batera utzi eta horren ordez Unibertsitatearen eginkizuntzat ikasten irakastea jarri behar genuke.

Ikerkuntzari dagokionez, ez dago zalantzan jartzetik Unibertsitatearen eginbeharretako bat ikertzea dela. Gure Unibertsitatea jakintza zientifikoaren eta teknikoaren gorengo puntan egotea nahi dugu. Ezagutzaren garaian, gure gizarteak berebiziko apustua egin behar du Unibertsitatearen ikerketa-lanaren alde. Eta ikertu ere arlo tekniko eta teknologikoetan ezezik baita humanitateetan ere; oinarritzko ikerkuntzak ez du murrizpenik izan behar, zeren Euskal Unibertsitate Publikoak oinarritzko ikerkuntza bideratzen duen bilgune nagusia izan behar baitu, eta izan ere hala da gaur egun, bai eta ikerkuntza aplikatuarena ere, unibertsitatekideen ahalmenak, eskaintzaren bitartekoak eta gizartearen eskariak biltzen dituela. Kontseilua arrakasta handirik gabe saiatu arren, uste sendoa dut Unibertsitatea-Gizarte fundazioa litzatekeela bitartekorik egokiena ikerkuntza aplikatua aurreratzeko eta enpresen esku jartzeko gure Unibertsitatearen ikerketa-ahalmen osoa.

Hirugarrenik, proiektu baten barruan baterako baloreak aipatzen dira. Pentsatzen dut ez litzatekeela alferrikoa izango gure baloreak definitzen saiatzea, hau da, zeintzuk diren unibertsitatearen arloko politika gauzatzeko kontuan izan beharreko baloreak. Adibide gisa, enpresa erakundeetan ohiko diren balore batzuk aipatuko dizkizuet, esaterako: bezeroarentzako orientazioa; etengabeko hobekuntza; berrikuntza; balioaren gorespina eta, ondorioz, haren aurkakoa, zarrastelkeria, ezabatu nahia; zerbitzatzen den erkidegoarekin konpromisoa izatea; ezarritako joko-arauak errespetatzea; jarduteko erarik hoberenak dauden

tokian aurkitu eta ezarri nahi izatea, egun “best marking” esaten zaiona. Horiek bezalako baloreak Unibertsitateko kide guztiek eta haren inguruko agente guztiek onartuz gero, baterako lana errazagoa izango genuke.

Laugarrenik, ikuspegia aipatu dut, edo beste era batera esanda erakundeak izan nahi lukeena eta proiektua egiten duenean oraindik ez dena; ikuspegia proiektuaren muina litzateke. Denok lortu nahi genukeen Unibertsitatea da, gure ahalegin guztien xedean dagoen Unibertsitate objektiboa, oraindik eginkizun izanik ere egin daitekeen Unibertsitatea, bere burua gizartearen interesen arabera eratzen duena, irakaskuntza eta ikerkuntza gizartearen beharrianak asetzeko helburuarekin planifikatzen dituen, bere burua zentralizaturik eta campusetan, sailetan eta ikastegietan deszentralizaturik antolatzen duena, eta beti ere gizartearen onurarako; irakasleen, ekipamenduen eta kudeaketaren arloko politikak zerbitzatzen duen merkatuaren arabera finkatzen dituen. Laburbilduz, ikuspegia erakundeak lortu nahi duen guztiaren definizioa da, hau da, lortuko duela uste duen guztiaren gauzapena.

Eta azkenik estrategia ditugu. Oinarritzko sei aipatuko ditut hemen, nahiz eta berriak ezer gutxi izan.

- Lehenengo estrategia sistematikoki eta aztura gisara bezeroa entzutea da, eta hark dioena erabakiak hartzean kontuan hartzeko behar diren bitartekoak ezartzea.
- Bigarrena kalitatearen estandarrak ezartzea da, bikaintasun helburuak ezartzea eremu jakinetan, jendaurrera azaldu nahi ditugun eremuetan. Horrekin batera Unibertsitate barruan batera baliatu nahi ditugun ereduak dagozkien kudeaketa sistema desberdinak abiarazi behar ditugu, ondo eginaren kultura bultzatu, etengabeko kultura ere bai, hitz gutxitan, kalitatea sustatu, zerbitzua batera akatsik gabe emateko borondatea eta bikaintasuna bereizteko ahaleginak areagotzea.
- Hirugarren estrategia Unibertsitateko irakaskuntzako, ikerkuntzako eta kudeaketako prozesu guztiak aztertzea eta proiektu berriak diseinatzea da, kalitatearen estandarrak hobetzeko modu bakarra baita.
- Laugarren estrategia informazioaren eta telekomunikazioen teknologia berrien arlokoa da. Orain astebate irakurri dut duela berrogeita hamar urte hildako unibertsitate-irakasle bat gaur egun piztuko balitz, hil zeneke Unibertsitate bera aurkituko lukeela: ikasmahai eurak, arbela, klariona, irakasteko metodo bera... Hori unibertsitatearen arloan soilik gertatu da; bestela, har ezazue gogoan banku-langile bat, edo administrazioan ari den bat, edo legebiltzarkide bat. Ohartu zareten bezala, batetik ingurune fisikoa ez da duela berrogeita hamar urtekoa, eta gauza bera esan daite-

ke ingurune teknologikoaz ere. Alabaina, teknologia ez da heldu oraindik Unibertsitatera. Eta guk horixe lortu behar dugu, hain zuzen, Unibertsitatea teknologia ematen dituen bitarteko guztiez baliatzen hastea, ezinbestekoa delako prozesu berriak sortzeko. Unibertsitatean ahalegin handiak egin behar ditugu teknologiaren arloan.

- Bosgarren estrategia: neurtu egin behar da, ebaluatu, ikusmenezko kudeaketa areagotu; jendea zertan ari den jakin behar dugu; analisien bidez arazoan barneko muinera heldu behar dugu. Eraginkortasunarekin zuzendu behar ditugu akatsak, onuragarriak izan diren jarduketak estandar bihurtu eta iraunkortu egin behar ditugu; jardun ona aintzatetsi eta, behar bada, saritu egin behar dugu; Unibertsitatearentzat kaltegarriak diren jokaerak onbideratu edo eragotzi egin behar ditugu. Ez dago beste biderik, onera egin nahi badugu.
- Eta azkenik, eta honi arreta handia ematea nahi nuke, buruzagitza eraldatzailea bultzatu behar da. Ez dago proiektuak gauzatzerik buruzagitza sendo eta ausartik ez badago. Gure Unibertsitatean, gaur egun dugun buruzagitza –izan litekeen bakarra, seguruenik– transakzio-buruzagitza da, erabakiak erakunde barruko botere-oreka mantendu nahiz eta konpromisoak bete beharrez hartzen baititu; hori proiektu handigurak burutze-ko behar den buruzagitzaren guztiz kontrakoa da. Ildo horretatik, uste dut buruzagiari ahala eman behar zaiola, agintea baliatzeko modua eman behar zaiola; uste dut interesak orekatzen arduratzen den buruzagiaren irudi penagarria baztertu behar dela eta lortu behar dela proiektuaren aitzindaria izan dadila, nahiz eta jakin batzuen interesei kalte egingo diela.

Beraz, hasieran esan dut laster Unibertsitatearen Antolakuntzari buruzko Legea eztabaidatzen hasiko zaretela. Eta zer du zerikusirik lege horrek esan berri dudan guztiarekin? Bada, begibistakoa da lege horren xedea ez dela aipatu dudana bezalako unibertsitate-proiektua definitzea, baina, hala ere, badirudi lege horretan zenbait bitarteko ezarriko direla halako proiektua bultzatu, sustatu eta aldezteko. Ildo horretatik, nahi nuke adierazi ez genukeela kale egin behar eta Unibertsitatearen Eraldakuntzari buruzko Legearen klonikoa sortu. Ez Herriak ez Unibertsitateak ez dute horrelakorik behar. Beste arlo batzuetan Estatuan egiten diren legeak fokalizatzea ez da biderik egokiena gure Unibertsitateak behar duena lortzeko. Bihotz eman nahi nizueke lege-proiektu honi ausardiarekin hel diezaiozuen, arauen arloan landu beharreko alderdi guztiak muturreraino eramanez. Denok ere badakigu Zuzenbidea ez dela zientzia zehatza eta badakigu Autonomia honek nahiko esperientzia duela horretaz; hots, sarritan gauza batzuk eskuko ez ditugula uste izan arren, saiaturik lortu egin daitezke, eta epaitegietan beraietan halaxe aitzatesten dute. Eremu honetan ona litzateke ildo

horretatik ahalegin ausarta egitea, lehen aipatu dudan unibertsitate-proiektua noizbait gauzatuko bada.

Legeari heltzen diozuenean malgutasunarekin ari zaitezela nahi nuke, hau da, ez ditzazuela ezar eredu oso itxiak, nahi nuke zabalik utz dezazuen Unibertsitatea inguruabar eta iritzi berrien arabera aldatzeko aukera. Lehen lurralde-ereduaz aritu naizenean arazo bat aipatu dut —eta gai horri irudikapen eta sormen handiarekin heldu behar zenioketela uste dut— ondokoa izan da: arreta berezia mena behar zaio buruzagitzari. Unibertsitatearen buruzagiari, Errektoreari, alegia, bitartekoak eman behar dizkiogu bere eginkizunarekin ziur egon dadin, taldeen onuren gainetik Unibertsitatea eraldatzeko jarrerak indartu ditzan. Nahiago nuke zuen irudimena eta sormena Unibertsitatean bereizkuntza elementuak eta politikak sartzeko erabiliko bazenituzte, bereizkuntza intelektualerako bitartekoak, jakina, Unibertsitatera gizartera hurbilduko duten elementuak —eta berriz ere esango dut nire ustez egokiena Fundazioa litzatekeela—, Unibertsitatea planifikatzera behartzen duten bitartekoak. Unibertsitateak badaki, behin honezkero, plan estrategikoa lantzen hasi behar duela, baina nolabait eztabaidatuko duzuen legearen bidez planifikazio estrategikoa gauzatu ahal izango genuke.

Halaber, Unibertsitatearen barruan ere beharrezkoak dira irudimena eta sormena finantzaketaren arazoari heltzeko. Gaur egun teknika berriak daude, egitarau-kontratuak, katedra-zuzkidurak, egitarau jakinetarako zorpetze bereziak etab... Nolanahi ere, Euskal Unibertsitatearen Antolakuntzari buruzko Legea abiagunea izatea nahi nuke, hala Legebiltzarrak nola gizarteko erakundeek eta Unibertsitateak, denok bat eginik, baterako proiektua hori gara ahal izan dezagun.

Azkenik, ez zait geratzen besterik Gizarte Kontseilua beti izango duzuela prest Unibertsitatearen onerako behar den koordinaziorako, bai eta bertako buru naizen hau ere. Eskerrik asko.

**Agintariek Osoko Bilkuraren
aurrean egin dituzten
agerpen garrantzitsuak**



Herri Kontuen Euskal Auzitegiko Buru **Juan Luis Laskurain jn. t. gorenaren agerpena** **Osoko Bilkuraren aurrean, UPV/EHUaren 1994ko** **Fiskalizazio Txostena aurkezteko** **1997ko azaroaren 3an**

Sarrera

Gizarte Kontseiluaren eskaerari erantzuna emanez, hemen gaude berriro Euskal Herriko Unibertsitatearen Fiskalizazio-Txostena aurkezteko, kasu honetan 1994. urteari dagokiona.

Orain dela sei urte Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Unibertsitateko lehenengo txostena aurkeztu zuen, 1987. ekitaldikoa. Ordutik hona gauzek hobera egin dute, ahalegin handiak egin dituzte horretarako Unibertsitatean baina, hala ere, emaitzak ez dira izan behar direnak. Badakit hobekuntzak lortzeko zailtasunak Unibetsitate kanpotik zein barrutik etortzen direla, bai lege aldetik, baita antolakuntzatik, langilegotik edo diruezatik, baina dagoen moduan ere akats asko ekidin daitezke eta horretan saiatu behar da Unibertsitatea.

Hasiera hartatik gaur egun arte egoera desberdinak ezagutu ditugu, batzuk lasaiagoak, beste batzuk, aldiz, nahiko aldrebesak. Agian, gaur egungo momentua ez dago baretuenen artean, eta hori ez da lagun ona izaten gauzak behar diren moduan hartzeko. Dena den, ekaitzaren zatirirk gogorrena pasatu delako itxaropena dut, ea astinduaren ondorio onak ateratzen dituzuen.

Gure txostena argitara eman genuenean oso gertu zeuden Giza Kontseiluak eta Unibertsitateak izan zituzten iskanbilak, 1997.eko aurrekontuak zirela eta. Honi buruz es dut uste esan beharra dagoenik baina, argi utzi behar

dut ez dagoela inolako loturarik gure Txostenaren eta aurtengo aurrekontuen gaitzespenaren artean. Bakoitzak bere bidea jarraitu du.

Alde batetik, Unibertsitateko arduradunek bazekiten Herri-Kontuen Eus-
kal Epaitegiko lana agertzeaz zegoela aipatu dudan arazoa gertatu zenean. Eta,
gainera, gure erakundea beti saiatu da bere lanetan objektibitatez ibiltzen, txos-
tenak probetxagarriak izan daitezen. Horrela, ez dugu gure lana norbaiti kalteak
ekarrazteko inoiz ere egin, aztertu dugun erakundeari etekinak edo ondorio
onak emateko baizik.

Hau esanda, aurkezpen honekin ez dakardala inolako berritik ere adiera-
zi behar dizuet, guztiz ezaguna delako. Guk banatu genuenetik zuetariko askok
ezagutuko duzue, bai txostenetik bertatik zein komunikabideetatik. Edozein
modutan, birpasatu egingo ditugu txostenaren puntu garrantzitsuenak.

Sarrera hau amaitu baino lehen gauza bat gehiago. Zuek 1997. urteko
aurrekontuak egiten ari zareten bitartean, nik 1994. urteko auditoretzarekin
natorkizue. Alde handia dago bien artean, nabarmenegia agian, eta saiatu behar
gara ahalik eta gehien murrizten. Ea denon artean hurrengo urteko aurrekon-
tuak onartu baino lehen aurreko likidazioa, auditoretza eta guzti, onartuta ego-
tea lortzen dugun. Horrela guztion lana probetxagarriagoa izango da, baita
herritarren diru publikoa ere.

Sarrera

Oraingo honekin laugarrenez agertu naiz UPV/EHUaren Gizarte Kon-
seiluaren aurrera; gaurkoan 1994ko ekitaldiko fiskalizazio-txostenean agerta-
razi diren gauzarik aipagarrienak azaltzera.

Lehenbizi aipatu behar da deigarria dela ekitaldi horren berri ematen ari-
tzea Herriko gainerako erakunde guztiek 1995ekoa burutua dugunera. Hala,
Eusko Jaurlaritzaren txostena bukatu zegoen jada joan den abenduan eta
Eusko Legebiltzarrari martxoan aurkeztu zitzaion. Horrek esan nahi du urtebe-
te baino gehiago atzeratu gara; atzerapen hori ezabatu egin behar da. Beste
administrazio batzuetan egin nahi genukeen bezala, Unibertsitatean ekitaldi
bateko auditoretza hurrengo bukatu baino lehen aurkeztu behar dugu.

Logikoa den bezala, 94ko ekitaldiaz esango dudana ez da askorik alden-
tzen aurreko ekitaldietako txostenetan esandakotik, baina, hala ere, bilakaera,
geldoa izanik ere, hoberako dela. Gure lehenbiziko txostena agertu zenetik, hau
da 1987, 88 eta 89ko ekitaldiei buruzkoa, egungo eguna arte Unibertsitateak
urrats garrantzitsuak eman ditu bere kontabilitate sistemak eta bere kontrol-sis-
temak hobetzeko eta, oro har, jarrera hobea du bitarteko publikoak kudeatzean
antzman zaizkion akatsak ahal den heinean konpontzeko.

Illo horretatik, gaurkoan aurkeztuko dizuedan txostenean berariaz agertarazita dago esan berri dizuedana; aipatu hobekuntzak sistema informatikoen erabilpenean gauzatu dira batik bat, baina baita AZPko langileen jardunaren arrazionalizatzean ere. Halaber, gaur egun aribidean dauden zenbait prozesu aipatu dira: kontabilitate analitikoa, ondarearen kontabilitatea eta langileen gastuak kontabilitatearen sistema informatikoan integratzea (gastuen arloan integratu gabe zegoen kapitulu bakarra).

Aribidean dauden neurri horien eta beste batzuen ondorioz erabat hobetuko dira UPV/EHUko prozesuak eta kontrola, eta hala orain baino errazagoa izango du bitarteko publikoak kudeatzea.

Ez dut aipatu gabe utzi nahi ziur naizela zeregin horretan buru-belarri ari-tuko direla lanean lehen TVCP/HKEEko goi karguetan eta gaur egun Unibertsitatearen Gerentzian ari diren bi pertsona.

Eta hori esan ondoren, bidezkoa da berehala gehitzea oraindik ere UPV/EHUan akats asko daudela, hainbat kasutan ez direla legeak betetzen eta badaudela gaizki dabiltzan gauzak; horiek guztiak ez dira egokiak Unibertsitatearen garrantzirako.

Alderdirik aipagarrienak

Unibertsitateko arauen arabera, aurrekontuaren likidazioa “Txosten Ekonomikoa” deritzon agertarazten da, eta hura Gobernu Batzarrari aurkeztu behar zaio ekitaldiaren hurrengo urteko lehenbiziko lau hiletan zehar, hark azter eta onetsi dezan. Hala ere, 1994. urteari buruzkoa 1996ko urtarilaren 11n aurkeztu eta onetsi da, hau da, epea iraungi eta zortzi hilabete igaro ondoren, eta gainera bertan ez da informazio osoa ageri, ez eta Estatutuetan eskatzen diren banakapenak eta azalpeneko idatz-zatiak ere.

1994ko Txostenean berariaz agertarazi da UPV/EHUaren kudeaketa egunean baino egunean hobea dela, eta, lehen esan bezala, arreta bereziarekin nabarmendu da Unibertsitatearen eremuan, haren gobernu egituraren barruan alegia, erabakitzeko eta kontrolatzeko kide anitzeko eta kide bakarreko organo asko egotea Unibertsitatearen autonomiaren, gizarte-askotarikotasunaren eta kultur askotarikotasunaren adierazgarria dela; gainera organo horiek guztiak ez daude hierarkizaturik, eta horren ondorioz erabakiak hartzeko prozedurak, kudeaketa eta administrazioa geldotu eta mantsotu egiten dira, eta horrek hainbat arazo eta akats sortzen ditu, Txostenean agertarazi direnak.

Illo horretatik, bat nator Errektoreak Eusko Legebiltzarrean esandako hitz hauekin: “Legea beste era batera taxutu behar litzateke; hain zuzen ere bide egokiak ezarri behar lituzke organoen arteko koordinazioa orain baino askoz

estuago izan dadin eta nire ustez funtsezkoa den zerbait babesteko: gobernu-lanetarako hautetsiei gobernatzen utzi behar zaie”.

Aurkezten ari naizen azterlan honek baditu bere mugak ezarpen-eremuan, aurrekoek bezalaxe; hau da, Epaimahai honek ezin eman izan du bere ebazpena zenbait gaiz, ez baitu horretako ahalmenik.

Zehatzago:

- Gerakin zehatzaren xehekapen banakatua.
- Ekoizkortasunaren ziozko osakinen gehiegiko abonamenduen zenbatekoak (seiurtekoak), eta irakaskuntzako merezimenduen ziozko banako osakin zehatza (bosturtekoak).
- Irakaskuntzako langileen lan-jardunari buruzko xehekapen banakotua; ez dakigu zehatz-mehatz zenbat ordu lan egin duen irakasle bakoitzak, UPV/EHUak ez baititu ordutegiak kontrolatzen.

TVCP/HKEEk kanpoko kontrola burutu du, eta horrela finantzen fiskalizazioa egin du eta legeria betetzen ote den ikuskatu du (Erregularitasunaren Auditoretza), Unibertsitateak berak ez baitu kudeaketari buruzko adierazkari sistema eraginkortasuna eta ekonomia zertan diren ebaluatzeko (Kudeaketaren Auditoretza).

Legeria betetzen ote den argitzeko egin den analisiari dagokionez, ekonomia-finantzen arloa eta langileen arloa azpimarratu ditugu, haiexetan islatzen baitira argien fiskalizatu den epealdiko ez-betetze larrienak.

Lehenbizi, ekonomia-finantzen arloan, ondokoak ez dira betetzen:

- 1994ko ekitaldirako onetsitako aurrekontuan ez da ageri urte anitzeko programaziorik, eta ez dago programaka banakaturik; gainera, egiaztatu da aurrekontuaren kudeaketan indarreko legeria zaurtzen duten aldaketak egin direla eta aurrekontu-krediturik gabeko gastuak egin direla.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko langile diren ikasleak eta haien zuzeneko senideak prezio akademikoak ordaintzetik salbutzen dira, eta salbutze hori Konstituzioan ezarritako berdintasunaren aurkakoa da.
- Unibertsitatea Espresa/Jakintza Lanezko Ikerkuntza (Euskoiker) fundazioak la UPV/EHUaren izenean sinaturiko ikerketako kontratuak ez dira behar bezala kontrolatzen, eta ez dira ageri kontabilitate-erregistroetan.

Nolanahi ere, akatsik gehien Langileen Gastuak atalean dago; atal horrek aurrekontuaren zuzkiduraren %60 jasotzen du eta aurreko ekitaldietan ere akats askoren gertagunea izan da. Hauexek dira batzuk:

- Irakasleei ordainsari-osagarriak ordaintzen zaizkie inolako lege-estaldurarik gabe.

- Irakasle elkartu (irakasle funtzionarioen %60) eta aldar-teko asko daude, irakasle eta katedradun plaza nahiko ez dagoelako, eta plazak estaltzeko deialdia urtebete baino gehiago atzeratu da dagoeneko.
- Aurreko ekitaldietan ez da egon enplegu eskaintza publikorik adminis-trazioa eta zerbitzuetako langileen postuetarako. Horrek eta aurreko idatz-zatian esandakoak batera egonkortasunik gabeko langile eta fun-tzionario ugari egotea ekarri dute, eta egoera horrek berekin ekarri du aldi baterako eta aldareko langileak kontratatu beharra, nahiz eta hori kasu guztietan indarreko legeriarekin bat etorri ez. Adibidez, irakasle elkartuak aldar-teko irakasle bihurtzea eta aldi baterako langileak aldar-teko funtzionario bihurtzea.

Beste alde batetik, eta finantzen fiskalizazioari helduta, Herri Kontuen Eus-kal Auzitegiak uste du UPV/EHUaren kontuetan ongi agertarazi direla ekitaldiko jarduera ekonomikoak, salbu utziz gero ondarearen kontabilitatea ez egiteak eta gerakinari egin beharrekotzat proposatu diren doikuntzek ekar litzakeen ondo-rioak (izan ere, ez da aurkezten ez egoera-balantzerik ez emaitzen konturik).

Azkenik, fiskalizazio txostenean Unibertsitateak baliatzen dituen kude-aketako eta barne kontroleko prozedurak eta sistemak aztertu dira. Aipatu beharra dago eremu honetan aurrera egin dela nabarmen; esaterako, kontabi-litate-kontrola eta kudeaketa hobetu dira, bai eta administrazioaren kudeake-tarako erabiltzen diren sistema eta aplikazio informatikoak ere. Hala ere, berriez ere aipatu behar da barneko kontrolak oso laxoak direla eta ondorioz lehen aipatutako akatsak eta ez-betetzeak gertatzen direla. Horregatik, bada, Auzitegiak gomendatu nahi du Unibertsitateak bultza dezala kontu-hartzaile-tzako organoa, bere antzeko aurrekontu-kopurua baliatzen duten beste era-kunde publiko batzuek dagoeneko badutenaren antzekoa, edo bestela indar dezala Barruko Kontrolerako Zerbitzua, hots, eman diezazkiola bitartekoak eta eginkizunak, eta lor dezala Zerbitzua lokabea izatea eta ez dadila inor beraz oker balia.

Beste hari bati helduta, gomendioak egin nahi dira erosketen arloaz ere. Esaterako, Euskal Unibertsitate Publikoko gastu-unitate guztiek produktu homo-geneoak erosiko balituzte, diru asko aurreztuko litzateke, batetik erosketa bolu-menaren ziozko deskontuengatik, eta bestetik gastuak zorrotzago kontrolatuko liratekeelako. Halaber, gomendatu da ekipamendu teknikoa erosteko aholkuak ematen zituen zerbitzua ezaba dadila, eginkizun bereko administrazio-unitatea dagoelako, eta egin ere halaxe egin da.

Azkenik, aurreko txostenetan langileez egindako gomendio eurak errepi-katu dira.

Ezin amaitu dut azalpen labur hau Auzitegiak 1995eko ekitaldiari buruzko dagoeneko hasita duen fiskalizazio-azterlanaren helburuak eta edukiak aipatu gabe:

- Euskal Herriko Unibertsitateari urtero egiten zaion kanpoko auditoretza berrikusi, oraingoan 1995ekoa.
- 95eko kontabilitate-erregistroak aztertu, eta aurrekontuko programa eta kapituluaren likidazioekin erkatu.
- Hasierako aurrekontuari buruzko analisia berrikusi.
- Euskoikerren finantza-orriak eta agiriak berrikusi.
- 1995eko ekitaldiaren likidazioaren emaitzako gerakinari buruzko xehekapena aztertu.
- Kontratazioaren arloan eta produktu homogeneoak eskuratzeko prozeduretan sakondu.
- Ber denboran, Langileen Gastuen arloa analizatzen jarraituko da, batetik aurrekontuan dirurik gehien jasotzen duen kapitulua delako, baina horrez gainera baita urteetan zehar bertan antzeman direlako akats ekonomiko eta lege-hausterik gehienak.

Amaitzeko, nabarmendu nahi dut aurreko ekitaldietan agertarazitako irregulartasunak (akatsak, legeria ez betetzea) lehengoan daudela, ia-ia beren hartan.

Hala ere, bitartekoen kudeaketa hobetu da, baina oraindik bide luzea ibili beharko dugu. Unibertsitatearen autonomia, pentsamenduaren, sormenaren eta irakaskuntzaren askatasunaren berme dena, ez da izan behar eragozpen bitarteko ekonomikoak eraginkortasunarekin kudeatzeko, bai Unibertsitatearen berarekin bai besteek emanak. Ildo horretatik, Herri Kontuen Euskal Auzitegiak gomendatzen du kide anitzeko organoek behar diren bitartekoak sor eta gara ditzatela langileak kudeaketa, administrazioa edo lege gaietan inplika daitezen.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa

Sailburuaren agerpena:

Unibertsitatearen Antolamendua

1997ko abenduaren 18an

Jaun-andre agurgarriok, Gobernutik Unibertsitaterako prestatzen ari garen unibertsitate-antolaketaren ezaugarri nagusiak aurkezteko etorri gatzazkizue arratsalde honetan bertora. Ezaugarri nagusi horiek gerora lege-proiektu bihurtuko direlakoan gaude. Eskerrak eman nahi dizkiogu Euskal Herriko Unibertsitatearen Gizarte Kontseiluko lehendakariari, ezaugarri nagusiok zeuoi guztioi aurkezteko eman digun aukerarengatik. Zuen baimenarekin, azalpen hau puntu nagusi bitan banatuko dut. Lehenengo puntuan, Unibertsitateari buruzko (batez ere Unibertsitate publikoa) gogoetak egiteko oinarri hartzen ditugun kasuak azalduko ditut; jarraian, gure proiektuaren lerro estrategikoak azalduko ditut.

Mendebaldeko gizarte guztietan, Unibertsitatea prozesu konplexu eta apur bat nahasian murgilduta dago, eta prozesu hori batzuetan eztabaidagarria da.

Eztabaidaren ardatz nagusiak, beste alde batetik, Unibertsitatearen kudeaketa ereduaren inguruan egituraturik daude, baita gizartearekiko harremanen inguruan edo unibertsitate-sistemaren eta lan-merkatuaren arteko harreman eztabaidagarriren inguruan ere.

Unibertsitate modernoa prozesu historiko luze baten emaitza da, baina prozesu hori ez da lineala eta ez du etengabeko lerrorik jarraitzen.

Euskal Unibertsitate modernoa hirurogeita hamarreko hamarkadan sortu zen. Urte horietan sortu zen, behin-behinean, Euskal Herriko Unibertsitatea, eta berarekin batera, baita lehenengo campus integratua ere.

Horrenbestez, datu historikoetan gehiago sakondu barik, hogeita bost urte eskaseko bizitza duen errealitate bati buruzko gogoetak egiten ari gara, milaka urte dituen Herri batean.

Prozesu historikoak Euskal Herriko unibertsitaterako izan dituen ondorio nagusiak hauexek dira:

1. Euskal Herriko Unibertsitatea sortu izanaren helburua hauxe da: koherentzia administratiboa, irakaskuntzaren arrazionaltasuna eta ikerketa eragitea, unibertsitate-egitura osatzen duten unibertsitate multzo batean eta titulazioetan; horiek, ordura arte, Bilboko Unibertsitate sortuberriaren, Valladolideko Unibertsitatearen edo beste Sail edota Ministerio batzuen menpe zeuden.

2. Oraingo hogeita hamar zentroetatik hogei, bestalde, Unibertsitate publikoaren sorrera administratiboa baino lehen ere unibertsitate-sistemaren barruan zeuden, eta beste bost ere baziren, oraindik bertako egituraren integraturik ez bazeuden ere. Horren arabera, sorreratik hona, hogeita hamar zentroetatik bost baino ez dira sortu.
3. Zentroak Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetan banaturik daude; horri euren nortasun akademikoa eta ikertzailea lotuz gero, eta lurralde-gizarteetako gizarte presentzia kontuan hartuz, erraz jabetuko gara lurralde berezitasun honek unibertsitatearen egitura itxuratzeke orduan duen garrantziaz.
4. Euskal Herriko Unibertsitatea sortu zenean, Espainiako Unibertsitateak matrikulaturiko ikasle kopuruaren hazkunde esponenziala izan zuen, baita irakasle berrien, Unibertsitate berrien eta zentro berrien hazkunde esponenziala ere; halaber, zalantzan jartzen ari ziren Unibertsitatearen eredu tradizionala.

Unibertsitatearen sistema publikoaren hazkundeak ikusgarria izan da, ikasle nahiz irakasle kopuruari dagokionez (1977tik %300). Halako hazkunde ikusgarri, azkar eta, batzuetan, anarkikoa Unibertsitatearen egitura akademikoan islatzen da. Datu guztietan oso zehatza izateko asmo barik ere, datu horietariko batzuk nahitaez aintzat hartzekoak dira. Unibertsitatearen egituraren hedapenaren jarraibideak desberdinak dira, lurraldean duen kokalekuari dagokionez. Unibertsitate baten jarduera ez da erdigune bakarretik abiatu behar; aldiz, dinamika akademikoaren irizpideak ez dira unibertsitateetako laborategietan pentsaturiko planifikazio baten arabekoak.

Ezaupenaren eremu handiei dagokienez ere egoera desberdinak aurkituko ditugu. Datuek diotenez, UPV/EHU matrikulaturiko ikasleen %50,4 Gizarte Zientzietako ikasketak burutzen ari dira. Kopuru horri Humanitate ikasketak burutzen dituztenen kopurua gehituz gero, guztizko kopurua %60koa da. Zientzia Esperimentaletan edota Osasunari loturiko Zientzietan ikasketak burutzen ari diren ikasleen kopurua, berriz, %16,39koa da, eta Ikaskuntza Teknikoetan ari direnen kopurua, azkenik, %24koa.

Beste pauso bat eman eta Euskal Herriko Unibertsitateak eskainitako titulazioak Unibertsitateen Kontseiluak onetsitako katalogoarekin konparatzen baditugu, zenbait gauza nabarmentzen dira:

1. Unibertsitateko irakaskuntzen berrikuntza prozesua hasi zenetik, handitu egin da emandako irakaskuntza ofizialen kopurua; izan ere, batetik, ugaritu egin dira ziklo laburreko titulazioak (diplomaturak eta injinerutza teknikoak), eta bestetik, dibertsifikatu egin da goiko zikloko titulazioen eskaintza.

2. Humanitateen eta Gizarte Zientzien eremuan, Euskal Herrian eskaintza handia dago. Gure unibertsitatean titulu ia guztiak eskaintzen dira. Horrek aditzera ematen du, Filologiako arlo batzuetan ez ezik, itxuraz ez dela gelditzen leku handirik, ezagutzaren eremu handi hauek gehiago garatzeko.
3. Zientzia Esperimentaletan eta Osasunaren Zientzietan, katalogo orokorrean jasotako irakaskuntzarik gehienak ematen dira. Hala ere, gabezia txiki bat dago ziklo laburreko tituluetan; egin-eginean, ere, halakoetan, badago lekua dibertsifikazio handiagoko garapenerako.
4. Gabeziarik handiena Karrera Teknikoetan dago. Euskal Herriko gizarteak industri garapen handia badu ere, eta manufacturetan ere tradizio handia izan arren, eskaintza urria da, dibertsifikazio txikia du eta gabezia nabarmenak ditu. Goi mailako Injinerutzako titulu gutxi eskaintzen dira; Injinerutza Teknikoak, gainera, dibertsifikazio txikikoak dira (hiru campusetan ia-ia titulazio berdinak eskaintzen dira), eta, beraz, titulazio gutxi eskaintzen da, lanbideari dagokionez aukera handiak eskaintzen dituzten ikasketak izan arren.

Euskal Unibertsitatearen historian arazo multzo bat aurkitu da. Horien guztien katalogo osoa egin barik ere, arazo nagusiak aipatuko ditugu:

1. Gure unibertsitatearen ezaugarri nagusienetariko bat lurraldean duen kokaleku anitza da; baina horrek, aldi berean, arazo ugari sortzen du. Hiru lurralde historikoek unibertsitateak dituzte, euren hiriburuetan. Halaber, Leioako campusa ere badago, Bizkaian, baita beste zenbait herritan kokaturiko zentroak ere (Barakaldo, Portugalete, Eibar).
2. Euskal Herriko unibertsitate multzoa oso gaztea izatearen eraginez, beharrian asko konpontzeko (azpiegitura nahiz irakasle mailan, baita administrazio zein zerbitzu mailan ere), koiunturazko jarduketak baino ez dira egin, eta horiek behin-behinean arindu dituzte gabeziak; baina beharrianok ez dira sakon aztertu, plan estrategiko baten bidez (Unibertsitatearen sistema publikoaren garapena).
3. Goi mailako hezkuntza sisteman inbertituriko finantza baliabideak, urte askotan, inguruko herrietan inbertiturikoak baino txikiagoak izan dira, bai guztizko gastu publikoa nahiz BPG kontuan hartuz, bai ikasle nahiz titulatu bakoitzeko gastua aintzat hartuta.

Gastuen zifra azaltzeko, goi mailako hezkuntzan izandako gastu txikia ez ezik, eraginkortasunik gabeko unibertsitate sistema ere aipatu behar da, ikasle kopuruaren zifra handitzen duen sistema. Izan ere, unibertsitateko ikasle kopurua hutsalduta dago, ondoko faktoreen eraginez: aldi baterako ikasleak legez kanpo-

koak ez izatea, karreraren iraupena luzea izatea, berandu utzitakoen kasua gehiegizkoa izatea eta ikasturtea errepikatzen dutenen kopurua oso handia izatea.

Planteamendu honetatik sortzen den hausnarketaren norabidea bikoitza da: helburuei buruzkoa eta eraginkortasunari buruzkoa. Helburuei dagokionez, argi esan behar da zer lortu nahi den, Unibertsitatean ikasle asko egotea ala daudenetatik gehienak graduatzea. Unibertsitate sistemaren eraginkortasunari dagokionez, finantzaketa handiagoa izatea garrantzitsua bada ere, hori ez da inola ere nahikoa. Horrek, berriz, beste gogoeta bat dakarkigu: baliabide kopuruak bezain garrantzi handia dauka finantzaketa mekanismoen erabilerak (baliabideon erabilera eraginkorra sustatzeko).

Esleituriko fondo publikoak nahikoak izatea ala ez izatea, esan beharrik ez dago, aurretiazko balorazio bik baldintzatzen dute: unibertsitate sistemaren neurria nolakoa izango den eta, unibertsitateen finantzaketa osoari dagokionez, zein zati dagokion sektore publikoari.

Etorkizunean unibertsitate sistemaren neurrian eragina izango duten arrazoiak era askotakoak dira. Dimentsioa handitzean eragina duten faktoreen artean, ondokoak aipa daitezke: Unibertsitatean sartzeko adina duten biztanleen kopurua egonkorra da, mende amaieran kopuru horrek beherakada gogorra izango badu ere; errentaren mailaren gorakada; titulu bat eskuratzeko erraztasuna, lanerako itxaropen handiagoak sortzeko; eta helduak goi mailako hezkuntza sisteman sartzea, euren heziketa hobetzeko edo birziklatzeko.

Baina balizko kopuru handitze hori moteldu egin daiteke, zenbait faktoreen eraginez: adibidez, heziketa aukerak hobetzea, batez ere Lanbide Heziketako heziketa zikloen garapena; ikasketak laburtzea, ikasleak gero eta gehiago ziklo laburreko karrerak aukeratzearen ondorioz; titulazioetarako erabilitako denbora murriztea; matrikulen prezioaren igoerak unibertsitaterako eskarian izandako eragina; eta unibertsitateko tituluaren bitartez bideratzen ez diren gizarte nahiz lanbide mailako orientazio berriak.

Badago ahaztu behar ez den datu bat: hezkuntzan gastaturiko BPGren portzentaia txikia. Inbertsioetako efortzuaren zatirik handienerako, diru publikoa erabiltzen da. Gero eta dirulaguntza handiagoak hartzen dira (1994tik 1998ra, %40,6ko gorakada; 16.566 milioitatik 23.297 milioitara igaro da). Hala ere, ikasleek ordainduriko tasen egonkortasunaren eraginez, horiek garrantzia txikiagoa dute Unibertsitatearen finantzaketan. Aurrekontuaren gorakada bi partidek eurenganatu dute batez ere; batetik, iraganean azpiegituren defizita betetzeko egin diren inbertsioek (ikasle kopuruaren gorakada handiari erantzuteko), eta bestetik, irakasle kopuruaren gorakada etengabeak.

Hurbileko etorkizunari dagokionez, zenbait gauza planteatzen da: 1) Diru-laguntza publikoa aurrerantzean ere ezinbestekoa izango da, unibertsitateko zerbitzu publikoaren oraingo mailari eusteko. 2) Dirudienez, Unibertsitateen diru-sarrerek, tasetara mugatzen bagara, ez dute gorakada handirik izango; beraz, barrura begiratu eta arreta handia jarri beharko zaie baliabideen eraginkortasunari eta zerbitzuak kanpoan saltzeari. 3) Unibertsitatera iristen diren fondo pribatu bidez finantzaketa handitzeko modurik ote dagoen ikusi behar da.

Deskribaturiko prozesuaren arabera, eztabaida gehien eragiten duen arazoetariko bat finantzaketa da. Etorkizunean ondoko arazoak jorratu beharko dira: 1) unibertsitate sistemak Europakoak bezalako eskolaratze-mailak lortu ote dituen; 2) aurreikuspen demografikoak kontuan hartuz, ikasle kopurua egonkortu edota beherako joera duen; 3) euskal gizarteak Unibertsitateko hezkuntzan egindako gastua hobetu egin den, baina Europan BPGri dagokionez erabiltzen diren portzentaietatik urrun dagoen; 4) inbertsioaren ahalegina inbertsio publikoak bakarrik eusten duen (tasak ez igotzearen eraginez, eta ikerketa esperimentaletan efektua handiagoa izatearen ondorioz ikerketa horietan, kostuaren desberdintasunak ez dira modu proportzionalen jasotzen, ikasleek ordainduriko tasetanæ); eta 5) Unibertsitatean elebitasuna ezartzearen eraginez langileen kostua handiagoa den.

4. Unibertsitatearen Berrikuntzari buruzko Legeak antolaketa mailako konplexutasun handiagoa dakar, baina ez du mekanismorik sortzen, kudeaketa eraginkorra, arina eta garbia izateko.

Datuok adierazitakoaren arabera, kudeaketa eredu egokia aurkitzeko, unibertsitate-egituraren antolaketa mailako arazo oinarritzko batzuk berriro planteatu behar dira, esate baterako, batzuen zein besteen eskumen-eremua eta Unibertsitatearen Berrikuntzari buruzko Legearen legezkotasun aldaketa.

5. Titulazioen eskaintza osatu egin behar da, eskaria beharizan orokorretara egokituz. Oraingo titulazioen katalogoa ikusita, dirudienez, Humanitateen eta Gizarte Zientzien nahiz Zuzenbidearen eremuek lizentziaturarik gehienak ematen dituzte.

Ezegokitasun handienak ziklo laburreko karreretan dira, batik bat karre-
ra teknikoetan, baita ziklo luzeko karrera tekniko batzuetan ere. Halako ikaske-
tak sortzeak dibertsifikatu egingo luke hezkuntza eskaintza, eta horren eraginez,
oraingo karrera batzuk ez lirateke hain masifikaturik egongo; gainera, eskaintza
produktzio munduko beharizanetara egokiturik geldituko litzateke, eta hori era-
bilgarria izango litzateke, Unibertsitateko irakasle-baliabideak titulazioen eskain-
tza berriera egokitzeko.

6. Azkenaurreko gogoeta Unibertsitatearen eta gizartearen arteko harremani buruzkoa da.

Sarritan entzun dugu unibertsitateko ikasketak ez direla merkatuko beharrianetara egokitzen. Nire iritziz, kritika horrek lanbide heziketako erakunde batekin nahasten du Unibertsitatea, eta Unibertsitatea ez da hori: baina ez goragoko mailako erakundea delako, beste gauza batzuez arduratu behar duelako baizik. Lanbide prestakuntza, zalantzarik gabe, Unibertsitatearen oinarritzko lanetariko bat da. Baina ez bakarra, ezta garrantzitsuena ere (ikasketa planak eta programak merkatuko beharrianetara gehiago egokitu behar direla uste dutenak iritzi horretakoak badira ere beharrian horiek zehazteko zailak dira). Agian lanbide prestakuntzarako lekuri egokiena enpresak edo erakundeak dira, graduaturiko gazteak bertara joango baitira euren lanbide jarduera garatzera. Beharbada, Unibertsitatearen lana berak dakiena egitea da, hau da, ikasketak eta tituluak eskaintzea, gazte lizentziadunen berehalako lanbide gaitasunerako; baita euren ezagupenak gaurkotu beharra duten profesionaletarako ere, edota ezagupenak eskuratu edota osatu nahi dituzten pertsonetarako.

Unibertsitateak gazteen lanbide heziketan (lanpostuen eskakizunen arabera) denbora gehiago emateko nahia, bestalde, zentzuduna da, baldin eta Unibertsitateak halako ardurarik izan behar duela uste izateko errazkerian erortzen ez bada.

7. Oraindik ere beste arazo asko diseinatzeko daude, adibidez irakasle-karrera (karrera hori gehiegi mugatuta dago Unibertsitatearen Berrikuntzari buruzko Legeak diseinaturiko arautegian) eta bertoko irakasleak izateko beharria. Nire ustez, disposizio bi horiek lurperatu egin dute Unibertsitatearen helburua mugitzen duen tentsioa. Egin daitekeen eta egin behar den eztabaida, bestalde, Unibertsitatearen irakasle-funtzioari buruzkoa da; horrenbestez, XXI. mendearen atarian funtzio horren izaerari buruzko gogoetak egin behar dira, baita beste ondokoari buruzkoak ere: irakasleen eskubideak eta betebeharrak, euren soldataren egitura, irakasle funtzio batera iristeko arauak eta betekizunak. Baina, aldi berean, irakasle-tentsioa ere berreskuratu egin behar da, hitz batean esateko, ikasgelara itzuli behar da, ikasgelako pedagogia berreskuratu eta ikasleari jarritako arretan sakondu behar da.

Legearen helburua (beraren oinarritzko jarraibideak aurkeztu nahi dizkizuegu) gizarte kontratu berri baterako oinarriak ezartzea da; kontratu hori bote-re publikoaren, Unibertsitatearen eta euskal gizartearen artekoa da; gainera, irekita dago berrikuntzara eta kalitatera, eta etengabeko aldaketara egokiturik dago, baita ezagutzak eskuratzeko helburura egokiturik ere (prosperitatearen eta modernotasunaren oinarritzko iturrietariko bat Unibertsitatea da).

Autonomia Erkidegoak aukera mugatuak ditu berezko legezkotasuna diseinatzeko (unibertsitatearen zerbitzura dagoen legezkotasuna). Unibertsitatearen interesen erregulazioa, neurri handi batean, agorturik gelditu da, Unibertsitatearen Berrikuntzari buruzko Legearen oinarritzko legeriaren bidez. Estatuko legezko ordenamenduak erabat mugatzen du Euskal Herriak Unibertsitatearen arloan jarduteko duen gaitasuna, batez ere Konstituzioko jurisprudentziak Autonomiarako oinarritzko eskubidetik sortzen diren ondorioei dagokionez (Unibertsitateak horien titularrak dira). Unibertsitateko irakasle-funtzioaren estatutua, irakasleen sistema, ikasketa planen prestakuntza nahiz onespina (titulu ofizialak lortzeko) eta abar bezalako oinarritzko arazoak, bestalde, Autonomia Erkidegoaren arauketa gaitasunetik kanpo geratzen dira.

Horren eraginez, gure legezko eskumenek muga handiak dituzte. Baina, beste alde batetik, Unibertsitatearen eta gizartearen arteko koordinazio kontratuak (Unibertsitatea zerbitzu publikotzat ulertua) aukera ematen du eremu komun interesgarria diseinatzeko. Unibertsitateak, botere publikoek eta Gizarte Kontseiluko gizarte ordezkaritzak (bakoitzak bere eskumenak garatuz) akordio batzuk lortu behar dituzte Unibertsitatea denari eta izan behar duenari buruz. Lege honen helburu nagusienetarikoa bat hauxe da: Unibertsitatea eztabaida publikoaren erdigunean kokatzea, gizarteak Unibertsitate hori nolakoa izan behar den esateko, baita gizartearekiko harremanen eredua edo Unibertsitateak gerora izango duen garapenaren irizpideak finkatzeko ere.

Legeak, hasierako artikuluan zerbitzu publikotzat hartzen du Unibertsitatea. Ez du zalantzan jartzen oraingo eredu bateratua; aldiz, goi mailako irakasle-kuntzaren erakundeak duen izaera bateratua baieztatu du; dena den, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetako bakoitzak campus bat duela esaten du, eta horrek izaera deszentralizatu onartzen du. Horrek ez du esan nahi oraingo eredua behin betiko finkatuta gelditzen ez denik. Hori ez litzateke zentzuduna izango. Unibertsitate berriak sortzea Legearen eskuetan utzi da. Oraingo Legeak edozer esanda ere, geroagoko Lege batek aldatu egin dezake planteamendu hau.

Unibertsitate publiko berriak sortzea, nolanahi ere, unibertsitate planaren barruko aukera bat izango da; horren testuinguruan, horren aukera eta komenigarritasuna aztertu beharko da, eztabaida orokor batean.

Legeak Unibertsitatearen arteko Koordinaziorako Euskal Kontseilua sortu du. Kontseilu hori Unibertsitate publikoak eta pribatuak biltzeko lekua da. Horietarikoa bakoitzak eskumen eta funtzio desberdinak baditu ere, bistan da helburu eta eskumen komunak ere badituztela. Halaber, unibertsitateko hezkuntza eskaintzaren hetereogeneotasunak topaketarako eremu bat eskatzen

zuen, erakunde batzuek eta besteek infomazioa trukatu ahal izateko, bakoitzaren berezitasunez informatzeko, bakoitzaren arrazoei erantzuteko eta esperientzia nahi interes komunak ezagutzeko.

Euskararen Erabilera Normalizatzeari buruzko oinarritzko Legeak hasitako bideari jarraituz, Legeak euskararen erabilera unibertsitatean normalizatzeko arauak ezarri nahi ditu; horretarako, euskalduntze programa sortu eta programa hori irizpide garrantzitsu batzuen menpe jarri du. Horri dagokionez, gure helburua hau da: unibertsitatean hezkuntza eskaintza elebidunak batzuen nahiz besteen legezkotako eskubideak ez urratzea, baina unibertsitate baten barruan bi ez egotea, bakoitza hizkuntz eredu bakarrean trebatuta. Helburua, beraz, hizkuntzaren dibertsifikazioak irakaskuntzaren kalitatea eta ikasleen prestakuntza bermatzea da.

Legeak botere publikoaren eta unibertsitatearen arteko koordinazioa aurreikusten du. Unibertsitatearen autonomia errespetatuz, Gobernuaren, Unibertsitatearen eta Gizarte Kontseiluko gizarte ordezkariaren arteko harremanaren kontratu izaera gogoratu behar da. Koordinazioa eta batzuen nahiz besteen arteko akordioa ekintza guztietara iristeko (unibertsitatearen barruko ekintza guztietara), Koordinazio Kontseilua sortzen da Unibertsitate Publikoaren, Gobernuaren eta Gizarte Kontseiluaren artean. Kontseilu horretan, erakunde batzuen eta besteen legezkotako ordezkariak daude, Unibertsitate Plana aztertzeko eta jakinarazteko (Unibertsitate Publikoa, botere publikoak emandako irizpide nagusietan oinarrituz, prestatzen ari den plana).

Horrenbestez, Unibertsitate Plana Unibertsitateko hezkuntza publikoa antolatzeko tresna berezia da. Plan horrek programa batzuk zehazten ditu, lortu beharreko helburuen arabera ezarritako programak, Unibertsitateko jardueraren eremu batzuei dagokienez. Planak lau urteko indarraldia izango du.

Legezko ordenamenduan emandako beharrezkoak betetzeko, legeak titulazioen arloan irizpide batzuk zehaztea aurreikusten du, eta irizpide horien barruan, titulazioak eurak, ikastetxeak eta lurralde historikoak sartzen dira. Irizpide horien bidez, jarduketa eremu orokorra diseinatu nahi dugu, lortu beharreko helburuak proposatzeko orduan (helburuok titulazioen mapa erabiliz lortuko dira). Horrela, gerorako titulazioak antolatu eta, Unibertsitateari nahiz gizarteari jarduketa eremu bat eskaini nahi diogu; eremu horretan irakasleen kalitatea eta eskaintza osatzeko, aintzak izango dira titulatu berriak izateko beharrezkoak (egitura sozioproduktiboak halako beharrezkoak ditu); halaber, titulazioen mapa lurralde historiko bakoitzaren garapen estrategikora egokitu behar da, baita Unibertsitate eskaintzaren eta irakaskuntzaren beste maila batzuen (batez ere Lanbide Heziketa) garapenaren arteko konexiora ere.

Unibertsitateko gastuaren oinarritzko zatia gizarteak finantzatzen duenean botere publikoek modu selektiboan aukeratu behar dituzte helburuak; Unibertsitateko zerbitzuen produkzioa handitu eta zerbitzuok egokitu egin beharko dira gizarteko eskakizunetara, zientziaren garapenera eta egitura ekonomikoaren ezaugarrietara. Horretarako, aukera berdintasunaren printzipioa bultzatu behar da; bekei eta tasei buruzko politika egoki baten bidez, biztanleei finantzaketa baliabideak erraztu behar zaizkie (Unibertsitatean sartzeko baldintzak beteta ere, halako baliabiderik ez duten biztanleei). Gizarte elkartasun hori, hala ere, osatu egin behar da guztizko gastuaren bolumena apurka-apurka handituta, inguruko herrien batezbestekora iristeko. Horretarako fondo publikoak handitu beharra dago, baina handitzeak lagungarriak izan beharko dira baliabideen oraingo esleipena beste modu batera orientatzeko. Kontratu-programek helburu hori lortzeko laguntza eman dezakete. Ezin dugu Unibertsitateko finantzaketaren ikuspegi subsidiarioa eduki (dirulaguntzetan oinarrituriko ikuspegia). Unibertsitateak ekarpen pribatuen garrantzia handitzeko beharrezana dauka, finantzaketaren sistema orokorrean. Horretarako, Unibertsitateko tasen balioari buruzko irizpideak zehaztu behar dira: fondo publikoak eta Unibertsitatearen autofinantzaketak une bakoitzean izan beharreko erlazioa zehaztu behar da.

Legeak proposaturiko finantzaketa eredua, beste alde batetik, ondo identifikaturiko hiru kontzeptutan banaturik dago. Dirulaguntza arrunta (dirulaguntza ororkortzat hartuta), kontratu-programen bidezko finantzaketa eta Inbertsioaren nahiz Azpiegituren Urteanitzeko Programa betetzeko partida. Dirulaguntza arrunta kalkulatzeko, aurretiaz finkaturiko parametro batzuk erabiltzen dira. Kontratu-programek, aldiz, Unibertsitate Planean aurreikusitakoa finantzatzen dute, aurretiaz finkaturiko helburuen arabera. Partida horren bidez ekintza bereziak burutu nahi dira, Unibertsitate mailako jarduera oso interesgarriak sustatzeko. Azkenik, Azpiegituren Programaren helburua Unibertsitateko azpiegituraren beharrezan betetzea da; programa hau indarrean dagoen bitartean burutu beharreko jarduketak nabarmentzen dira.

Legeak arreta berezia jartzen du ikerketan. Unibertsitatea bezalako erakunde batean, paradoxa bat gertatzen da: irakasleen denborarik gehiena irakasuntzak, tutoretzek eta lanen nahiz doktore-tesien zuzendaritzak betetzen dute; eta Unibertsitatearen ospea sortzen duena, berriz, ikerketak egitea eta emaitzak aldizkari nahiz liburuetan argitaratzea da (faktore hori ezinbestekoa da irakasleen karreran).

Hala eta guztiz ere, topiko guztiak albo batera utzita, ikerketak gero eta leku garrantzitsuagoa hartu du irakasleen eta sailen lanean. Horrela, gure herrian Unibertsitatea ikerketarako lehenengo erakundea da.

Legeak esperientzia historiko hori jaso eta berori bultzatzearen aldeko apostua egiten du, Unibertsitatearen lana bailitzan. Oinarrizko ikerketak eta ikerketa aplikatuak bata bestea osatzen dute; izan ere, ezagutzaren eremu batzuek eta zientzi nahiz irakaskuntza eremu batzuek ez dute ikerketa mota bi horiek bereiztea ahalbidetzen.

Baina, aldi berean, Legeak enpresa pribatuekin eta Zentro Teknologikoe-kin hitzarturiko ikerketa bultzatu nahi du. Halaber, mekanismo batzuk sortzen ditu trabak kentzeko, eta finantza laguntzarako programa batzuk aurreikusten ditu; gainera, ikerketa hitzartua Lurralde Historikoen zerga-legeriaren bitartez sustatzeko aukera irekitzen du. Helburu horrekin, eremu malgua deskribatzen da, Unibertsitateak aholkularitza eta zerbitzu kontratuak eskuratzeko, bai erakunde pribatuetarako eta bai Administrazio Publikoetarako.

Legeak irekitako aukerak gora-behera, ikerketaren mugak ere aintzat izan behar dira, irakasleek Unibertsitateko lanetan ere jardun ahal izateko. Horrenbestez, Legeak Unibertsitateari ezarritako mugak finkatzen ditu, adibidez aholkularitza mota batzuk; gainera, Legean ezarritakoaren arabera Sailek eta Institutuek buruturiko kontratuak errektoreak baimendu behar ditu; azkenik, Unibertsitateari dagozkion inbertsioen errendimenduak (Jabetza Intelektualaren, Industrialaren eta Patenteen legeriaren arabera dagozkion inbertsioak) oinarrizko ikerketa finantzatzeko erabiliko dira.

Ikerketa sustatzeko sortzen den egitura honetan, Unibertsitateak erronka handia dauka.

Legeak baldintza batzuk jartzen baditu ere, arreta berezia eskaintzen die ikasleei. Eskubideen araubidea nabarmentzen da, batez ere irakaskuntzarako eskubidea eta ikasteko askatasuna aipatzen denean; kasu guztietan kontzientzia eta adierazpen askatasuna bermatzen da; ebaluazio objektiborako eskubidea ere bermatu behar da, baita berori errekurritzeko eskubidea ere, bidegabekoa edo ezegokia dela ikusiz gero; azkenik, arlo bakoitzeko edukiak, helburuak, metodologia, programa, bibliografia eta abar ezagutzeko eskubidea. Legean ezarritakoaren arabera, ikasleek irakaslea aukeratzeko eskubidea ere izan beharko lukete. Aukera hau Unibertsitateak ebaluatuko du beraren egoeraren eta aukeren arabera, baita titulazio bakoitzaren eta baliabide erabilgarrien ezaugarrien arabera ere.

Legean ezarrita dagoenez, ikasleek irakasleen ebaluazio sisteman esku hartu behar dute, unibertsitate-jardueraren balorazioaren ingurune orokorrean.

Ez dugu irakaslearen funtzioa ahaztu behar, ezta administrazioa nahiz zerbitzuetako langileen funtzioa ere. Legegintzak talde batean edo bestean duen eskuhartzea ezin dugu Lege honetan egin, ez baitago eskumenik; izan ere, lehenengoari buruzko legeria Unibertsitatearen Berrikuntzari buruzko Legean jaso-

ta dago, oinarritzko legeriatzat; bigarrenen eskubideak eta betebeharrak, gainera, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legean jasota daude. Kasu bietan, bistan da Unibertsitatearen ibilera egokirako giltzak direla.

Aldiz, Legeak kalitatearen banakako osagarri bereziak sortzea jasotzen du, irakaslearen lana saritzeko, baita ikerketa eta Unibertsitateko zerbitzu publikoaren dedikazioa saritzeko ere. Hala ere, aldaketak bultzatzen jarraitu behar da, irakaslearen funtzioa Unibertsitatearen benetako beharrianetara egokitu ahal izateko. Legea norabide horretako konpromezua ere bada.

Legeak, azkenik, Unibertsitate Pribatuak onartzeko prozesua arautzen du; onartze hori, berriz, ikastetxeak sortzeko askatasunari buruzko oinarritzko eskubidetik ateratzen da.

Unibertsitate Pribatuen onarpenak, berez banatuko dituzten titulazioei dagokienez, Unibertsitate Publikoak sortzeko eskatzen diren baldintza berberak bete behar ditu. Legeak, halaber, beste irizpide bat ere ezartzen du: halako Unibertsitateek, bizirik dirauten bitartean, titulazioen gutxienezko edukia mantendu behar dute; dena den, hasierako titulazioak gerora ezabatu edo beste batzuekin ordeztu ahal izango dira; ezabatze hori, hala ere, lehendik matrikulaturik daudenen ikasketak amaiturikoan bakarrik egin ahal izango da. Legeak beraren nortasun juridikoa ere ezartzen du (sustatzaileek duten nortasunaren desberdina), baita gutxienezko kapital soziala eta kapital sozialaren zein karga-egintzen lagapenak nahiz eskualdaketak kontrolatzeko mekanismoak ere, erakunde titularra euskarritzen duten interesen gardentasuna bultzatzeko.

Legeak gure unibertsitate-sistemaren kalitatea kontrastatzeko eta bir-sortzeko mekanismoa izan nahi du. Kalitatearen legitimaziorik onena, berriz, Unibertsitateak buruturiko jarduera guztien kanpoko ebaluazioan dago.

Unibertsitatearen Berrikuntzari buruzko Legeak oinarritzko arazo batzuei buruzko arauak emateko ezartzen dituen baldintzak kontuan hartuz, inplikaturiko gizarte-eragile guztiei deia egin behar diegu, adierazitako helburuak gauzatu ahal izateko. Irakasleek, administrazioko nahiz zerbitzuetako langileek, ikasleek, gizarte ordezkariak eta agintari akademikoek konpromiso bat hartu behar dute, Lege honetan proposatzen den gizarte kontratua denon artean berritu ahal izateko.

**UPV/EHUaren
Gizarte Kontseiluaren jarduerak**



Batzordeak

Kontseiluaren batzordeek proposamenak edo txostenak egiten dituzte eskumeneko eman zaizkion gaiei buruz.

Epealdi honetan jarraiko batzorde hauek egon dira:

- Koordinazio Batzordea
- Gizarte Harremanetarako Batzordea
- Ekonomia eta Finantza Batzordea
- Irakaskuntza eta Euskara Batzordea

Koordinazio Batzordea

1995, urriaren 23a, azaroaren 6a, azaroaren 20a, abenduaren 4a eta abenduaren 18a.

1996, urtarrilaren 8a, urtarrilaren 22a, otsailaren 14a, martxoaren 4a, martxoaren 25a, apirilaren 29a, maiatzaren 22a, ekainaren 12a, uztailaren 2a, irailaren 24a, urriaren 15a eta azaroaren 12a.

1997, urtarrilaren 9a, martxoaren 4, martxoaren 19, apirilaren 10a, maiatzaren 5a, ekainaren 17a, irailaren 16a, urriaren 27a, azaroaren 17a eta abenduaren 18a.

Gizarte Harremanetarako Batzordea

1994, maiatzaren 2a

1996, otsailaren 27a, apirilaren 23a eta uztailaren 17a.

1997, azaroaren 17a.

Ekonomia eta Finantza Batzordea

1994, maiatzaren 10a, uztailaren 5a eta abenduaren 14a.

1995, martxoaren 22a, maiatzaren 19a, ekainaren 8a, uztailaren 18a eta abenduaren 18a.

1996, urtarrilaren 22a, otsailaren 14a, martxoaren 4a, martxoaren 27a, ekainaren 6a, uztailaren 19a, azaroaren 11 eta abenduaren 18a.

1997, otsailaren 18a, apirilaren 17a, maiatzaren 22a, uztailaren 21a, azaroaren 3a eta abenduaren 11.

Irakaskuntza eta Euskara Batzordea

1994, apirilaren 14a, uztailaren 5a eta irailaren 29a.

1995, martxoaren 30a.

1996, otsailaren 29a, ekainaren 27a, azaroaren 11 eta abenduaren 17a.

1997, otsailaren 19a, maiatzaren 8a, uztailaren 21a, azaroaren 3a eta abenduaren 11.

Unibertsitatea-Gizartea topaketak

Gizarte Kontseiluak unibertsitatearen inguruko gaiei buruz hausnar eta eztabaida egiteko bilgunea abiarazi zuen, Unibertsitatea-Gizarte Topaketak izeneko.

Bilgune horren bidez Gizarte Kontseiluak, gizarteak UPV/EHU bultzatu eta aurreratzeko tresna izateko xedea baitu, erkidego osoa arituko den eztabaida irekia sortu nahi izan du eta mundu akademikoaren eta euskal gizarte osoaren arteko topagunea izan nahi du.

1996an bi topaketa izan ziren:

UPV/EHUaren lurralde-egitura. 1996ko otsailaren 6a

Topaketa honetan lurralde historiko bakoitzak bere unibertsitatea izan behar duen ala oraingo egiturari (Unibertsitate publiko handia Leioan, Gasteizen eta Donostian campus bana eta hainbat ikastegi barreiaturik) eutsi behar ote zaion argitzea izan zen ardatza.

Eztabaidagaiaren sarrera egiteko, ponentzia bana aurkeztu zuten UPV/EHUaren Ingeniaritza Eskolako Zuzendari Juan Andrés Legarretak eta UPV/EHUaren Gaur Egungo Historiaren Saileko Zuzendari Manuel González Portillak.

Unibertsitatea euskaraz? Euskararen etorkizuna eta ezarpena goi irakaskuntza publikoan. 1996ko apirilaren 23a

Topaketaren abiaburua Bartzelonako Unibertsitateko Errektoreorde Josep M^a Ponsen hitzaldia izan zen; bertan, Kataluniako esperientziaren haritik eta oinarritzat kataleneraren erabilera Kataluniako Autonomia Erkidegoko unibertsitate-irakaskuntza normalizatzeko prozesua hartuta, adierazi zuen oraindik eragozpen handiak daudela katalenera eta gaztelania maila berean egon daitezen.

Euskal Herriko Unibertsitatearen Koordinazioari, Finantzaketari eta Plangintzari buruzko Jardunaldiak

Gasteiz, 1996ko urriaren 24a eta 25a

Gizarte Kontseiluak Euskal Herriko Unibertsitatearen Koordinazioari, Finantzaketari eta Plangintzari buruzko Jardunaldiak antolatu zituen 1996ko urriaren 24an eta 25ean Gasteizen.

Jardunaldien irekiera-ekitaldian Lehendakariorde eta Ogasun eta Herri Administrazioako sailburu Juan José Ibarretxe Markuartu aritu zen hizlari, eta Arabako Batzar Nagusietako Buru José Manuel Lopez de Juan Abad jn. eta UPV/EHUaren Errektore Magnifiko Pello Salaburu Etxeberria jn. eta UPV/EHUaren Gizarte Kontseiluko Buru Pedro Larrea Angulo jn. izan zituen lagun.

I. mahainguruan “*Euskal Herriko unibertsitate ikastegien koordinazioa*” gaia jorratu zen; ondokoak izan ziren solaskideak:

- Deustuko Unibertsitateko Errektore Magnifiko José Maria Abrego de Lacy jn.
- Nafarroako Unibertsitateko Errektoreorde Agustin González Enciso jn.
- Nafarroako Unibertsitate Publikoko Unibertsitate Proiektzioko Errektoreorde Heliodoro Robleda jn.
- UPV/EHUaren Ikerketa eta Nazioarteko Harremanetarako Errektoreorde Javier Zúñiga Lagares jn.

Jarraian eztabaidan aritu ziren, moderatzaile lanetan, Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos elkarteko buru Gregorio Monreal Zia jn. eta idazkari legez KPMG Peat Marwickeko Gerente Anton Azlor jn..

2. mahainguruan “*Unibertsitate publikoen finantzaketa. Gastu publikoa goi irakaskuntzan. Gastuaren eraginkortasuna. Gehikuntzako finantzaketaren krisia*” gaia jorratu zen; ondokoak aritu ziren hizlari:

- Bartzelonako Unibertsitateko Ekonomia Aplikatuko irakasle titular Jorge Calero jn.
- Kanarietako Gobernuaren Unibertsitate eta Ikerketako Zuzendari Nagusi Maria Teresa González de la Fe and.

- Valentziako Unibertsitateko eta Valentziako Unibertsitate Politeknikoko gerente-ohi Germán Marco jn.
- Alcala de Henaresko Unibertsitatearen Gizarte Kontseiluaren Ekonomia Batzordeko buru Miguel Martinez Cuadrado jn.
- Santiago de Compostelako Unibertsitatearen Gizarte Kontseiluko buru Emilio Pérez Nieto jn.

Jarraian eztabaidan aritu ziren, moderatzaile lanetan Herri Kontuen Euskal Auzitegiko buru Juan Luis Laskurain jn. aritu zela eta idazkari legez ATTEST Consulting enpresako Bazkide-Zuzendari Ignacio Barainca jn.

3. mahainguruan “Unibertsitate irakaskuntzaren planifikazioa. Gizarteak eskatzen dituen prestakuntza eta ikerkuntza” gaia jorratu zen; ondokoak aritu ziren hizlari:

- Bartzelonako Unibertsitateko Gizarte Kontseiluko buru Josep M. Puig eta Salellas jn.
- Iberdrolako Giza Baliabideen Zuzendari Joaquin Ochoa jn.
- UPV/EHUko Fisika Aplikatuko katedradun José Manuel Barandiarán García jn.

Jarraian eztabaidan aritu ziren, moderatzaile lanetan Donostiako Industri Ingeniaritza Teknikoaren Eskolako Zuzendari Ricardo Etxepare jn. aritu zela eta idazkari gisa IKEI, Ikasketa eta Ikerkuntzaren Euskal Erakundeko Zuzendari Juan Luis Llorens jn.

Jardunaldien amaiera-ekitaldian Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburu Inaxio Oliveri jn. aritu zen.

Ondokoak izan ziren ondorioak:

Euskal Herriko unibertsitate ikastegien koordinazioa

Goi irakaskuntzako ikastegien arteko koordinazioaren arloan berrikuntza aipagarria gertatzen ari da: unibertsitateari buruzko legeriak ezarritako murrizpenek epe ertainean unibertsitate-zerbitzua hobetzeko errealitate berria plazaratu dituzte (ikasleen mugikortasuna, kredituen aintzatespena).

Hitzarmen hauek eremu akademikoak eta gizarteak unibertsitateko irakaskuntzarako eskatzen dituzten koordinazioa eta lankidetzak lortzeko ahalegienen adierazgarri argiak dira.

Hainbat esparru geografikotan akordioak egin daitezkeela onarturik (autonomia erkidegoa, estatua, Europar Batasuna), lankidetzarako bi bide bereizi behar dira:

- Araupeko irakaskuntzaren koordinaziorako garatu beharrekoa.
- Ikerkuntzako proiektuetan eta hirugarren zikloan abiarazten ari dena.

Lankidetzako/koordinazioa gauzatzekotan, hausnar egin behar dugu hura egia bilakatzeko behar diren bitartekoak sortzeaz:

1. Unibertsitatearteko bilguneak, unibertsitatearen autonomia eta alderdien autonomia errespetatuz unibertsitatearen planifikaziorako baldintzak aztertzeke.
2. Ikerkuntzako zentruak, zientzialariak aritzeko, norberaren unibertsitatearen mugak gaindituz.

Unibertsitate publikoen finantzaketa. Goi irakaskuntzako gastu publikoa. Gastuaren eraginkortasuna. Gehikuntzako finantzaketaren krisia

Unibertsitate kalitatezkoa eta bikaina lortzeko asmoarekin, alde aurretik gizarteak nahi duen unibertsitatearen eredua definitu behar da eta horren kostuak analizatu behar dira (fakultate bakoitza, ikasketa plan bakoitza etab.), eta ondoren azterlan bakoitzaren ezaugarrien arabera neurketa-moduluak ezarri behar dira. Nahi dugun unibertsitatearen beharrianen berri jakin behar dugu (zertan inbertitu behar den), gero emaitzak eskatu ahal izateko; horietatik dira Unibertsitatearen finantzaketa sistema ezarri aurretik eman beharreko urratsak. Horrela, herritarrek Unibertsitatea baloratu ahal izango du eta gizarteak prest egongo da lehiakortasunerako egin beharreko ahalegina egiteko.

Azken hamarkadetan izugarri hobetu gara, baina hautatu dugun unibertsitate eredua masa-unibertsitatea da, eskari-unibertsitatea, eta horretarako bitarteko ugari behar da, eta geroago eta gehiago. Gizarteak zer eskatzen duen aztertu behar dugu, eta ondokoa galdetu geure buruari: atzera al da eredu hau? Gizarteak ari azaldu behar zaio, hau da, gizarteak esan behar zaio Europar Batasunean lehiatzeko moduko unibertsitatea nahi badu, ordaindu egin beharko duela.

Gaur egun, honela dago egoera:

- Erabiltzaileek (ikasleek) geroago eta gutxiago hartzen dute esku Unibertsitatearen finantzaketan.
- Arlo publikoaren finantzaketa-ahalmena geroago eta murriztagoa da.

Gauzak horrela, eta erabiltzaileek ongizatearen estatuaren geroago eta gehiago parte hartu behar dutela dioen teoriari erantzunez, aipa dezadan gogo-

an izan behar direla eraginkortasuna areagotzeko zenbait elementu, beti ere bir-banaketarako ahalmenari kalterik egin gabe (ekitatea):

- Matrikularen prezioaren eragina.
- Beken sistema irakaskuntzako irizpideen bidez taxutzea, alderdi ekonomikoa ahaztu gabe.
- Kredituen sistema errenta-kreditua erakoa izatea, eragin txikiagoa duela-ko Unibertsitatean sartzeko aukeretan.
- Beste finantzaketa-iturri batzuk bilatzea: egitarau-kontratuak, enpresa pribatuak parte hartzea (batez ere ikerkuntza aplikatua, OTRLak, fundazioak), zerga-arautegi egokia ezarri aurretik.

Elementu horiek guztiok finantzaketari orokorrean helduko dion eraldakuntza orokor baten barruan bildu behar dira; aldagarri guztiak hartu behar dira kontuan eta haiek Unibertsitatean sartzeko aukeretan eta ekitatean dituzten ondoreak neurtu behar dira. Horretarako, Unibertsitatearen jarduerak dituzten kostu guztien berri jakin behar da (ikasleko eta Unibertsitatearen jarduerako edo eginkizuneko), kostuak hobeto banatzeko erabiltzaileen, Administrazioaren eta enpresen artean.

Egitarau-kontratuei dagokienez, ezarri beharreko titulazioak planifikatu behar dira eta haien arabera antolatu behar dira plantillak, Unibertsitatearen eskaintza orekatzeko. Finantzaketa Unibertsitateak eta behar diren administrazioek batera definitutako egitarau-kontratuen araberakoa izan behar da; unibertsitate sistemaren planifikazio trinkoa behar da. Horretarako ondokoak egin behar dira:

- Unibertsitatearen jarduna ebaluatzeko irizpideak definitu: irakaskuntza-ren kalitatea eta zientziaren arloko politika ebaluatu.
- Gardentasuna gastuetan eta kudeaketa planifikazioa zentzutu; kudeaketa eredua eta erakunde-organoak eraldatu; kontabilitate analitikoa hobetu (ikasleko kostuak, titulazioko kostuak, ikerkuntzako kostuak), bai eta kontrol-sistemak eta gizarteak Unibertsitateari ematen dizkion bitartekoen eraginkortasuna ere. Horretatik Unibertsitatea kalitate-irizpideen arabera finantzatzea etorri behar da.

Unibertsitateko irakaskuntzaren planifikazioa. Gizarteak eskatzen dituen prestakuntza eta ikerketa

Unibertsitatearen planifikazioan badaude muga batzuk, batez ere arlo juridiko eta legalekoak direnak; honelaxe laburbil daitezke:

- Batetik, eskumenak Autonomia Erkidegoaren eta estatuko gobernuaren artean daude banaturik. Bestetik, Konstituzioan ezarrita dago unibertsitateak autonomia izan behar duela.
- Beste alde batetik, Unibertsitatean irakasle eta irakaskuntzatik kanpo ari diren langileak funtzionarioak dira, eta gainera Unibertsitatearen gobernurako lege ezarritako eredu berezia da.

Horiek guztiak kontuan izanik, ezinbestekoa da “hiru aldeko” elkarrizketa:

- Unibertsitatea
- Gizartea
- Administrazioa

Unibertsitatea ezin bizi daiteke zerbitzatzen duen gizarteari gibela emanik, eta une hauetan ondoko mezu ezin argiagoak bidaltzen ari zaio zenbait gairen inguruan:

- Titulu gehiegi eskaintzen dira.
- Eskaintzen diren tituluak ez dauden orekaturik.
- Unibertsitateko tituludunen prestakuntza eta jarrera ez datoz bat lan-munduaren eskakizunekin.

Gaur egun dena ari da aldatzen azkar asko, bai gizartea bera, bai enpresa, eta Unibertsitatea ere ezin gera daiteke bezero duen ikasleak eskatzen dion lehiakortasunetik bazter.

Planifikazioa gizarteak ezarritako abiaburuen eta kulturaren barruan kokatu behar da.

Unibertsitatearen eta gizartearen artean eten gabeko elkarrizketa behar da, eta horren ildotik datoz, halaber, Unibertsitatearen zerbitzuaren barruan hain presazkoak ez diren beste helburu batzuk ere, esaterako geroago eta herri-tar gehiagok kultura jasotzea.

Unibertsitateko Gizarte Kontseiluetako Buruen Konferentzia

Unibertsitateko Gizarte Kontseiluetako Buruen Konferentzia unibertsitateen eta gizartearen arteko harremanak hobetzeko sortutako bilgunea da; Konferentziak uste du unibertsitatearen eta gizartearen arteko lankidetzaren area-gotu behar dela, eta batez ere unibertsitatearen eta enpresen artekoa.








Besteak beste, Konferentziak unibertsitateak gizarteak duen eginkizuna aztertu eta ikertzen du eta hartaz gogoeta egiten du.

Konferentziaren barruan lau lantalde daude: Kalitatea Unibertsitatea, Unibertsitateko Titulazioa eta Lanbide Gaitasuna, Gizartearen Eskaerei buruzko Informazioa eta Etengabeko Prestakuntza/Teknologia berriak.

Konferentziak 9 bilkura egin ditu epealdi horretan (1994-1997):

- Madril, 1994ko maiatzaren 23 eta 24a
- Cordoba, 1995eko otsailaren 6 eta 7a
- Oviedo, 1995eko uztailaren 3 eta 4a
- Madril, 1995eko azaroaren 2 eta 3a
- Compostelako Santiago, 1996ko otsailaren 23a
- Cádiz, 1996ko apirilaren 18a
- Granada, 1996ko urriaren 29a
- Mallorkako Palma, 1997ko apirilaren 12a
- Tenerifeko Santa Cruz, 1997ko urriaren 24a

Azterlanak eta Proiektuak



Azterlanak eta Proiektuak

1994ko abendua. Unibertsitatea-Enpresa Fundazioa sortzeko proiektua

Txostenean Unibertsitatea-Enpresa lankidetzarako zioak aztertu dira, hura abiarazteak ekarriko dituen arazoak eta lankidetzaren aurrerako era-
gozpenak; Fundazioaren helburua-estrategia ezarri da.

Fundazioaren xedea, helburuak eta jarduteko politikak finkatu dira.

Xedea

- Unibertsitatearen eta inguruko enpresen arteko lankidetzarako bideak ezartzea, Unibertsitatearen sailen arteko lankidetzaren bultzatzea, eta Unibertsitateak gizarteari teknologia transferitzea sustatzea.

Fundazioaren helburuak

- Ikerkuntzako kontratuei buruzko aholkularitza eta haiek sustatzea.
- Enpresa, enpresa-elkarte eta erakundeentzako prestakuntzako egitarauak eta mintegiak antolatzea.
- Unibertsitate ikasle gazteen ekimena eta jarduteko gaitasuna areagotzea.
- ETEetan ikertzea bultzatzea.
- Zentru teknologikoekin lankidetzan aritzea haien jardunaren onurarako.
- Unibertsitateak sortzen dituen teknologia berrietan oinarritutako enpresak eratzea bultzatzea eta haiei aholkuak ematea.
- Unibertsitateen eta enpresen artean ikerkuntzako kontratuak egin daitezela lortzea.
- Aldian-aldean enpresekin harremanetan izatea, haiek ingurune aldakorretan molda daitezela.

Jarduteko politikak

- Ikerkuntzako kontratuak bultzatu eta kudeatu.
- Unibertsitatearen eskaintza teknologikoa eta prestakuntzaren arloko eskaintza zabaltu.
- Etengabeko prestakuntza eta erreziklapen teknologikoa.
- Enprekin harremanak izateko sarea ezarri, haiek prestakuntzan eta ikerkuntzan dituzten beharrianen berri jakiteko.
- Unibertsitatearen autoenpleguaren egitaraua.
- Graduatuak-Unibertsitatea informazio sistema garatu.
- Unibertsitatearen oraingo egitarauak edo egitarau berriak garatu.
- Nazioarteko sareetan lankidetzan aritu Europar Batasunaren bidez.

**1995eko apirila. Titulazio berrien beharrianak Euskal Autonomia
Erkidegoan, sozioekonomia, lan eta kultura mailako
beharrianen arabera**

Proiektu honen helburu nagusienetariko bat Euskal Autonomia Erkidegoko goi mailako titulatuak sozioekonomia, lan eta kultura mailan zituzten beharrianak identifikatzea izan zen.

UPV/EHUK ziklo luzeko 30 titulazio eta ziklo laburreko 7 titulazio eskaintzen ditu. Hala ere, Unibertsitateen Kontseiluak 127 titulazioen katalogoa onetsi zuen, eta UPV/EHUKo Campusak emana zuen horiei buruzko iritzia.

Unibertsitatean zeuden titulazioen katalogoan oinarrituz, zeintzuk eskainiko ziren eta zeintzuk ez erabaki zen.

Eskaintzen baziren, beharrianen azterketa planteatzen zen, eta ea titulazio hori mantendu edo berregituratu behar zen. Egiteko moduko berregituratzeak, berriz, titulazio horren bideragarritasuna eztabaidagarria zenean (identifikaturiko beharrianen eta gazteen euren aukeraren ikuspegitik) aplikatzen ziren.

UPV-EHUn eskaintzen ez ziren titulazioen azterketaren helburua, beste alde batetik, agente eragileak eta euskal gizarteak (orokorrean) titulazio horiek eskatzen zituzten ala ez jakitea zen. Eskari hori motela zenean eta handitzeko aurreikuspenik ez zuenean, hauxe erabaki da: UPV/EHUK oraingo ez duela eskaintza hori oraingo eskaintzaren barruan sartu behar.

Eskari handia duten titulazioetan, kapitulu honetan titulazio horiek sortzea planteatzen zen.

Titulazio multzo bakoitzerako, sozioekonomia, lan eta kultura mailako beharrianen buruzko ondorioak jasotzen ziren; Lan Merkatuko titulatuaren oraingo eskaria, eta eskariak gerora izango dituen joerak.

Titulazio multzo bakoitzaren egoera kontuan hartuz, egoera hori hobetzeko tresnak aipatzen ziren:

- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak Unibertsitateko gazteak Orientatzeko politika, helburu birekin: gazteak berriro orientatzea eta plazen eskaria sustatzea.
- Unibertsitateko plazen dimentsionamendua, sartzeko mugak jarrita, zentzu biotik: plazen eskaintza murriztea eta handitzea.

Merkatu bien arteko ezigokitasun handiena duten titulazio multzoak Psikologia eta Hezkuntzaren Zientziak eta Filosofia, Geografia eta Historia dira; izan ere, titulu oso handia dute merkatuan, eta, hala ere, bete gabeko eskari txikia dute. Neurri batean, egoera hori zuzentzeko, plazen eskaintzarako mugak

ezar daitezke; nolanahi ere, dirudienez, gazteei informazio egokia eman behar zaie, halako titulatuak lan-merkatuan gaur egun duten aukerei buruz eta egoera hori (titulatu eskariari dagokionez) hobetzeko zailtasunari buruz.

Bigarrenenez, Informazioaren Zientzietako eta Arte Ederretako titulazioak aipa daitezke; gazteek bete gabeko eskari nahikoa badute ere, titulazio horiek egoera txarra dute lan-merkatuan; beraz, gazteak modu egokian orientatu behar dira eta, horren eraginez, agian murriztu egingo da karrera horiek egin nahi dituen gazte kopurua.

Azkenik, Irakaskuntza Teknikoetako titulazio batzuetan bete gabe dagoen eskaria aipa daiteke: Industri Injinerutza, Telekomunikazioak, Injinerutza Zibila eta Herrilanak eta Arkitektura; hala ere, egoera hobea dute merkatuan, Unibertsitateko gainontzeko titulazioek baino. Horrenbestez, titulazio horiek bultzatu egin daitezke, gazteei horiekiko interesa eraginez eta horietan sartzeko mugak dimentsionatuz.

**1995eko maiatza. Garraiobideen azpiegituraren arloan jarduteko
proposamena, Bilboko Metroaren 1. linearen
eta Leioako Campusaren bitarteko loturak egokitzeko**

Azterlanaren xede nagusia Leioa eta Erandioko udalerrietan “Unibertsitatearen erabilerarako lurzorua” kalifikazioa duten lurrak aztertzea izan da (Bizkaiko Lurralde Historikoa). Euskal Herriko Unibertsitatearen ikastegi hori Autonomia Erkidegoko unibertsitategune nagusia da, bertako eraikinak, egiten diren jarduera akademikoak, azalera eta hirigintza bidez garatzeko dituen ahalbideak kontuan izanik. Azterlan honetan lur horiek “Leioako Campusa” esanez aipatu dira, nahiz eta ofizialki Unibertsitatearen barruan EHUaren Bilboko Campusa izan. Alegia, jendeak “Leioako Unibertsitatea” esan ohi dio.

Duen garrantzia gorabehera, Leioako Campusak baditu eragozpen batzuk. Handienak sarbideak dira, ez baitago kokaturik hirialdea: ez du jarraiko garraio publikorik, eta eskualdeko bideak oso gertu daudenez, hura eta Unibertsitaterako sarbideak gainezka egoten dira ordu gorietan. Garraio publiko jarraikorik ez egoteak jendea bere autoaz baliatzera behartu du, eta dagoeneko aparkatzeko guneak ez dira aski denak hartzeko. Eragozpen horiek Campusaren garapena mugatu dute, nahiz eta berez orain baino lur gehiago atzeman eta eraikitzeko gauza izan, eta gainera beste instalazio batzuk ere ezar litezke bertan, Unibertsitatearen jardunerako izateaz gainera eskualdeko jendearentzako ekipamenduak ere izango liratekeenak, esaterako Lorategi Jardin Botanikoa eta kirolguneak.

Beraz, kontraesan nahiko handia dugu, zeren lur publiko ongi komunikatuak daude, ongi antolatuak, azkar hazten ari diren hiriguneetatik gertu, Unibertsitatearen beharrianetarako egokiak eta ekipoak jaso litzaketenak, lurra berez urri den eskualde batean, baina bitarteko gutxirekin saihesta daitekeen murrizpena duena.

Beste alde batetik, “Bilbo Handiko funtzio-azpialdean” (izen hori eman zaio Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Gidalerroetan) laster, 1995. urtearen azken aldian, Bilboko Metroaren I. linea egingo da, eta horrek ondore positiboak sortuko ditu Eskualde Osoan eta oraingo garraio-bide publiko gehienak moldatu beharra ekarriko du, eta ondorioz baita Campusera joaten direnak ere. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak “Garraioaren Plan Integrala” idatziko du; plan horretan Metroaren I. linea ageri da.

Euskal Herriko Unibertsitatearen Gizarte Kontseiluak, Leioako instalazioek ongi funtziona dezaten eta behar bezala gara daitezen lurraldearen sarbideak hobetu behar direla oharturik, erabaki du ongi ezagutu behar direla arazoaren alderdi guztiak eta hura konpontzeko jarduketak sustatu behar dire-

la, dela lurraldearen antolamenduaren bidez, dela bideen edota garraioaren azpiegiturak hobetuz, kasuan-kasuan aritu behar den organoa edo erakundea gorabehera. Arazoa zertan den eta zenbateko gastuak ekarriko dituen zehazteko eta konpontzeko zer egin behar litzatekeen ezartzeko, azterlan hau egitea erabaki du, eta SENER, Ingenieria eta Sistemas S.A.ri agindu dio; enpresa horrek MECSA enpresaren laguntza izan du sarbideei buruzko azterketarako.

Azterlan honen ondoreetako bat da Leioako Campusa ez dugula ongi ezagutzen, oro har. Eta jakin dugu, orobat, aspaldiko kopurua baliatzen direla jarduketak aldezteko, Campusaren jarduera azken bost urteetan mahikoa hazi dela kontuan hartu gabe.

Azterlan honen hasieran Campusa eta beraren ingurunea ikertu dira. Lurraldea analizatu da, bai antolamendua, bai bertako azpiegiturak. Eskualdea eta bertako etorkizunerako planak begitatzuz gero, argi esan daiteke Campus toki ezin hobean dagoela. Teknologi Elkartegia-Aireportua ardatzaren osagai nagusia da (Loiun egongo da terminal berria). Lurralde hau oso garrantzitsua izango da eskualdearen garapenean. Leioa eta Getxo, ardatzaren buruak baitira, azken hogeitau urteetan gehien hazi diren gunek dira. Beste alde batetik, hirigunea Plentziarantz zabaltzen ari da Getxo eta Berangon zehar. Beste ikuspuntu batetik, portuko jarduerak Abrako kanpoaldera bideratu dira; instalazio berriak eraikitzen direnean, untzi-igaroa areagotuko da eta ondorioz zubiak egin beharko dira eta horrek Ezkerralderako komunikazioak hobetuko ditu, nahiz eta gaur egun autobideei esker Ezkerraldeko udalerrien arteko osterak oso azkarrak izan. Leioa eta Getxo oso gertu egonik, Unibertsitatearekiko harremanak orain arte baino handiagoak izan behar dira. Gainera, Leioako Artatza jauregiak, Getxoko Aznar jauregiak eta egingo den kirol portuak aukera handiak eskaintzen dituzte, eta udalerrri horien eta Campusaren artean izaten den jende-komunikazio handia kontuan izanik, etorkizunean elkarrekin garatuko direla esan daiteke.

Egin diren analisietarik gehienentzat harri garri suertatuko diren datuak atera ditugu:

- Leioako Campusaren azalera 900.000 m²-tik gorakoa da eta hori Leioako udal mugarteko hiri-lurzorua bi heren da.
- Eskola-egunetan Campusera 20.000 lagunetik gora joaten da, eta hori Arrigorriagako udalerrian bizi den jende kopurua halako bi da, edo Arrasate-Mondragoiko kopuruaren %150, edo Erandio edo Leioako jende kopuruaren %80.
- Campusean eraikitako azalera 2.300 etxebizitzak hartzen dutena da, gutxi gorabehera da, Eibarren dauden erdia, hain zuzen. Eta eraikigarri dagoen

lurzorua eraikita dagoena baino zabalagoa da, 2.500 etxebizitza egiteko beste lur baitago, hau da, Muskizen daude etxe guztiak eraikitzeke beste.

- Campusean aparkatzen duten autobusen kopurua Bilboko Intermodaleko ibilbide luzeko andenetan ibiltzen direnak halako bi da.
- Egunean autobusez Campusera heltzen diren pertsonen kopurua Sondikako aireportua erabiltzen dutenaren ahalko bi da.

Sarbideen eta igaroaren arazoak diagnostikatzeko landalana egin da, eta gainera linea guztiak eta Eusko Jaurlaritza aztertzen ari den Garraioen Plan Integrala ikertu dira. Egunerok Campusera zenbat jende joaten den zenbatetsi da, eta finkatu da zein sarbide erabiltzen duten, nola etortzen diren etab. Hain zuzen, egunean 18.000 lagun etortzen dira Campusera, ez-ohiko gertaerak bazter utzita. Haien erdiak autobusez etorri ohi dira, eta ia beste erdiak autoz; gutxi batzuk motoz edo bizikletaz ibiltzen dira. Adierazgarria da 500 pertsona baino gehiago oinez etortzea, nahiz eta hirigunea urrun egon. Autoz etortzen direnetako asko bakarrik etortzen dira, eta askotan gidariak lagun bat edo bi besterik ez ditu ekartzen. Campusean sortzen diren bidaiei jatorriari eta xedeari dagokienez, gehienak, %80 baino gehiago, Bizkaian gertatzen dira; bidaiari kopuruaren arabera, udalerri nagusiak hauek dira: Bilbo, Getxo, Leioa, Barakaldo, Portugalete eta Erandio.

Beste alde batetik, azterlan honetara administrazioek Campus inguruetan egingo dituzten jarduketak ere bildu dira, jarduketa-egitarau jakin batean egon zein ez. Hala bada, bide berriak egingo dira, lurrak urbanizatuko dira, garraiobide berriak ezarriko dira etab. Unibertsitatea ukitzen duten garraiobideetatik kontuan izan behar da Txorierrirako aztertzen ari diren metro arina.

Amaitzeko, Campusera errazago heltzeko egin behar liratekeen gauzak aipatu dira. Jarduketa horiek eremuka sailkatu dira: lurraldekoak, azpiegiturakoak, garraiokoak eta bestelakoak. Epea kontuan izanez, hiru talde finkatu dira: epe laburrekoak, epe ertainekoak eta epe luzekoak. Jarduketa horiek eta beraiei sailkapena koadro batean eta plano batean agertarazi dira.

Azterlanaren ondorio nagusiak honako hauek dira:

- Leioako Campusa ezin hobeto kokaturik dago.
- Sarbideetan dituen arazoak hiriguneetatik bakarturik egotetik sortu dira; beraz, Unibertsitaterako berariazko garraioa behar da, hots, garraio garestia, eskolaeguneko ordu gorietako eskaria asetzeko.
- Eragozpen horiek konpontzeko planak eta proiektuak daude, eta batzuk programaturik gainera.

- Metroaren I. linea abiarazten denean, gaur egun Campuseko zerbitzuan ari diren autobus lineak egokitu beharko dira. Hain zuzen ere, bidaiariak garraiobide batetik bestera pasatu beharko dira, eta horretarako txartela (edo abonua) bakarrik sortu beharko da, trenetik autobuserako bidea estalpean egon beharko da, eta autobusak eta Metroa koordinaturik ibili beharko dira, jendeak denborarik gal ez dezan, batez ere ordu gorietan. Garraio-aldaketa hori geltoki batean baino gehiagotan egin behar dira, autobusen ibilbide hautagarriak sortzeko eta Metroko lineako muturretako bidaiariak geltoki bakarrean pila ez daitezen.
- Metroaren I. linea abiarazteak ez lituzke ezabatu behar Bilboko autobus linea guztiak, baizik eta soilik Metroko geltokien eraginpeko aldeetatik datozenak.

**1995eko azaroa. Universidad del Pais Vasco/Euskal Herriko
Unibertsitatearen egoera soziolinguistikoa**

Txostenean ondoko gaiak aztertu dira:

- UPV/EHUan euskaraz eskaintzen den irakaskuntza.
- Unibertsitatean euskaraz ikasteko dagoen eskaria.
- Eskaintza eta eskariaren arteko erkaketa.
- Administrazio eta zerbitzuetako langileak.

Ondorioa ondokoa izan da:

- Azken urteotan UPV/EHUak ahalegin handiak egin ditu euskalduntzearen alde. Prozesu horren ardatza eskaintza izan da (titulazioetarako hizkuntz ereduak definitzea), ezinbestean: oraindik jende gutxiarena izanik ere hazten ari den eskaria ase beharrak irakaskuntzako gaitasuna moldatu beharra ekarri du.
- Horregatik, eskariaren bilakaera, garrantzitsua bada ere, ez bide da gakoa euskalduntze-prozesuan etorkizunean izango diren kopuru-beharrizanak zehazteko, prozesuaren ardatz nagusiak helburuak diren aldetik.
- Hala ere, egongo den eskaria zenbatzea ezinbestekoa da zer eskaini jakiteko. Batetik etorkizunean Unibertsitatean guztira ikasle gutxiago izango ditugulako eta ikasle euskaldunen portzentaia igoko delako, eta bestetik irakasleek orain euskara-ezagutza eskasa dutelako.
- Horrenbestez, badirudi epe ertainean gaztelaniazko irakaskuntza-ahalbi-dea behar baino handiagoa izango dela, eta horrek eztabaida sor lezake, balitekeelako tituluak euskaraz irakasteko modu bakarra irakasle euskaldun kontratatzea izatea. Hala ere, badirudi gomendagarria litzatekeela hemendik aurrera kontratatzen diren irakasleak elebidunak izatea.
- Alabaina, oraingo irakasleak euskalduntzea hautabide zaila izan daiteke epe laburrean eta ertainean. Saileko buruek irakasleen batez besteko euskara maila eskasa dela adierazi dute, eta gainera aipatu dute are zailagoa dela euskara Unibertsitateko irakaskuntzarako erabiltzea (hainbat beharkizun: ikerketa etab.).
- Horregatik, epe luzeko euskalduntze-planak behar lirateke, eta irakasleei pizgarriak eman behar litzaizkieke jarrera ona izan dezaten, besteak beste. Irudimenezko konponbideak behar dira, hizkuntz erreziklapenaren eta irakasle berrien kontratazioaren arteko oreka lortzeko xedearekin. Halaber, badago ikasle-ikertzaileei euskaraz aritzeko bekak ezartzea ere (materialak sortzeko, egunen batean irakasle izan daitezen etab.).

- Eskaintza zabaltzea (kopurua) euskalduntzearen arazoaren ataletako bat baizik ez da. Esaterako, aspaldion eztabaidak piztu dira euskarazko irakaskuntzaren kalitatea eta hark berekin dituen beharkizunak direla eta: irakaskuntzako materiala eta agerkari espezializatuak, irakasle euskaldunen koalfikazioa, taldeen tamaina, ikasleen motibazioak etab.
- Beste alde batetik, eskariaren eta eskaintzaren irizpideak bat ez datozela argi geratzen da jakintza-arloka aztertuz gero. Esaterako, gizarte zientzien arloko eta arlo juridikoko titulazioetan ikasle euskaldunen erdiak ari dira, baina Normalizazio Planaren arabera doitu gabe dauden kredituen %18 soilik. Aldiz, arlo teknikon doitu gabeko kredituen %50 baino gehiago daude, baina eskaria %18 besterik ez da. Gainerako arloetan bi faktoreak orekatuago daude. Beraz, aurreko datu horiek ikusirik, etorkizunean gerta daiteke lehentasuna zeri ematea aukeratu beharra: euskaldundu gabeko eta eskari gutxiko tituluei ala eskaintza zabalagoa edukita eskari handiagoen tituluei.
- Laburbilduz, UPV/ EHUaren euskalduntze-prozesuaren garapenerako, badirudi helburu berriak definitu behar direla eskaintza apurka-apurka eta antolaturik hazteko. Batetik, ikasketa-planen aldaketak, egitura berriak eta irakasgaien kopuru berriak (lauhilekokoak eta hautazkoak gehitu dira, besteak beste.) titulazioen hizkuntz ereduak egokitu beharra planteatu dute, inguruabarrak aldatu baitira.
- Bestetik, kopurua eta kalitatea parekatu behar dira, euskarazko irakaskuntza behar bezala eta bitarteko egokiekin eman dadin. Sailletako arduradunek horretan ahaleginak egiteko eskatzen dute behin eta berriz. Halaber, arreta eman beharko zaie euskalduntzearekin inguruko beste gai batzuei ere (euskara erabiltzea barruko eta kanpoko komunikazioetan, agirietan, errotuluetan, zerbitzuetan etab.).
- Azkenik, Errektoretzaren kudeaketa eta kontroleko bitartekoen gaia ukitu behar da. Bada, bitarteko horiek sendotu behar dira, Euskarako Errektoreordetzak prozesua zertan den eta nola dabilen jakin ahal izan dezan uneoro. Horretarako, sailen arteko harremanak normalizatu beharko dira, euskarazko irakaskuntzari buruzko informazioa sinesgarria izan dadin eta aldian-aldian berrizta dadin. Halaber, komeni litzateke euskara aldagarri nabarmen gisa sartzea Kalkulu Zentruko datuetan, iturriaren arabera hika-mikarik sor ez dadin euskaraz ematen diren irakasgaien eta kredituen kopurua dela eta.

1995eko urria. Unibertsitatearen Gipuzkoako Campusa.

Oraingo egoera eta etorkizuneko igurikipenak

TXOSTENAREN bidez hausnar egin nahi genuke UNIBERTSITATEAREN GIPUZKOAKO CAMPUSAREN oraingo egoeraz eta epe ertainean eta epe luzean azaleraz hazteko dituen igurikapenez.

Gipuzkoako Campusa Donostiako hirigunearen mendebaldeko ertzean dago kokaturik, azpiegitura gisa Tolosako etorbidea duela, Ibaeta ibarrean.

1990eko maiatzaren 1 In onetsi zen Hiri Antolamenduari buruzko Plan Berezia oinarri hartuta eta Osinalde-Ondarreta poligonoan lagatu eta ondoren antolatutako lurzatiez baliatuz zenbait fakultate eraiki dira; haiek urbanizatu ondoren Unibertsitatearen Gipuzkoako Campusa eratu da.

Hirigintzaren eta arkitekturaren ikuspegitik, esan daiteke Ibaetako Campusa maila oneko hirialdea dela, toki egokian dagoela kokaturik Donostiako hiri-egituraren barruan eta ongi komunikaturik dagoela hiriarekin eta aldiriekin Donostia inguruko errepide-sistemari esker.

Azken bi hamarkadetan ahalegin handiekin egin den hiri, arkitektura eta kudeaketa proiektuari esker Unibertsitatearen kultur ondarerako hirialdea eratu eta identifikatu da hiriaren mendebaldeko aldirietan, Ondarretako hondartzatik eta Mendizorrozko hegoaldeko hegaletatik hurbil.

Unibertsitatearen Gipuzkoako Campusaren eraketaren lehenbiziko fasean lehentasuna eman zaio fakultate berriak eraikitzeari, logikoa den bezala; lehen Donostia inguruko hainbat tokitan barreiatu egon diren fakultateak apurka-apurka Ibaetara bildu dira: Arkitektura, Filosofia, Enpresa Zientziak etab.

Ibaetako Campusa hirialde oso urbanizatuan dago; herritarren erabilerrako kirolgune zabalak eta berdeguneak falta zaizkio, bai eta lurgaineko aparkalekuak ere, gaur egun Campusean 13.000 ikasletik gora ari baitira. Denetara ia 16.000 ikasle ari dira Gipuzkoa osoan.

Eraikinei dagokienez, Europar edo Amerikan oinarritzko eta ezinbestekoak diren hainbat ekipamendu falta dira: Liburutegia, aularioak, lerketa, janlekuak, ikasleentzako eta irakasleentzako egoitzak etab.

Eraikinen arloan dauden hutsaldietako batzuk, epe laburrean partzialki soilik konpon litezkeenak, Ibaetako Campuseko Plan Bereziaren bidez konponduko dira beste eraikintzalldi batzuk abiaraziz. Plan horretan Plan Berezian eta Donostiako Plan Orokorrean Unibertsitatearen Sistema Orokorreko ezarritako lurzoruan dauden orube bakanetako batzuetan eraikitzea proposatuko da. Hala sortuko den Unibertsitatearen Gipuzkoako Campusa 20 hektareako eremuan bilduko da.

Plan Berezia onetsi zenetik urte mordoa joan den arren, Ibaetako Campuseko hegoaldeko lur asko jabe pribatuenak dira oraindik, eta horrek izugarri eragotziko du Unibertsitate Campusaren urbanizazio-prozesua eta hazkuntza epe laburrean. Eskumenak dituzten erakundeei lurraren arazoa presaz konpontzeko eskatu behar zaie, epe laburrean Unibertsitatearen Gipuzkoako Campusa kolapsatuko ez bada.

Ibaetako Campusaren inguruko hirigunean azken urteetan hirigintzako hainbat jarduketa egin dira eta ondorioz aldea goitik behera aldatzen ari da. Unibertsitatearen Ibaetako Campusa duela gutxi sortutako egoitzalde-azoz eta eraikin handiz inguraturik dago: Osinalde, Ondarreta, Benta Berri, Errotaburu, Beriyo, Pakea; auzo horiek, Campusak berak eta lehendik dauden hiriguneek (Ibaeta, Antiguu, Seminario, Loistaraingo eskualdea...) epe laburrean Donostiako hirigunearen barruko gunea sortuko dute.

Unibertsitatearen Gipuzkoako Campusaren inguruan hiriak izan duen aldarazpen dinamikagatik, Campusean bertan gertatu den hurrenez hurreneko dentsifikazio eta intentsitatearekin batera, oso denbora motzean Campusaren hiri espazioaren gainean hiri presioaren sintomak azaldu dira. Izan ere, Gipuzkoako Unibertsitateko Campusak, hiri lokalizazioari dagokionean, neurri handian hiriguneetan kokatuta dauden unibertsitateko aldeek gaindituta dituzten ereduak ezaugarriak betetzen ditu.

Epe ertainean hedatzeko dagoen aukera erreal bakarra, Ibaetako Unibertsitateko Campusari dagokionean, mendealde-iparmendealdeko ertzetik etorriko da, Mendizorrotzeko hegoaldeko landa izaerako magaletarantz alegia, Beriyo eta Pakea auzoen 200 metroko fronte linealaren bidez.

Unibertsitatearen Gipuzkoako Campusa eta gure hurbileko inguruko eta Europa eta Amerikako beste unibertsitate batzuetako campusen arteko azterlan erkatzailea egiten badugu esan daiteke Gipuzkoako Campusean ikasleen kopuruaren arabera eskuragarri dagoen lurraren azalera erabat dela ez-nahikoa, eta horregatik oso kaltegarriak diren erabilera-dentsitateak gertatzen direla, hau da, koadro eta grafikoetan argi azaltzen den bezalaxe.

Egin diren zenbatespenen arabera epe ertainean, nahiz eta ikasleen kopuruaren arloan hazkuntza txikia egon daitekeela kontuan hartu, beharrezkoa da Donostiako Plan Orokorrean aurreikusi den saila baino 5 bider gehiago eskuratzeko ondare eraikia eta horiei itsatsita egon behar duten zerupeko gunek askeen lurraren zuzkidurak Europan egiten diren mailan egiteko. Horrek guztiak esan nahi du aurreikusi den 20 hektareako saila edukitzetik 100 hektareara igo behar dela.

Donostiako Plan Orokorrak, oraintsu behin betiko onetsi dena, Ibaetako Campuserako epe laburrerako hedakuntza-beharrianetarako oso lur aurreikuspen eskasa egitea ezezik, ez du Campusaren hazkuntzarako epe ertain eta luzeko beste inolako hazkuntza-aukerarik planteatu ere egin.

Plan Orokorrak egungo Campusaren ingururako proposatu den hiri ordenazioak erabat sendotu du aldearen egoitzalderako atzemate osoa eta 112 etxebizitza dituen egoitzazko poligono berria kokatzea proposatu du, TOLARE, Beriyo eta Pakea auzoen artean Ibaetako Campusak mendebalde-iparmendebalde zedarritik oraindik garatu ez duen lurzoru bakarrean, eta alderdi publiko eta pribatuen berehalako negoziazioa ez bada egiten baieztatu daiteke Gipuzkoako Campusak ez duela inolako aukerarik epe ertainean Ibaetako eskualde horretan Europako estandarrak betetz, zentzunez hedarazteko eta egokitzeke.

1995eko urrian, Donostiako Plan Orokorren espedientea Gipuzkoako Foru Aldundiak behin betiko onespeneraren fasea bete gabe zegoenean, Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzak, alegazioak egiteko epea iraungita zegoela, dokumentua aurkeztu zuen Ibaetako Campusaren egungo esparruaren inguruan lur kopuru handiak erreserbatzeko beharrezko zegoela adieraziz; halaber, ohar-tarazi zuen arriskua zegoela Ibaetako Unibertsitateko Campusa “hiri uharte” agortu bihurtzeko, hedatzeko inolako aukerarik izango ez duena, baldin eta Plan Orokorrean Tolare alde horretarako aurreikusi den lurzoruaren kalifikazioa mantentzen baldin bada.

Donostiako Plan Orokorra behin betiko onetsi zen Gipuzkoako Foru Aldundiaren ebazpenaren bidez, eta Ibaetako Campusaren inguru horretan mantendu egin zuen antolamendua, hau da, Donostiako Udalak hasieran proposatu zituen terminoak aldatu gabe.

Ibaetako campusa epe ertain eta luzean, era naturalean eta zentzuzkoan, eta lgeldo mendiaren magaletarantz Europako estandarrei egokitz hazteko eta hedatzeko aukerak izugarri mugatu dira Donostiako Plan Orokorra onetsi denetik indarrean dagoen hirigintzako antolamendu juridiko berriarekin.

Tolare poligonoak, bere 112 etxebizitza horiekin, Ibaetako egungo Campusaren eta Tolare aldearen mendebaldeko lur mugakideetan, lgeldo mendiaren magaletan, Unibertsitateko erabilerarako diren sistema orokorren sailkapena duten lur erreserba zabalaren arteko lotunea izan behar du etorkizunean egin behar diren indarreko plan orokorren aldarazpen edo berrikuspenetan.

Ahalik eta arinen Euskal Herriko Unibertsitatea/Universidad del País Vasco eta Donostiako Udalaren eta Tolare poligonoaren sustatzaileen arteko negoziatioak egin behar dira, zertarako-eta lotune argia ezartzeko, gurpilezko-entzako eta oinezkoentzako izango dena eta hiri taxutuko duena, eta egun-

go Campusa Igeldo mendiaren hegoaldeko magalerantz eramango duena Tolare zeharkatuz. Tolare aldearen plangintzaren garapen xehekatuak kontuan hartu beharko luke, lehentasun osoz gainera, hirigintzako beharkizun hori, horrela Gipuzkoako Unibertsitateko Campusaren etorkizuneko gunea egituratzeko helburua lortuko genukeelako.

Arestian adierazi den negoziazio horrekin batera komeniko litzateke, ahalik eta arinen, Gipuzkoako Unibertsitateko Campusak egun dituen mentsa eta beharrianen azterlana eta inbentarioa egitea, hala lurzorua arloko bitartekoetan nola eraikita dauden azaleretan. Inbentario hori Europako gure inguruan dauden gainerako unibertsitateetako campusen ezaugarriekin erkatuta egin beharko da.

Egungo datuak eta maila koantitatiboan eta koalitativoan hazteko dauden igurikapenekin erkatuta, eta baita ustez egon daitezkeen berrikuntza teknologiko eta telematikoeekin erkatuta, epe ertain eta luzerako GIPUZKOAKO UNIBERTSITATEKO CAMPUSAREN HAZKUNTZARAKO EGITURAZKO PLANaren abiaburua ekarriko luke. Adierazi den EGITURAZKO PLAN horren abiatzeko irizpideak finkatu ondoren hartu beharko den lehen ekimena beharrezkoak diren lurra arloko bitarteko berriak zehaztea eta erreserbatzea izango da, eta lurraldean non egon daitezkeen erabakitzea; halaber, bitarteko ekonomikoen eta lur horiek herri ondare bihurtzeko beharko diren jarduteko sistemak bilatu beharko dira.

Hirigintza mailan ahalik eta arinen burutu beharko da, Gipuzkoako Unibertsitateko Campuseko etorkizuneko ANTOLAMENDURAKO PLAN BEREZIAN adierazi diren oinarri programatikoak eta prozedurazkoak ezarri ondoren, eta testu horretan XXI. mendeko lehen hamarkadetan Gipuzkoako unibertsitate esparruak izango duen irudi berria ahalik eta zurrunen zehaztu beharko da hirigintzari dagokionean.

1995eko azaroa. UPV/EHUko langileen egoeraren azterketa. Ondorioak

Txostenean, UPV/EHUko irakasleen gaitasuna aztertzen da (irakasleen lanpostuen zerrenda, irakasleen arduraduna, banakako azterketaren ikerketa orokorra sailen arabera).

Era berean, irakasleei buruzko ondoko informazioa ere aztertzen da: irakasleen banaketa, heziketa akademikoaren arabera; irakasleen banaketa, mailaren arabera; taldeen batezbesteko neurria; Irakasleen Arautegian aurkituriko urratzeak eta beste xedapen batzuk; ikerketa; doktoradutza; euskara; irakasleen banaketa, mailen eta arloaren arabera; beste irakasle batzuk; behin-behineko irakasleak, mailen eta arloen arabera; ikastetxeen, sailen eta ezagutza eremuen arteko erlazioak; irakasle bakoitzeko ikasle kopurua, ikastetxe bakoitzean; sailen berrantolaketa; langileen bilakaera, mailen arabera, 1992-1995 bitartean; ICEaren egoera berezia; sailen irakaskuntza, campusen arabera.

Administrazioko eta zerbitzuetako langileak ere kontuan izan dira, baina ez da horri buruzko azterketa sakonik egin.

Txostena amaitzeko, oinarrizko jarraibide batzuk ezartzen dira, langileria teorikoa osatzeko.

1996, ekaina. Euskal Autonomia Erdikidegoko Beharrizan Teknologikoen identifikazioa eta lehentasunak

Txostenean, ondoko ondorioak atera ziren:

Politika Teknologikoak

- Ikerketa eta Garapen Teknologikoa bultzatu eta laguntzearen aldeko politika argia dago Europan, Estatuan eta Autonomia Erkidegoan.
- Europan eta Estatuan, IV Programa Markoa eta Plan Teknologikoen jarduketek enpresetako I+G jardueren gorakada handia ahalbidetu dute; lankidetzak aukera ugari sortu dira, teknologia eskaintzen duten agenteen artean.
- EAEn, Politika Teknologikoak aukera eman du baliabideez hornituriko azpiegitura teknologikoa garatzeko. Etorkizunerako estrategiaren helburua, beste alde batetik, oraingo eskaintza finkatzea eta eskaria egiten duten agenteen arteko lankidetzak teknologikoa indartzea da, baita oraingo egitura teknologikoaren erabilera bultzatzea ere.
- I+G deritzonari emandako laguntza hau indartzeko, finantza laguntzak erabiltzen dira, horiek diru-sarrerak iturri handia ekar dezakete; gainera, teknologiak eskatu eta eskaintzen dituzten pertsonen arteko harremanak eragin ditzakete.

Teknologia nagusiak

- Identifikaturiko eremu nagusiak Informazioaren Teknologikoak dira.
- Telekomunikazioak, Fabrikazioa, Materialen Zientziak, Ingurugiroa eta Energia. Aurreko orrialdeetan, estrategi lerro nagusiak deskribatu dira.
- Eremu horiek ez ezik, beste aukera batzuk ere badira, esaterako, Osasun Teknologietan, Nekazaritzako Elikaduran, Eraikuntzan, Merkataritzan, Kulturean, Aisialdian, etab.
- Beste sektore batzuetarako, eta euren plan teknologikoak egin ondoren, gerora zehatzago ezagutu ahal izango dira euren beharrian teknologikoak.
- Eskaintza teknologikoa hobeto ezagutzeko, Eusko Jaurlaritzak sustaturiko industri klubekiko harremanak izan daitezke, gutxira bukatu egingo baitira horien plan teknologikoak.
- Eskari handiena duten sektoreak hauexek dira: Automozioa, Makina Erreminta, Etxetresna elektrikoak, Elektronika, Aeronautika, Nekazaritzako Elikadura, Ingurugiroa eta Energia. (Proiektuak onartu eta aurkeztuko dira, Eusko Jaurlaritzaren finantziaketa izateko).

Teknologi agenteen eskariaren ezaugarriei dagokienez

- PYMERik gehienetan ez dago garapen teknologikorako planik; planak merkatuaren edo lehiakideen arabera egiten dira.
- Oro har, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresetan, aurrendari teknologikoaren jarraitzaileak izateko bokazioa dago. Egoera honen ondorioz, teknologiaren eskaria epe laburreko garapen-estrategietan mantentzen da; erantzun azkarra bilatzen da, lehiakideen mugimenduei dagokienez, eta ez dago epe luzerako estrategiarik.
- Enpresak, salbuespen ohoragarri batzuk kenduta, produktu berriak merkaturatzeko arazoak ditu, beraren merkataritza-sarearen neurriaren eta dimentsioaren eraginez. Hori dela eta, produktuen berrikuntzak ez dira enpresen estrategien barruan jasota egoten.
- Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen neurriak baldintzatu egiten du I+G deritzon egingako gastua. Ikerketaren kostu handiak beharrezkoak dira politika berritzaileak burutu ahal izateko; baina kostu horiek nekez eusteko edo amortizatzeko modukoak dira, enpresa txikien eta ertainen kasuan.
- Tradizioz ez izatearen eraginez, askok ez dakite zelan kudeatu behar diren berrikuntzak.
- Horren ondorioz, enpresarik gehienek ezinbestean baino ez dituzte garapen teknologikoak egiten. Horren eraginez, emaitzak lortzeko hilabeteak behar dira; teknologia lehendik badago, orduan teknologia hori baldintza onetan duenari erosteko aukera dago.
- Enpresek beharrian teknologikoak hautemateari dagokionez, balorazio desberdina dago teknologiaren garrantziari buruz, teknologia horretaz dauden ezagutza mailen arabera. Horren ondorioz, kontraesanak sortzen dira, lehentasunak zehazteko orduan; horrenbestez, teknologia eskaintzen dutenek enpresari laguntza ematen diote, beraren beharrianak ondo zehazteko.

Eskariak teknologiaren eskaintza bereganatzeko dituen arazoak

- Enpresak, batez ere enpresa txikiak, arazoak ditu eskariaren ezagupena erabiltzeko eta aprobetxatzeko. Teknologia eskaintzen dutenek hizkuntza-arazo bat dute, enpresei soluzio teknologikoak planteatzeko orduan, soluzio horiek aukeratzat aurkezteko orduan (eskaria handitzeko). Horren eraginez, batzuetan enpresak ez du teknologi eskaintzaren beha-

rrizana ikusten, eta ahalegin handia egin behar izaten du bere arazoen soluzioa identifikatu ahal izateko.

- Aldi berean, Teknologi Zentroek duten dibertsifikazioaren nahiz espezializazio ezaren eta Unibertsitateek egindako eskaintzaren atomizazioaren ondorioz, batzuetan PYMEa ezin izaten da hurbildu, esfortzu handia egin behar izaten baitu bere arazoak konpontzen dituzten teknologiak aukeratzeko.

Eskaritik egindako gomendioak, Teknologi Eskaintzaren estrategia bat garatzeko

- Teknologia eskaintzaren merkatua da, eta ez eskariaren merkatua.
- Eskaintza, bestalde, enpresa handien nahiz txikien beharrianetara egokitu beharko da. Horretarako, neurri batean, lankidetzak edo transferentzia teknologikoa egokitu egin beharko da preziora, epera eta hornidura-baldintzetara (batez ere, ikerketaren konfidentzialtasunari dagokionez).

Beraz, eskaintzan haxe identifikatu behar da:

- Dagoeneko prestaturik dauden teknologiak, PYMEek azkar eta merke eskuratzeko moduko teknologiak alegia.
- Eskariaren baldintzetara ea zein teknologia egokitu ahal den eta zein ez, etorkizuneko eskaintzaren estrategiak ezarri ahal izateko.
- Aldi berean, kanpoarekiko lankidetzak aukera handienak izan ditzaketen eremuetan, enpresek erabilitako teknikak sartzearen bideragarritasuna aztertu beharko da (adibidez, erabateko kalitatea); horiek bermatu egin beharko dute hordidura enpresen beharrianetara egokituko dela.
- Teknologiaren hornidurak esfortzua eskatzen die erosleari eta hornitzaileari, arazoa zehazteko eta, gero, lanerako plana prestatzeko. Eskaintzaren agente batek prozesu hau errazten duen neurrian (soluzio berriak eskainiz), abantaila handiagoa izango du, lehiakideei dagokienez.
- Horren arabera, jakina, egokitzapen batzuk egin behar izaten dira antolaketa-egituran, aurkezpenean, merkataritza-ekintzan eta eskaintzaren jardueren sustapenean.
- Enpresak badaki Teknologia eskaintzen dutenek (Unibertsitatea eta Teknologi Zentroak) teknologi ahalmen handia dutela. Baina horren aprobe-txamendurako, zenbait egokitzapen egin beharko ditu, agente horien antolaketan.
- Hurbiltze hori errazteko, Unibertsitatearen kasuan, teknologiaren eskaintzaren eta eskariaren arteko loturatzat balio duen egitura erabil daiteke.

Egitura horrek Merkataritza Saila bailitzan jardungo du, eta soluzio teknologikoak identifikatzen, lantzen eta aukeratzen egingo du lan (eskaintzarako). Taldea zenbait adituk osatu beharko dute, eta horiek lankidetzat teknologikoari buruzko programen merkaturatzea eta barruko kudeaketan ahalbidetu beharko dute.

- Egitura horri laguntzeko, RED sistema bat eskuratu beharko da; horrek teknologi eskaintzaren trasbasea nahiz komunikazioa ahalbidetu eta kanpoan ezagutarazi beharko du..

1996, uztaila. UPV/EHUaren Ikerketa eskaintzara egindako hurbiltzea

Txostenean ondorio hauexek daude jasota:

Euskal Herriko Unibertsitateak, Europako beste eskualde batzuetako unibertsitateen mailara iristen ez bada ere, ikerketa gaitasun handia dauka.

- UPV/EHUK EAEko ikertzaile guztien %40 ditu.
- UPV/EHUn, ikerketaren gastua EAEko I+G deritzonaren guztizko gastuaren %40 da.
- EAEk unibertsitate sektoreko ikerketarako bideraturiko baliabideak Europako batezbestekoak baino txikiagoak dira. UPV/EHUK partaidetza txikia dauka, ikerketan egiten den esfortzu handian.
- Ikertzaileen masa kritikoa oraindik ere txikia da.

Unibertsitatean, ikerketak arazo batzuk ditu eta horiek ez dute ikerketaren eskaintza hobetzen uzten; halaber, ikerketan erabilitako pertsonen eta baliabideen ez zaie errendimendurik handiena ateratzen.

- Ikerketa taldeek ez dute laguntza tekniko eta administratiborik.
- Ikerketarako laguntza zerbitzuak oso mugatuak dira.
- Ikerketa jarduera ez da behar bezala baloratzen eta sustatzen.
- Unibertsitatearen egitura administratiboan sarritan burokrazia handiegia dago, eta horrek trabak jartzen dizkio ikerketari.

UPV/EHUren ikerketa-eskaintzarik gehiena ez dago bideratuta Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen teknologi eskaintza nagusiko eremuetara (adibidez, eskaintza urria dago fabrikazioko teknologiaren eta informazioaren teknologiaren eremuetan). Hala ere, batetik, Unibertsitateak (teknologi eskaintza egitean) enpresen beharrianetara egokitu beharko du bere eskaintza teknologikoa; eta, bestetik, tokiko merkatuaren eremua mugatua da, UPV/EHUko zientzi gaitasunerako (nazioartekotasunerantz orientatu behar da, gero eta gehiago).

UPV/EHUko fondoak banaketa eta, batez ere, ikerketan diharduten pertsonak, neurri batean, honantz orientatzen dira: gaur egun enpresa munduarekin lotura handirik ez duten eremuetarantz.

Kalitate handiko ikerketa talde batzuk daude, batik bat Zientzietan eta Injinerutzan eta Teknologian; aipagarrienak, berriz, Donostiako Zientzia Kimikoen Fakultatea, Leioako Zientzi Fakultatea eta Bilboko Industri Injineruen Goi Eskola Teknikoa dira. Txostenean zehar, garapen handiena duten ikerketa eremuetariko batzuk aipatzen dira: materialak, polimeroak, magnetismoak, katalizatzaileak, laserra, ingurugiroko teknologiak... Hala ere, UPV/EHUko teknologi eta

ikerketa eskaintza osoaren identifikazioa egin behar da, berori ezagutarazi eta “merkaturatzeko”.

Aldiz, ikerketa jarduera, azken urteotan inoizkorik handiena izanda ere, ez da gehiegi garatu Gizarte Zientzietan eta Humanitateetan; horrek ez du esan nahi Euskal Autonomia Erkidegoko gizarteari zuzendutako ikerketa eskaintza bat garatu ezin denik.

Erdian, UPV/EHUko sailetan lantzen diren ikerketa eremu batzuk gelditzen dira, esate baterako, Informatika eta Informazioaren Teknologiak, Telekomunikazioak, Energia, Gizakiaren Osasuna, Garraioa... Baina horiek oraindik ere ez dute behar bezalako garapen, kalitate eta, batez ere, hurbiltze mailarik (enpresa mundurako hurbiltzea); dena den, sustatu egin beharko dira, kontuan hartuz garatzeko aukera handia dutela.

Oro har, hobetu egin behar da Unibertsitatean buruturiko ikerketaren batezbesteko kalitatea; ebaluazio egokiak ezarri, ikertzaileen masa kritikoa nahiz egindako ikerketen bolumena handitu, ikertzaile berriak inplikatu eta, azkenik, multzo osoa enpresaren mundura eta gizartera hurbildu behar da.

Unibertsitateak, zientzi eta ikerketa gaitasun handia duen arren, arazo nabariak ditu, ikerketaren eta zientzi gaitasunaren emaitzak gauzatzeko.

Arazo horiek konpontzeko, ondoko neurriak aipa daitezke:

- Enpresari ikerketaren emaitzak jakinarazteko eta teknologia transferitzeko ekintzak burutu behar dira; Unibertsitatearen eta enpresaren arteko lankidetzak sustatu behar da, loturatzat balio duten egiturak erabiliz; egitura horiek “merkataritza” eta “marketin” lanak egingo dituzte, Unibertsitateko ikerketari dagokionez; azken batean, “baloratu” egin behar da Unibertsitatean egindako ikerketa.
- Horrenbestez, egitura bat sustatu behar da, UPV/EHUko ikerketa lana “saltzen” eta kudeatzen laguntzeko.
- Aldi berean, egitura horrek kanpoko finantzaketa bilatu beharko du; finantzaketa hori ez da zerbitzuen salmenta eta laguntza teknikoa (ez da Unibertsitateko ikerketaren helburu nagusia) edo kontratupeko proiektuen finantzaketa bakarrik izango: teknologi sektore edo eremu bateko enpresek oinarritzko ikerketa babestu beharko dute.

Beste lan batzuk

1995eko urtarrila. Espainiako gizarte kontseiluen jarduerari eta egiturei buruzko txostena

Txostenak ondoko atal hauek ditu:

1. Sarrera: Eginkizun nagusiak.
2. Antolamendua: Gizarte kontseiluen egitura.
3. Ahalmenak eta eskumenak:
 - Ekonomiaren eta finantzen arloko eskumenak.
 - Irakaskuntzaren arloko eskumenak.
 - Beste eskumen batzuk.
4. Jarduerak.
5. Etorkizunari begira.

Agerkariak

**CONSTITUCION
Y PRIMER
MANDATO
1990-94**

Consejo Social
eman ta zabal zazu



unibertsitatea
del país vasco

**ERAKETA
ETA LEHEN
AGINTALDIA
1990-94**


Ginarte Kontseilua
eman ta zabal zazu



unibertsitatea
del país vasco

**Euskal Herriko Unibertsitatearen
Finantzaren eta Egitura
Financiación y Estructura
de la Universidad del País Vasco**

◆
1992ko Abenduaren 3 eta 4
Donostia-San Sebastián
3 y 4 de Diciembre 1992
Donostia-San Sebastián



Unibertsitate-Koordinazio,
Finantzaketa
eta Plangintza
Euskal Herrian

Coordinación, Financiación
y Planificación
Universitaria
en el País Vasco

Victoria Gasteiz, urriak 24 eta 25
Victoria Gasteiz, 24 y 25 de octubre
1996



Agerkariak

Euskal Herriko Unibertsitatearen Finantzaketa eta Egitura, 1992ko abenduaren 3 eta 4, Donostia-San Sebastián

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko
Gizarte Kontseiluko Idazkaritza Teknikoa. *167 orrialde*. 1994

Argitalpen honetan 1992ko abenduaren 3 eta 4an egin ziren Jardunaldi-
tan izan ziren eskuhartzeak bildu dira; jardunaldiok Donostiako Miramar
jauregian egin ziren eta gaia Euskal Herriko Unibertsitatearen Finantza-
keta eta Egitura izan zen.

Aurkibidea

Hitzaurrea

Jardunaldien aurkezpena

Unibertsitateen finantzaketa

UPV/EHU eta beraren campusak: finantzen eta eginkizunen aldeko
arazoak

UPV/EHU: deszentralizatu edo zatitu

Ondorioak

Amaiera

Eraketa eta Lehen Agintaldia 1990-94

Eraketa eta Lehen Agintaldia 1990-94

Universidad del Pais Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko

Gizarte Kontseiluko Idazkaritza Teknikoa. 237 orrialde. 1995

Argitalpen honetan Universidad del Pais Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Gizarte Kontseiluak lehen agintaldian burutu zituen jarduerak biltzen dira.

Aurkibidea

Aurkezpena

UPV/EHUaren Gizarte Kontseilua

- Lege-esparrua
- Eskumenak
- Osaera
- Osoko Bilkurako eta Idazkaritza Teknikoko jarraiko kideak

Kudeaketaren balantzea. 1990-1994

UPV/EHUaren Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkurak aztertutako gaiak

UPV/EHUaren Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkuraren erabakiak

UPV/EHUaren Gizarte Kontseiluko buruaren hitzaldiak eta agerraldiak

UPV/EHUaren Gizarte Kontseiluan agintariak izan dituzten eskuhartze garrantzitsuak

Universidad del Pais Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Finantzaketa eta Egitura (1992ko abenduaren 3 eta 4an)

UPV/EHUaren bilakaeran kontuan izan beharreko magnitude batzuk
Legeriaren eranskina

Unibertsitateko Koordinazioa, Finantzaketa eta Planifikazioa Euskal Herrian, 1996ko urriaren 24 eta 25ean, Gasteiz

Universidad del Pais Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko
Gizarte Kontseiluko Idazkaritza Teknikoa. 179 orrialde. 1997

Argitalpen honetan 1996ko urriaren 24 eta 25ean Gasteizko Villasuso jauregian egin ziren jardunaldietako eskuhartzeak bildu dira; jardunaldi horien ardatza Unibertsitateko Finantzaketa eta Planifikazioa Euskal Herrian izan zen

Aurkibidea

Jardunaldien irekiera

Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntzako Ikastegien Koordinazioa Herri Unibertsitateen Finantzaketa. Herri gastua goi mailako irakaskuntzan. Gastuaren eragingarritasuna. Gehikuntzazko finantzaketaren krisia.


Unibertsitateko irakaskuntzaren planifikazioa. Gizartearen prestakuntza eta ikerkuntza eskaria.

Amaiera


**Gizarte Kontseiluaren
Aurrekontuaren Bilakaera**

Gizarte Kontseiluaren Aurrekontuaren bilakaera

GUZTIRAKO KOPURUAK




PORTZENTAIK






UPV/EHU Kopuruetan


UPV/EHUK 96/97 ikasturtean eskainitako Titulazioak (jakintza arloak)




UPV/EHUren Aurrekontuaren bilakaera




UPV/EHUko Ikasleen Kopuruaren bilakaera (UPV/EHUren Ikastegiak)



UPV/EHUtik irtendako Ikasleen Kopuruaren bilakaera



UPV/EHUko Irakasleen kopuruaren bilakaera



UPV/EHUko AZPko lanpostuen bilakaera

